

# Zu hemen zaude. goiena



## HIRU ANAIEK JANTZIKO DITUZTE KORRIKA EGITEKO ZAPATILAK BIHAR

Ekain Larrea Madrilen jokatu den Espainiako txapelketan izango da;  
eta Ibai eta Aimar Larrea, berriz, Antzuolako 8 Miliak mendi lasterketan / 32

Ekain, Aimar eta Ibai  
Larrea, etxean, bihar  
onena emateko prest.

XABIER URTZELAI ATXA

**Bihar, 308 ikasle eta  
132 boluntario First  
Lego League  
txapelketaren  
Arrasateko saioan / 5**

SINADURAK	
 MAITE TOLEDO / 22	 JONMIKEL INTSAUSTI / 29
 AGURNE JULDAIN / 6	 IZAR ODRIOZOLA / 40
 OIANA SANCHEZ / 11	

**Amaia Zubiriak  
jasoko du Monzon-  
Ganuzua Saria,  
"ezinbesteko figura"  
izateagatik / 21**

 + Beatriz Arzamendi  
musikagileari  
elkarrizketa

Patologia dualari  
buruzko  
erreportajea

**Annur elkarteak  
urtebeteko epean  
zabaldu gura du  
meskita berria  
Arrasaten / 9**

## 'KABARET 2.0'

**ZUZENEAN 'GOIENA.EUS' ATARIAN  
OTSAILAREN 28AN, EGUBAKOITZA, 22:30EAN  
BERGARAKO ARATUSTE-KONTZERTUA**



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena  
Zu hemen zaude.



# "Etengabe ikasten ibili behar dute enpresek"

JOSE LUIS LARREA EKONOMIALARIA

Enpresarek gonbidatuta, egungo mundu aldakorrean enpresek dauzkaten zailtasunez eta erronkez aritu zen atzo Larrea, Bergarako Miguel Altuna ikastetxean

Jone Arruabarrena BERGARA

Bergarako eta inguruko enpresen garapenerako eta eraginkortasuna hobetzeko elkarteak da Enpresare, eta batzar orokorra egin zuten atzo, Bergarako Miguel Altuna LHI ikastetxean. Bertara gonbidatu zuten Jose Luis Larrea ekonomialaria (Elgoibar, 1956), *Ikasten duen enpresaren erronkak eraldaketan dagoen munduan* hitzaldia eskaini zuen.

**Ekonomiatik begiratuta, zeintzuk dira aldaketa etengabe dagoen munduaren ezaugarri nagusiak?**

Aldaketa eta transformazio prozesu oso handiak bizitzen ari gara. Aldaketa horiek, era berean, aniztasun, konplexutasun eta ziurgabetasun handia eragiten ari dira, eta segurtasunik eza eragiten dute askotan.

**Adibidez?**

Globalizazioa geroz eta handiagoa da, baita eraldaketa teknologikoa ere. Adimen artifizialaren agerpena ere oso garrantzitsua izan da. Planetaren inguruko kontzientzia ere hazi da, eta beharrezko bihurtu da gauzak modu jasagarrian egitea. Berrikuntza prozesuetan ere aldaketa handiak gertatzen ari dira, eta, horrez gain, jakintza eta formakuntza ere geroz eta pisu handiagoa hartzen ari da.



Jose Luis Larrea, atzo. JOSE LUIS LARREA

**Gizarte arloan ere izan dira ekonomiari eragiten dioten aldaketak?**

Demografiak duen inpaktua kontuan hartzeko arlo bat da, esaterako. Geroz eta jende gazte gutxiago dago, eta horrek kezka handia ekartzen du ongizate ereduari dagokionez. Migrazioaren arazoari begiratzeko ere garrantzitsua da. Gure garapen eredu mantentzera bidean, guztiz beharrezkoak zaizkigu migratzaileak, baina, beste alde batetik, tentsio handiak sortzen ditu gai horrek arlo kultural, instituzional zein

sozialean. Aldaketa bat dago enpresaren dimentsio soziala ulertzeko orduan ere. Hala ere, egia da Debagoiengan egon den enpresa kulturak garrantzi handia eman diola betidanik horri. Beste joera bat segurtasuna izateko beharra da. Mundua oso konplexua eta aldakorra denean, denok behar dugu segurtasun hori. Pentsaera-aldaketa bat ere izaten ari da; harremanetan zentratutako paradigma batera aldatzen ari gara gaur egun.

**Zer dakarte aldaketa horiek?**

Lehiakortasuna ulertzeko beste modu batera garamatzate. Modu produktibistan ulertu da orain arte, enpresaren ikuspegitik eta lurraldean zentratuta. Baina orain, beste begirada bat aplikatzea beharrezkoa da: pertsonen gainean zentratutakoa. Lehiakortasuna ez da helmuga bat, baizik eta helmuga horretara heltzeko modu bat, jendearen ongizatea lortzera bidean.

**Zeintzuk dira erronkak aldaketa horien aurrean?**

Hainbat zailtasun ditugu. Batetik, gauzak ikuspuntu ezberdinetatik ikustea eragozten diguten aurreiritzi asko ditugu. Bestalde, geroz eta arinkeria handiagoa daukagu, oso lotuta dagoena teknologiaren aurrerapenarekin. Eta diru azkarra egiteko joera handiagoa dago. Lehen aipatutako segurtasunik ezak oso desmobilizatzailea den ezkortasun batera eramaten gaitu askotan. Hori larria da, ezer hobetu ezin daitekeela uste dugunean zaila delako gauzak hobetzea. Izan ere, kalte handia egiten dio, esaterako, espiritu ekintzaile baten garapenari.

**Testuinguru hori kontuan hartuta, zer alternatiba daude arlo ekonomikoan?**

Uste dut hiru arlo landu behar ditugula: batetik, pertsonen ongizatea kontuan hartzea, hori ezinbestekoa da; bestetik, berrikuntza lantzea beharrezkoa da aldaketei aurre egiteko; eta, azkenik, ikasketa prozesuekin konprometitzea. Azkenean, guztia etengabe aldatzen denean eta ziurgabetasuna nagusi denean, babesa bi lekutan hartu dezakegu: balio etikoetan eta etengabeko ikasketa batekin hartutako konpromisoan. Enpresa ikuspuntu horretatik begiratu beharko litzatekeela uste

du: gure enpresek etengabe ikasten duten enpresak izan behar dute.

**Ameriketako Estatu Batuen, Txinaren eta Europako Batasunaren arteko tentsio ekonomikoek jarraitu ahala, muga-zergek faktore erabakigarria izaten jarraitzen dute munduko merkataritzan; nola eragiten diote hemengo ekonomiarri?**

Tentsio horiek aldaketa handiak ekarriko dituzte, eta epe laburrean galtzaileak baino ez dituen zein bestean. Ekonomia hazi eta garatzen da fluxu ekonomikoak askatzen direnean. Mundu global batean ez dauka zentzurik hesiak altxatzeak. Hesiak erresistentziak ekartzen dituzte, baita pobrezia handiagoa ere. Guztiongan eragin handia izango dute muga horiek, baina oraindik ez dakigu nola eragin go diguten. Hala ere, egia da jokoaren arauetan aldaketa handiak gertatuko direla.

**Begarako eta inguruko enpresen garapenerako eta eraginkortasuna hobetzeko elkarteak da Enpresare: garrantzitsua da halakoak egotea?**

Guztiz beharrezkoa da. Azken 40 urteetako historiak erakusten digu, batez ere 90eko hamarkadan bizi izan genituen krisi ekonomikoek, gai izan ginela egoerari buelta eman eta hortik ateratzeko elkarlanaren bidez politika industrialak garatuta. Hori ondo ikusi da Debagoiengan; elkarrekin lan eginez gero, ho-beak gabela.

**"IKUSI DUGU EKONOMIA HAZI ETA GARATZEN DELA FLUXU EKONOMIKOAK ASKATZEN DIRENEAN"**

## Udalek aurreikusitakoa baino diru gutxiago jasoko dute

Mutualisten epaiak direla eta, udalek Foru Funtsetik aurreikusitakoa baino %3,36 gutxiago jasoko dute

Larraitx Zeberio DEBAGOIENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak 6.070 milioi euro bildu zituen iaz, 2023an baino 109,6 milioi gehiago (+%1,8). Aldundiak ziurtatu du 2024ko diru-bilketaren datuek "konfiantza" ematen du-

tela eta "Gipuzkoako ekonomia-aren indarra" erakusten dutela. Gaineratu dute, hori bai, mutualisten epaiek markatutako urtea izan dela.

Gauzak horrela, Gipuzkoako udalek Foru Funtsetik jasoko

duten zenbatekoaren berri eman du Ogasun eta Finantzetako foru diputatu Itziar Agirrek; orokorrean, aurreikusitakoa baino %3,36 gutxiago izango da. Gipuzkoako Debagoieneko zortzi udalerrri gipuzkoarren kasuan, 1.845.906 euro gutxiago guztira.

Agirrek hau esan du: "Euskal sistema instituzionala arrisku partekatuko sistema bat da (...) Mutualisten epaia bezalako salbuespeneko egoeren aurrean, maila instituzional guztiak gertatzen dira horren eraginpean".

### Udal Finantzetarako Foru Funtseko likidazioa

Herria	Aurrekontua 2024	Likidazioa 2024	Likidazio saldoa
Antzuola	1.812.630	1.751.770	-60.860
Arexabaleta	6.209.157	6.000.681	-208.476
Arrasate	19.154.732	18.511.600	-643.131
Bergara	12.746.436	12.318.467	-427.969
Elgeta	986.232	953.119	-33.113
Eskoriatza	3.667.876	3.544.725	-123.151
Leintz Gatzaga	252.470	243.993	-8.476
Oñati	10.148.104	9.807.376	-340.728
<b>GUZTIRA</b>	<b>54.977.637</b>	<b>53.131.731</b>	<b>-1.845.906</b>

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

# "Mina plazara atera dute senitartekoeak"

**NEREA VILLA ETA JUAN RAMON GARAI** INTXORTA 1937 ELKARTEKO KIDEAK Gogora Institutuko zerrendetan hainbat arrasatear agertzen dira 1936ko kolpe militarren alde borrokatu ziren pertsona gisa. Elkarteak salatu du ez dela egia

**Jone Arruabarrena** DEBAGOIENA

Intxorta 1937 kultur elkarteak joan den astean emandako prentsaurreko batean salatu du Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak *Euskadin gerra zibilean hildako biktimak* zerrendan "kolpe militarren garaipenaren alde borrokatu zirenak" ere jasotzen dituela. Horrekin "memoriari irain egiten zaiola" esan du, "akats historiko larria" dela, eta ikerketa zabaltzeko eskatu dio, "bidegabekeria horri irtenbidea emateko". Intxorta 1937 elkarte Juan Ramon Garaik eta Nerea Villak gogor gaitzetsi dute zerrenda hori.

**Gogora Memoriaren Institutuak zerrenda batean faxisten izenak dituela salatu duzue; zer zerrenda da hori?**

J.R.G.: Gogora institutuko webgunean, *Memoria Historikoa* izeneko atalean, *Fronte matxinatuan hildakoak* deitutako zerrenda ikus daiteke. Gogorak ez ditu betetzen Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legearen helburuak, baldin eta leku bat ematen badie kolpe militarren garaipenaren alde borrokatu zirenei. Biktimak al dira frankistek lagundu zieten falangistak, erreketek, matxinatutako armadako soldaduak,



Nerea Villa eta Juan Ramon Garai. L.Z.

guardia zibil kolpistak edo militar atzerritarrak ere, Gogorak bere webgunean agertzen duen bezala?

**Horrez gain, salatu duzue zerrenda horietan hainbat arrasatear agertzen direla matxino gisa, baina kolpe militarren alde borrokatzera behartuak izan zirela.**

N.V.: Bai. 955 arrasatear borrokatu ziren bi fronteen lehen lerroan: 552, kolpe militarren kontrako erresistenteekin batera; eta 403, matxino moduan edo matxinatuekin. Azken horien artean, 250 gazte joan ziren, kin-

ten bidez, matxinatuen lerroetan, goratzen ziren ideiekin batera ados egon barik.

**Adibideak ere eman dituzue.**

J.R.G.: Hala da. Esaterako, Francisco Gastañares Elorza, Union Cerrajerako langilea, lanetik bota zuten Bizkai aldera ihes egin zuenean. Amayur batailoiko gudaria, 1937ko maiatzaren 31ko nominetan agertzen da eta haren borrokalari zenbakia 69.037 da. Francisco behartu zuten erreketekin joatera borroka lerroa, atxilo hartu eta gero. Han hil zen.

N.V.: Gregorio Orobengoa, Sabino Ortiz de Guzman, Carmelo Balanzategui, Ramon Ugalde, Angel Echevarria, Juan Arrese zein Esteban Elorzarenak ere antzerako kasuak dira.

**Hainbat senitartekoren parte-hartzearekin egin duzue agerraldia.**

J.R.G.: Bai, eta horrek indar handiagoa ematen dio gure eskaerari. Hau ez da Intxorta 1937 kultur elkartearen eskaera bat, senitartekoen mina ere hor dago, eta plaza publikora atera dute min hori orain. Ekitaldian bereziki hunkigarria izan zen Ramon Ugalde Lizarralderen iloba Ana Isabel Ugaldek emandako testigantza. Matxinatu gisa agertzen da Ugalde, baina ez zen horrela izan.



Iñaki Aranburu eta Maite Iturbe, Garaiaiko instalazioetan. TXOMIN MADINA

## Energia-komunitateak %32ko aurrezpena ekarri die bazkideei

Leintz Bailarako errektore kontseiluak Ekiola energia-komunitateari buruzko balorazio positiboa egin du

**Jone Arruabarrena** DEBAGOIENA

Sei hilabete dira Leintz Bailarako Ekiola energia-komunitateko bazkideak Garaiaiko instalazio fotovoltaikotik energia jasotzen hasi zirenetik, eta Bailarako errektore kontseiluko kideek balorazio positiboa egin dute. Oraingoan, energiaren %70 esleitzen zaie bazkideei, eta gaintzekoa sarera saltzen da. Hala ere, esan dute energiaren %100 familiei eta etxebizitzetara bideratzea dela asmoa; hain zuzen, adierazi dute autokontsumora igarotzeko lanean dabiltzala. Hala ere, adierazi dute

beste hainbat helburu lortu ditzutela: "Azken finean, zero kilometroko energia sortzen dugu, berriztagarria, tokikoa, ingurugiroarekiko jasangarria eta, gainera, esateko moduan gaude: fakturan ere eragina duena".

Azken hori frogatzeko, familia baten azken sei hilabeteetako faktura bat erakutsi dute, eta baieztatu dute hilabete guztietan izan dutela aurrezpena; batez beste, %32ko aurrezpena izan dute. 250 bazkideetik gora dauka proiektuak gaur egun, eta zabalik dago beste 200 familia inguru bazkide egiteko aukera.

## Enpresen nazioartekotzeari buruzko topaketa Arrasaten

Eskualdeko hainbat enpresa batzen dituen Bailara elkarteak antolatu du, eta egunean egingo dute

**Jone Arruabarrena** DEBAGOIENA

Debagoieneko enpresen sektore askotariko elkarteak, Bailarak, nazioartekotzeari buruzko topaketa bat egingo du otsailaren 27an, Arrasateko LKS eraikinean, arratsaldeko lauretan. Izan ere, elkarteak adierazi du eskualdeko industria- eta zerbitzu-sarea "dinamizatzeko eta bultzatzeko" beharrezkoa dela nazioartekotzearen esparrua, "egungo merkaturuan abantaila gehiagorekin" lehitzeko. Ekimenaren helburua da, besteak beste, sektore bakoitzean liderrak diren erakunde

eta enpresek "nola egiten duten jakitea". Horretarako, nazioartekotzea bideratzeko erronkei eta aukerei buruz arituko dira Gipuzkoako Ganberako Nazioartekotze Saileko arduradun Gorka Goikoetxea, Ulma Construccioneke gerente Aitor Ayastuy eta ABC Compressors-eko Nazioarteko Salmenten eta Marketingo arduradun Gonzalo Gabarain. Hainbat esperientziaren trukea eta jakintza beharrezkoa dela diote antolatzaileek. Parte hartzeko, [irati@bailara.eus](mailto:irati@bailara.eus) era idatzita eman daiteke izena.

## Arrasatearrak EAEko batailoietan

Eusko Abertzale Ekintzaren historiaren inguruko saioa izan zen eguaztenean Kulturaten. Batailoietan parte hartu zuten arrasatearretan oinarritutako hitzaldia izan zen, eta Eduardo Renobales idazleak hiru liburu aurkeztu zituen. Ekitaldian izan ziren Gabriel Goitiaren alargun Ivette Goitia (103 urte), eta haren alaba eta iloba Loretxu eta Imanol Goitia.



Ivette, Imanol eta Loretxu Goitia, aurkezpenean. MIREIA BIKUÑA

# Kalistenia proiektua, talde-lanean eraikita

Aretxabaletako Lanbide Heziketa Eskolako ikasle talde batek kalistenia egiteko parke bat egin du. Ekimena irailean hasi zuten, eta lau hilabeteko prozesuan hainbat heziketa zikloren laguntza izan dute egin beharreko lan guztiak egiteko

Aretxabaleta Lanbide Heziketa Eskolako ikasle talde batek Amorebieta-Etxanoko Lauaxeta ikastolan kalistenia parke bat diseinatu, eraiki eta instalatzeko diziplina arteko anbizio handiko proiektu bat gauzatu du.

Prozesu luzea izan da, ondo prestatua, emaitza behar bezalakoa izan dadin.

## Giharrak landu eta indartzeko

Kalistenia giharrak lantzeko tresnarik gabeko ariketa-sistema bat da, norik bere gorputzaren pisua erabilia gihar-taldeak indartu ditzan.

Helburua indarra irabaztea da, bai eta malgutasuna eta hobekuntza aerobikoa ere. Kalisteniarenean ezaugarri nabarmena makinari behar ez izatea da, ia edonon egin daitekeelako, eta, kalistenian aritzeko, horretarako prestatutako parke bat behar izaten da: barra-parke delakoa.

Halako parkeetan hainbat ekipamendu egoten dira, hala nola flexio-barrak, uztaiak, barra paraleloak eta abar. Hala, kalistenia parke ederra diseinatu eta gauzatu dute Aretxabaletako Lanbide Heziketa Eskolako ikasleek. Kirola naturan eta modu seguruan egiteko arau eta gomendioak hartuta gozatzea soilik geratzen da.

## Talde-lanean eginda

Kalistenia parkea egiteko proiektua irailean hasi zuten, eta hainbat heziketa zikloren laguntza izan dute. Lan teknikoa eta irisgarritasun-irizpideen integrazioa nabarmendu behar dira, egindako proiektu osoa kontuan hartuta. Hori da irakasleek adierazi dutena, azken emaitzari erreparaturaz. Izan ere, metal-eraikuntzen zikloko ikasleek –2CM3 taldeak– proiektuaren plangintza eta gauzatzea gidatu zuten, eta, parkearen irisgarritasuna bermatzeko, menpekotasun egoeran dauden pertsonen arretako 2AP2 zikloko taldeko ikasleek diseinuan parte hartu zuten, instalazioa hainbat desgaitasun dituzten pertsonen erabil zezaketela ziurtatzeko. 2ME2 taldeak fabrikazioaren mekanizatuak egin ditu; soldadura lanak, berriz, 2SC2A eta 2SC2D taldeek egin dituzte; pintura lanak karrozeria zikloak –2KA2– eta automozio zikloak egin dituzte, 1AU2 eta 2AU3 taldeek. Azken muntaia lanak, 2SC2A eta 2SC2D taldeek.

## LAU HILABETEKO PROIEKTUA EGITEKO, ESKOLAKO HAINBAT ZIKLOTAKOEN LAGUNTZA IZAN DUTE

Bezeroak –Lauaxeta ikastola– diseinuaren ezaugarriekin eta soldadurako irakasleek jarritako mugak erronkak izan dira gaitasun teknikoak garatzeko. Azken finean, helburua izan da ikasleen ikasketa prozesua, Aretxabaleta Lanbide Heziketa Eskola ez baita enpresa bat.

## Lehiaketan irabazle

Lau hilabeteko lanaren ondoren, kalistenia parkea Lauaxetan kokatu da, azkenean, kirola egiteko eta inklusiorako gune bihurtuta. Prozesua amaitu arren, bide berriak ere ireki nahi izan dituzte egindako proiektuarekin. Izan ere, publizitate-lehiaketa batera aurkeztu dute proiektua, eta bertan irabazle izan dira, kalistenia parkeak duen funtzionaltasunagatik eta diseinuagatik ez ezik, gizartean eta hezkuntzan duen eraginagatik ere.

## Eredugarri izaten

Aretxabaleta Lanbide Heziketa Eskolako aspaldi dihardu ekimen solidarioetan parte hartzen, eta horrela jarraitu nahi du aurrerantzean ere. Lan eredugarri horretan ikusten denez, gainera, proiektuak aukeratzeko orduan kontuan izaten ditu ziklo ezberdinak uztartzea eta elkarlana sustatzea, eta aurrera begirakoak ere bide beretik egin nahi ditu.



Ikasleak lanean. ARETXABALETAKO LANBIDE HEZIKETA ESKOLA



Kalistenia parkea muntatzen. ARETXABALETAKO LANBIDE HEZIKETA ESKOLA



**erein. eraiki. hazi!**

688 81 14 89  
ale-aretxabaleta.eus

**OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA**



- Elementu metalikoen fabrikazioa

**ERDI MAILAKO ZIKLOAK**



- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Ibilgailuen elektromekanika
- Menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta
- Karrozeria
- Mekanizatua
- Soldadura eta galdaragintza

**GOI MAILAKO ZIKLOAK**



- Automozioa
- Eraikuntza metalikoak

# Gazteak teknologiarara eta zientziara hurbil daitezzen

Zapatuan, otsailak 22, First Lego Leagueren Euskadiko finalak jokatu dira; tartean, Arrasaten. Lehiaketak inoizko parte-hartze handiena izango du, eta gazteek itsas azpiko bizitza aztertu eta irtenbide berritzaileak proposatu dituzte

**Sara Lanz Azpiazu** ARRASATE

First Lego League Euskadi erreferente bihurtu da gazteen bokazio zientifiko-teknologikoak bultzatzeko orduan. Otsailaren 22an jokatu diren finalek inoizko parte-hartze handiena izango dute hamaseigarren aldi honetan, eta gazteek itsas azpiko bizitzaren inguruan hausnartu, ikertu eta irtenbide berritzaileak proposatu dituzte. Mondragon Unibertsitateak, Mondragon Korporazioak eta Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak antolatutako ekitaldi horrek 2.800 ikasle eta 170 talde bilduko ditu, lau egoitzatan: Donostian, Bilbon, Gasteizen eta Arrasaten.

Arrasateko finala Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren Iturripeko Campusean jokatu da. Bertan, 40 talde, 308 gazte eta 132 boluntario bilduko dira. Aurten, gainera, nesken parte-hartzea inoizko handiena izango da –parte-hartzaileen %48 neska dira–, zientzia eta teknologia arloetako bokazioak sustatzeko ahaleginaren erakusgarri.

Nekane Errastik, First Lego League Euskadi Mondragoneko arduradunak, azpimarratu duenez, "ekimen horrek gazteei aukera ematen die ezagutza teknologikoa garatzeko eta bokazio berriak aztertu ahal izateko". Horrekin batera, etorkizuneko profesionalen atea zabaltzea dela helburu nagusia azpimarratu du Errastik.

## Itsas azpiko bizitza

Torneoa bi kategoria nagusitan banatzen da: *Explore* (6-9 urte) eta *Challenge* (10-16 urte). *Challenge* kategoriarik dagokionez, gazteek berrikuntza-proiektu bat garatu eta aurkeztu behar dute, eta Lego piezekin eraikitako robotak hainbat misiotan probatu behar dituzte. Aurten, esan bezala, parte-hartzaileek itsas az-



2024ko First Lego Leagueko finala. MU

## "LEHIAKETA BAINO GEHIAGO, JAIALDIA DA, NON ELKARLANA ETA DIBERTSIOA SUSTATZEN DIREN"

piko bizitzaren inguruan hausnartu, ikertu eta irtenbide berritzaileak proposatu beharko dituzte. Txikienez, ordea, maketa bat eraikitzen dute *Lego* eredu motordun batekin, eta poster bat diseinatzeko dute, urte bakoitzeko erronkari emandako soluzio berritzaile bat azaltzen duena.

## Elkarlana eta dibertsioa

Boluntarioen lanak ere ezinbesteko garrantzia du ekimen horretan. Aitor Izagirrek, First Lego Leagueko boluntarioak, gertutik bizi izan du ekimena, eta argi du torneoaren balioa: "Lehiaketa baino gehiago, jaialdia da, non elkarlana eta dibertsioa sustatzen diren. Gazteek,



Elkarrizketa entzuteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

ezagutza teknologikoa lantzeaz gain, talde-lana, sormena, arazoaren konponbidea eta halako gaitasunak garatzen dituzte".

## Arrakastatsua

Hamasei urteko ibilbidean, First Lego Leaguek parte-hartzean gorakada nabarmena izan du. Aurten, guztira, 2.800 ikasle eta 170 taldek parte hartuko dute Euskadiko lau finaletan. Arrasateko egoitza da erreferentziarako gunea, eta 700-800 lagun inguru espero dira.

Mondragon Unibertsitateak, Mondragon Korporazioak eta Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak antolatzen dute ekitaldia, hainbat enpresaren babesarekin. Errasti pozik dago ekimenaren garapenarekin: "Arrasate mapan jartzeko aukera paregabea da. Ilusioa pizten duen ekimena da, eta gero eta babes handiagoa lortzen ari da".

First Lego League Euskadik frogatu du zientziaren eta teknologiaren sustapenean ekimen eraginkorra izan dela, eta etorkizuneko profesionalen prestakuntzan laguntzen jarraitzeko asmoa du; horrekiko konpromiso handia erakutsi du.



Ganzarain, Etxeberria, Artola, Egibar eta Rodriguez aurkezpen-ekitaldian. JULEN MURUA

## Ikerlanek eta Laboral Kutxak INNKIA sortu eta aurkeztu dute

Enpresei bideratua, adimen artifizialaren arloko 'start-up' bat da, "eraginkortasunean eta errentagarritasunean" eragiteko

**Larraitz Zeberio Lekuona** ARRASATE

Ikerlanek eta Laboral Kutxak atzo aurkeztu zuten INNKIA, Mondragon Taldearen eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin sortu duten *start-up* berria. Aurkezpen ekitaldian izan ziren Ikerlaneko zuzendari nagusi Jon Etxeberria, Laboral Kutxako zuzendari nagusi Xabier Egibar, INNKIAko zuzendari nagusi Gorka Artola, Mondragon Taldeko presidentea Pello Rodriguez eta Eusko Jaurlaritzako Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburorde Jaione Ganzarain.

INNKIA enpresetara adimen artifizialeko soluzio berritzaileak eramateko tresna dela azaldu dute. Lau urtean sei milioi euroko inbertsioa izango duela, eta 2030ean 50 langileko lantaldea eta urtean hamar milioi euroko fakturazioa izatea aurreikusten dutela ere azaldu zuten aurkezpenean.

Ikerlanek *start-up* berriaren oinarri den teknologia jarriko du, eta Laboral Kutxak adimen artifizialaren teknologiak ezarriko ditu. Mondragon Taldearen zein Eusko Jaurlaritzaren finantza-laguntza izango du proiektuak.



S.L.

## Urtarrileko greben jarraipena

Hezkuntza publikoko greba zikloaren bigarren txanda hasteko, EAEko hiri zein herrietan elkarretaratzak egin dituzte, LAB, Steilas, ELA eta CCOO sindikatuek deituta. Arrasaten, esaterako, hezkuntza publikoko langileek lan-baldintzak hobetzearen aldeko agerraldia egin zuten, martitzenean, Seber Altube plazan.



ZABALIK

AGURNE JULDAIN

## Parte-hartzea, galdeketa...

Hilabeteak daramatzagu Mugikortasun Plan berria lantzen Udalean. Hilabete luzeak kaleen norabideak, bidegorri sarea, TAO sistema, garraio zerbitzua... nori lehenasuna eman, nola antolatu... Ez da lan erraza izaten ari.

Udalean zinegotzi izan bitartean, zaila da imajinatzea herrian izan dezakegun ardura eta eragina nolako den. Lantalde baten erabakiek egundoko garrantzia dute hurrengo urteetarako, eta mugikortasunari dagokion aldean ardatz asko dira landu beharrekoak. Hurrengo urteetan Arrasatek izango duen mugitzeko plana da bertan lantzen gabiltzana. Auzo batetik beste batera edota norberaren etxetik ospitalerainoko bidea nola egin beharko dugun plan honetan finkatuko da. Azterketa sakona behar duen lana da. Ez da txantxa kale baten, auzo baten, herri baten... nola mugitu behar dugun antolaketa burutzea, eta

### EMATEN DU 2023AN 'INPOSIZIOA' KONTZEPTUA BERRESKURATU ZUELA UDALAK

guztioi eragiten digun lana da; haur, gazte nahiz helduoi. Guztiok erabaki behar dugun erronka da hau.

Aurreko bi legealdietan EAJ izan da Udal Gobernuan, eta zortzi urte luzetan

oposizioaren aldetik "parte-hartzea" eta "galdeketa" izan dira behin eta berriz entzun ditugun eskaerak. Herritarrei galdetu, herritarrekin erabaki, herritarrei entzun... Eta horretan ibili gara, parte-hartze prozesu ezberdinak aurrera eramanez; Grupo San Juaneko prozesua, kasu.

Hirigintza Aholku Kontseilua sortuta dago, hirigintzako gaiak lantzeko, eta behin eta berriz eskatu dugu bertan Mugikortasun Planeko zenbait gai aztertzea. Azken eskaera Mugikortasun Planak jasotako alegazioak bertan eztabaidatzea izan da.

Baina badirudi 2023an parte-hartzea eta galdeketa kontzeptuek esanahia aldatu zutela, Udal Gobernuaren kolorea aldatu zen bezala. Ematen du 2023an inposizioa kontzeptua berreskuratu zuela Arrasateko Udalak, eta oraindik ez garena konturatu, edo bai?

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### (Auto)defentsa

MAIDER GALARDI F. AGIRRE

'BERRIA'-N ARGITARATUA  
[HTTPS://LABUR.EUS/SB905](https://labur.eus/sb905)

Espero gabeko zerbait gertatu zen joan den ostiralean, eta ez zen izan bereziki oharkabeen pasatu zen egun bat. Sorpresarik egon ez zedin, aspalditik nuen planeatuta orduz orduko eskema, eta urduritasunak gorabehera, ia aurreikusitako bezala irten zen guztia. Dena kontrolatua nuen, negarra noiz egin nezakeen ere bai, oso negar egitekoa bainaiz, baina ongi baitakit zaugarritasunari publikoan mugak jartzen. Esan berri didate eneagramako 3. tipoa naizela,

eta hiruei asko inporta zaie irudi sozial eta publiko arrakastatsu bat ematea. Berean onenak direla uste dute, baina egiaz nahikonuke batzuk dira, gara. Ez zait 3a gustatzen, nahiago nuke 7a, baina hori ez omen da hautatzen, eta hor nengoen ni, *tope hiru*, tesia aurkezten ohoratzen ninduen aretoaren aurrean, defentsarako -hau da, ez bakarrik tribunalarentzako, baizik eta eserita zeuden lagun, kide, senide, elkarrizketatu eta etorriko diren kritiko eta kazetarien defentsarako-prest.

Halaxe egin nuen lehen zatia, kanpora botatzen nuen hitz bakoitzeko, barrua

harrotasunez are gehiago puztuta. Amaitu zen aurkezpena, tribunalak eman zizkidan bere erantzunak, eta hamar minutuko deskantsua eskatu nuen zeremoniak aurrera egin eta nik galderei erantzun aurretik hankak luzatu genitza. Irten nintzen kanpora eta "zorionak-zorionak", eta "eskerrik asko, baina ez da bukatu...", eta batek esan zidan: "Literatur txokoko whatsappera bidali dut Maialen Akizuren zutabea, aizu ze polita!". Nola? Zer? Hau bai ez nuela espero. Oraindik beste hiru ordu laurden bagenituen hor barruan eta nik jada burua BERRIAko zutabe hartan nuen. [...]

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Argitaratzailea**  
 Goiena Komunikazio Taldea  
 Kooperatiba Elkarte  
 Otalora Lizentziaduna 31  
 20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
 Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
 Iban Arantxabal.  
**Eduki zuzendaria**  
 Eneko Azkarate.  
**Erredakzio batzordea**  
 Eneko Azkarate, Goiatz Arana,  
 Monika Belastegi, Mirari Altube,  
 Larraitz Zeberio.

**Zuzendari komertziala**  
 Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
 Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
 Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
 Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
 Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
 Xabier Urzelai (Kirola),  
 Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
 Imanol Soriano,  
 Aitor Lagoma,  
 Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitatea**  
 Mireia Larrañaga, Naroa Inza,  
 Olatz Alberdi, Amaia Mundifiano.

**Administrazioa**  
 Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
 Leire Etxebarria.

**HARPIDETZA**  
 Arrasate 20500  
 Otalora Lizentziaduna 31  
 Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
 Arrasate 20500  
 Otalora Lizentziaduna 31  
 Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)  
**EGOITZA NAGUSIA**  
 Arrasate 20500  
 Otalora Lizentziaduna 31  
 132 posta-kutxa  
 Tel.: 943 25 05 05  
 Telegram eta WhatsApp:  
 688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 18.550 ale

**Inprimategia:**  
 Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Arexabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## HANDIK HONA

**Jone Arruabarrena** ARRASATE  
Duela bederatzi urte iritsi zen Olga Lucia Restrepo (Kolonbia, Medellin, 1969) Arrasatera. Hasieran, guztia egin zitzaion arrotz; urari ere ez zion ur zaporerik hartzen. Urteekin, ordea, Euskal Herriko bizimodura ohitzen joan da: "Kolonbiara bueltatzen naizenean, amak esaten dit europartu egin naizela".

**Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroko Kolonbia?**

Indarkeria handiko herrialdea da, baina denetarik dago. Nire familia oso maitekorra izan da beti, eta lotura estua izan dugu gure artean. Bi anaia eta bi ahizpa dauzkatzat. Oso zoriontsu izan ginen, aita hil zen arte. Orduan, amak ezin gintuen guztiok aurrera atera, eta 13 urterekin lanean hasi nintzen, familia aberats batzuen etxea garbitzen, eta ikasketak utzi nituen. Kaleko indarkeria nabarmen hazi zen garai hartan, eta nire neba txikiena ere hil zen.

**Zuk zeuk ere bi alaba izan zenituen geroago.**

Bai. Umea nintzanean ezagutu nuen gerora nire mutil-laguna izango zena, eta oso gazteak ginenean hasi ginen batera. Geroago, haurdun geratu nintzen, eta nire lehenengo alaba jaio zen. Bigarren alabarekin sei hilabeteko haurdun nengoenean, ordea, bikotekidea hil zen, eta bakarrik jarraitu behar izan nuen. Bi lan lortu nituen, eta nire bi alabak aurrera ateratzea lortu nuen.

**Nola sortu zitzaizun Arrasatera etortzeko aukera?**

Urteak pasatu ziren, eta alaba nagusiak umea izan zuen. Haren bikotekidea Arrasatera etorri zen bizitzera, eta, azkenean, hura ere hona etorri zen, alabarekin. Ni Kolonbian ondo nengoen; nire beste alabak ere umea izan zuen, eta oso pozik nengoen hango bizitzarekin. Hala ere, Arrasaten bizi zenak, alaba nagusiak, beti galdetzen zidan ea noiz etorriko nintzen hona.

**Eta horrela etorri zinen?**

Azkenean, konbentzitu egin ninduen hona bisitan etortzeko, ez bainuen oraindik nire bigarren iloba ezagutzen.

# "Hemengo bizi-erritmoak asko harritu ninduen"

**OLGA LUCIA RESTREPO ARBELAITZ KOLONBIATIK ETORRITAKO ARRASATEARRA**

Olga Lucia Restrepo, Arrasaten. JONE ARRUABARRENA

Bi hilabeterako etorri nintzen. Hemen nengoela, alaba berriro hasi zitzaidan hemen gera nedin konbentzitzen. Eta konbentzitu egin ninduen. Handik gutxira, nire alaba gaztea ere hona etorri zen, eta beste alaba bat ere izan zuen. Orain, hirurak Arrasaten bizi gara, haien alabekin.

**Nolakoak izan ziren hemen eman zenituen lehenengo egunak?**

Hona iritsi nintzanean, janariaren zaporea ez zitzaidan gustatzen; oso ezberdina zen. Iruditzen

zitzaidan hemengo urak ere beste zapora bat zuela. Bizi-erritmoak ere asko harritu ninduen. Ikusten nuen hemen jendea arrapaladan bizi zela, alde batetik bestera, beti presaka. Isiltasuna da beste gauza ezberdin bat. Ni orain Arrasaten bizi naiz, eta etxean ez dut ezer entzuten. Kolonbian, aldiz, beti zegoen norbait bozgorailu batekin musika entzuten; kalean zein etxean musika entzuten zen.

**Lana azkar lortu zenuen?**

Hona heldu eta hilabetera, adineko emakume bat zaintzeko eskaintza egin zidaten. Gero, soziosanitario ikasketak egin nituen, zahar etxe batean lanean egon nintzen, eta, azkenean, garbitzaile lana aurkitu nuen. Hala ere, hasieran ez neukan paperik, eta lan batzuetan horretaz aprobetxatu ziren. Baldintza batzuk ezartzen zizkidaten, baina ahoz, ezer sinatu gabe. Eta geroz eta eginkizun gehiago jartzen zizkidaten, baina, inon idatzita ez zegoenez, ezin nintzen kezatu.

**Erraz lortu zenuen zure egoera erregularizatzea?**

Zaila izan zen. Hemen legez kontrakoa nintzela sentitzen nuen; neure buruarekin txarto sentitzen nintzen. Etxe hartan barneko langile lanean hasi nintzanean, bertan erroldatu nintzen. Baina ez dauka zentzurik: etorkin batek paperak lortu ditzan, Gobernuak eskatzen dio hiru urtez erroldatuta egotea eta lan-kontratua izatea. Baina lan kontratua izateko, paperak izan behar dituzu. Nik ez nuen ulertzen, eta oraindik ere ez dut ulertzen.

**"HEMENGO JENDE ASKOK EZ DU ATSEGIN MIGRATZAILEAK ETORTZEA, BAINA ULERTZEN DITUT"****"HEMEN LEGEZ KONTRAKOA NINTZELA SENTITZEN NUEN; TXARTO SENTITZEN NINTZEN"****Kosta zaizu hemengo herritarrengana ohitzea?**

Hasieran, asko kostatzen da haiengana iristea. Badakit hemengo jende askok ez duela atsegin etorkinak etortzea, baina, moduren batean, ulertzen ditut. Ni Kolonbian bizi nintzanean ere Venezuelako jende asko etorri zen Kolonbiara bizitzera, eta niri ez zitzaidan gustatu.

**Arrazakeria sentitu izan duzu?**

Bai. Orain, nire ilobekin, adibidez, eskolara joaten garenean irakasleekin hitz egitera, ematen diguten tratua ezberdina da. Eta iruditzen zait umeekin ere badagoela ezberdintasun hori. Bizimodu eta kultura ezberdin batera ohituta daude.

**Euskaldunak kanpokoekin itxiak, baina baita zintzoak ere**

Gertutasuna igartzen du faltan Restrepok euskaldunengandik: "Kolonbian besarkada eta musu asko ematen ditugu, eta hemen jendeak ez du horrenbesteko gertutasunik". Uste du euskaldunak "itxiak" direla batzuetan, baina ulertzen duela dio: "Zuen artean itxiak zarete, baina egia da gu gutarrek denok garela pixka bat itxiak; hori leku guztietan gertatzen da". Hala ere, alde positiboa ere ikusten dio euskaldunen izaerari: "Oso pertsona zintzoak eta prestuak aurkitu ditut hemen. Badituzten hemen jaiotako lagunak, eta badakit baldintzarik gabe nire lagunak izango direla. Askok baloratzen naute, baita nik eurak ere". Aisialdian ere igarri ditu ezberdintasunak hark: "Han egun asko irauten dute festek, eta asko edaten eta jaten da. Hemen ere ederki jaten da, baina edan ez horrenbeste, eta lasaiagoak izan ohi dira jaiak".

# Azpiegitura berdeak indartzeko esku-hartzeak

Foru Aldundiak eta Naturklimak martxan jarritako Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtsak hamabi esku-hartze finantzatu ditu Arrasaten, 7.995 euroko inbertsioa egin da; hiru interbentzio mota egin dituzte. Atzo, eguena, eman zuten horien berri

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Arrasateko azpiegitura berdearen baitako proiektu bat aurkeztu dute Monterronen. "Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtsaren bidez, lankidetzara publiko-pribatua sustatzen dugu. Hau da, Gipuzkoako enpresek ekarpen ekonomiko batzuk egiten dizkigute eta, halaber, udalek euren ingurumen proiektuak aurkezten dizkigute", azaldu du Xabier Estebanek, Naturklimak zuzendariak.

Hala, hamabi esku-hartze egin dituzte herriko hainbat gunetan. "Arrasateko Udalak proposatu zigun herrian dagoen azpiegitura berdearen nolabaiteko konexioa, eta, horren baitan, hamabi esku-hartze txiki egin ditugu. Hala ere, txikiak bezain garrantzitsuak dira, teknika berritzaileak aplikatuta egin baititugu. Uste dugu oso proiektu indartsua dela, herrian bertan kokatutako esku-hartzeak direlako, oso eremu ezagunetan; adibidez, Monterronen", gaineratu du Estebanek. "Zerbitzu ekosistemikoak sustatzeko balio dute, eta, batez ere, arrasatearren bizi-kalitatea hobetzen dute".

## Hiru esku-hartze mota

Herriko hainbat gunetan egin dituzte esku-hartzeak: Monterronen, Gorostizan, Gernika pasealekuan, Musakolako kiroldegiko sarreran, Zerrajerako parkean eta abar.

Halaber, hiru esku-hartze mota egin dituzte. Batetik, baso jasangarriak egin dituzte, fruta-arbolak eta zuhaixkak landatuz elikagaiak sortzeko diseinatutako espazioak. "Fruitu jangarriak emateaz gain, eremu horiek zuhaixka-estaldura sustatzen dute, hiri-hondakinak murrizten laguntzen dute eta hainbat hegazti-espezierentzako babeslekua eskaintzen dute".

Bestetik, Miyawaki basoak ezarri dituzte: "Hainbat gunetan



Udal ordezkariak, Aldundiko, Naturklimak eta enpresetako ordezkariak. E.A.B.

## BASO JASANGARRIAK, BELARDI FLORIDOAK ETA MIYAWAKI BASOAK JARRI DITUZTE ERDIGUNEAN

landatutako baso trinko eta askotariko horiek funtsezkoak dira karbonoa harrapatzeko eta airearen kalitatea hobetzeko".

Azkenik, polinizatzaileentzako belardi floriadoak jarri dituzte, "biodibertsitaterako eta landare-ekoizpenerako funtsezkoak diren intsektu polinizatzaileak erakartzeko espazioak".

## Halako ekimenak, funtsezkoak

Kepa Urteaga Arrasateko alkatordeak nabarmendu du halako ekimenak "funtsezkoak" direla klima aldaketari aurre egiteko. "Dirulaguntza deialdia iritsi zenean, aurkeztu egin ginen. Oso argi daukagu halako ekimenak ezinbestekoak direla gure azpiegiturak berri eta herriari kolore berdea emateko".

Orain arte, hamarkadatan, "asfaltoaren hirigintza" erabili izan dela azpimarratu du Urtea-

gak, eta hori aldatzea "ezinbestekoa" dela. "Izan ere, Naturklimak ikerketa batek dio Arrasate, klima aldaketaren aspektu negatiboetan, hirugarren dagoen herria dela Gipuzkoan".

Beste ekimen batzuk ere baditu martxan Udalak: "Ari gara azpiegitura berdeen mapa aurrera eramaten, baita Mugikortasun Jasangarrirako Plana garatzen ere. Ekimen guztiek lortuko dute aldaketa erreal bat gauzatzea, eta horrek guztiak lagundu behar digu aurrerapausoak ematen beste arlo guztietan".

## Elkarlanari balioa eman diote

Jose Ignacio Asensiok, Aldundiko Jasangarriritasun diputatu eta Naturklimak presidentea, eragileen arteko elkarlanari eman dio balioa. "Klima aldaketaren aldeko borrokan, halako ekimenak beharrezkoak dira babesleku klimatikoak sortzeko, eta elkarlana nabarmenduko nuke". Era berean, Arrasateko proiektua ere goraipatu du: "Herriarren bizi-kalitatea hobetzea dagokigu, eta, etorkizunera begira, halako ekimenak geroz eta gehiago behar ditugu. Arrasaten egindakoa oso adibide ona da".

## Eskaintza "ezin hobeak", gaur eta bihar, Merkemerkaun

Ibai-arteko 22 establezimenduk udazken eta neguko denboraldiko hainbat produktu aterako dituzte kalera

### E.A.B. ARRASATE

Gaur eta bihar, udazken eta neguko denboraldiko produktuak kalera aterako dituzte Ibai-arteko 22 establezimenduk. "Askotariko saltokiak gure denden aurrean kokatuko gara produktuak prezio ezin hobeetan eskaintzeko: moda, lentzeria, osagarriak, oinetakoak eta gehiago".

Eskaintzez gain, Merkemerkaun erosteak saria izan dezakeela azaldu du Ibai-artek: "Otsailaren 20an, 21ean eta 22an Arrasateko edozein dendatan erosketak egiten dituzten

bezero guztien artean 400 euro zozketatuko ditugu, sei saritan. 100 euroko bi sari eta 50 euroko lau sari egongo dira", nabarmendu dute. "Parte hartzeko, bidali zure erosketa-tiketak Ibai-arteren 688 73 41 49 Whatsapp-zenbakira". Zozketa otsailaren 26an egingo dute, eguaztenean, eta irabazleekin harremanetan jarriko dira sariak banatzeko.

Bestalde, bihar, zapatua, Arrasateko kaleak musikaz beteko ditu Sutan txarangak, 12.00etatik 14.00etara.

## GORA ETA BEHERA



## "Erakusleihen ekimena oso polita irudit zait"

Hauxe dio Sylvie Schiettekatte herritarrek: "Oso polita iruditu zait erakusleihen batzuetan aurkezpen edota muntaia bat ikustea, zientzia arloan ari diren Emakume eta Nesken Nazioarteko Eguna azpimarratzen. Ulertu dudanez, lehiaketa bat egon zen. Txaloak merezi ditu".

### EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



## Sexualitateari buruzko hitzaldiak egongo dira martxoan

Arrasateko Udal Sexologia Zerbitzuak gurasoei eta hezitzaileei zuzendutako sexualitateari buruzko hiru hitzaldi prestatu ditu martxorako. Hitzaldiak 17:30etik 19:00etara izango dira, Kulturatego Loramendi gelan, eta Miren Lopez de Arregi sexologoak emango ditu. Lehena martxoaren 3an izango da, astelehena, *Gure seme-alaben sexualitateari arreta*

ematen izenpean egingo dutena. Martxoaren 17an egingo dute bigarrena: *Pornografia eta hezkuntza: Arazo global baterako gerturatze integrala*. Azkena, *Errespetutik haziz: Identitate sexuala eta familia* hitzaldia, martxoaren 31n egingo dute.

Doako saioak izango diren arren, parte hartzeko izena eman behar da, BAZera deituta (943 25 20 00) edo *izenemateak.arrasate.eus*-en. Horiez gain, gurasoentzako bi tailerretan lekua dago oraindik (Ikus *Goiena.eus*).





Komunitate islamiarra iazko apirilean ramadanaren bukaera ospatzen, Aldai parkean. ANNUR DEBAGOIENA

# Annur elkarteak: egoitza handiagora lekualdaketa

Annur Debagoieneko Islamiar Komunitateak Uribarri auzoan du meskita, baina "txiki" geratu zaie. Horregatik erosi dute egungo egoitzaren azpiko kalean dagoen Ostarku diskoteka izandako lokala. Topaleku berria urtebetean erabilgarri egotea espero dute

**Hasier Larrea Herrero** ARRASATE  
Bailaran bizi diren musulmanek 2013an sortu zuten Annur –arabiarrez *argia* esan nahi du– elkarteak, zazpi lagun artean, eta gaur egun 80 bazkidez osatuta dago, marokoar, aljeriar, mauritaniar eta pakistandar jatorrikoak gehienak. Komunitateko lehendakariak, Hamid Benhamouk, azaldu du nolako bilakaera izan duten: "Hasieran, errentan hartu genuen meskita funtzioak betetzeko lokal bat, eta 2017an Uribururu kalean erosi genuen beste bat. Izan ere, 2014 inguruan nabarmen ugartu zen Debagoienara bizitzera etorritako musulmanen kopurua, eta, hortaz, bazkide kopuruak ere gora egin zuen". Horri lotuta, gehitu du Bergaran ere badagoela beste meskita bat, Al Badr –*ilargi beta*– izenekoa.

Arrasateko meskitak 134 metro karratu dauzka, eta, egoitza erlijiosoaz izateaz gain, askotariko ekitaldiak egiteko erabiltzen dute. "Egunerokotasunean otoitz

egiteko gunea da, baina jaioberriei ongietorria egiteko eta ezkontzak ospatzeko topalekua ere bada, eskura dugun espaziorik handiena delako. Pentsa, ia 100 lagun batzen gara halako zeremonietan", azaldu du lehendakariak. Asteburuetan, gainera, seme-alabei arabiar hizkuntza erakusteko ere baliatzen dute, "garrantzitsua transmisioaren aldetik, jatorrizko herrialdean dauden aitona-amonak bisitatzea joaten direnerako".

Behar horiek "justu samar" asetzen dituztela ikusita, Uribarri kaleko Ostarku diskoteka erostean aldeko apustua egin dute berriki. Momentuz, gai horri buruz zuhurtziaz dihardu Benhamouk: "Izan ere, paperak

**MUSULMANEK BI MESKITA DITUZTE DEBAGOIENEAN: BATA ARRASATEN ETA BESTEA BERGANAN**

sinatu besterik ez dugu egin; orain, espazioa egokitzeko plana diseinatuko dugu, eta gero etorriko dira obrak. Ea urtebeteko epean lekualdatu gaitzkeen". Eraikina bi pisukoa da, baina, "printzipioz", behekoan egingo dituzte egokitzapenak, 340 metro karratu nahikoa izango direlakoan. Hala, emakumeek otoitz egiteko "gela handiagoa" ere izango luketela gaineratu du.

## Elkarbizitza ona

Annur elkarteak bi ekintza nagusi egiten ditu urtean zehar: bata, ramadanaren bukaerako festa, eta bestea, Bildotsaren Eguna. Biak Aldai parkean ospatzen dituzte, Udalarri baimena eskatuta. Herritarrekin harreman ona dutela nabarmendu du lanbidez banatzailea den Benhamouk, eta "gustura eta gizarteratuta" bizi direla: "Elkarteko kideon egoera antzekoa da, familia aurrera ateratzeko lan egiten dugu, eta astia daukagunean joaten gara meskitara".

## Harrera-sareak izan dituzte berbagai, Ekin-ek antolatuta

Gurera iritsi berri diren jatorri askotariko herritarrei egiten zaizkien harrera-egitasmoak aletu dituzte asteen

### H.L.H. ARRASATE

Euskal Herriko harrera-sareei buruzko mahai-ingurua egin zuten joan den asteartean Kulturarteko Loramendi gelan. Ekin Emakumeak Elkarteak 30. urtemugaren harira antolatutako urte osoko egitarauaren hitzorduetako bat izan zen, eta Bergarako familia enbaxadoreen sarean, Ndank Ndank elkartearen, Irungo Harrera Sarean, Txatxilipurdik sortutako Zuaz kulturartekotasun laborategian eta Ekin Emakumeak Elkartearen integratzailea begira egiten dituzten dinamikak azaldu zituzten kolektibo horietako ordezkariak.

### Beharren arabera

Helburu bera lortzeko askotariko moduak egon daitezkeela adierazi zuten hitzartzeetan. Bergararrek, adibidez, iritsi berriei ongietorria adierazteko hizketaldi bat egiten dute kafe

batzen bueltan, eta ibilaldi bat herriko toki esanguratsuenak ezagutzeko.

Irunen, bestalde, "mugimenduan dauden migratzaileei" laguntzen diete. "Irungo mugara iristen diren pertsona migratzaileak noraezean eta poliziaren kontrol arrazistak jasateko arriskuan egoten dira, sarri itzulketak ilegalak pairatzen dituzte eta horiek salatze mekanismorik gabe geratzen dira", azaldu zuen Irungo Harrera Sareko kideak.

Txatxilipurdikoek nerabeetan zentratzen den Zuaz kulturartekotasun proiektuaren inguruan hitz egin zuten. Ekin Emakumeak Elkarteak, berriz, nabarmendu zuten orientazio juridikoa eta soziala ematen dietela jatorri askotariko familiei, herriko baliabideen berri izan dezaten.

Entzuleek itzulpen zerbitzua izan zuten, euskaratik gaztelarara eta arabierara.



Bergara, Irun eta Arrasateko dinamiken mahai-ingurua, Kulturaten. J. ARRUABARRENA

## OHARRAK

### Ludoteka Ibiltaria zapatuan

Bihar, 11:30ean, Musakolako institutuan patioan egingo dute hileko azken saioa. Martxoan Erguinen izango da Txatxilipurdiren ekimena.

### Okendon, Familia Jolasean

Neguko domekero legez, etzi, 17:30etik 19:30era, 0-8 urte arteko haurrek eta familiek elkarrekin jolasteko aukera izango dute.

### Altxa Buruaren hitzaldiak

Datorren astean bi solasaldi egingo dituzte, Kulturaten, 18:00etan. Hilaren 25ean, mugikorraren auzia jorratuko dute; eta 27an, nola eraiki harreman osasuntsua mugikorrarekin.

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Txatxilipurdik, azaldu dutenez, aisialdi hezitzaile euskalduna lantzen du eta "bizitzarako beharrezko diren balio eta gaitasunak" garatzen lagundu, "hala nola euskaltzetasuna, parte-hartzea, autonomia, naturarekin harremana, aniztasuna eta feminismoa". Aurkeztu berri dituzten udaleku itxi zein irekiek ere balio horietatik edaten dute, "egunerokotasunetik irtenda, uda garaian esperientzia berriak bizitzeko eta harreman berriak sortzeko aukera eskainiz".

Zaintza erdigunean jarriz, pertsonen ahalduz, garapen pertsonalean eta tratu onetan oinarritutako udalekuak antolatzen dituztela nabarmendu dute Txatxilipurdiko kideek, "talde harreman zaindu baten bitartez, nahiei eta ametsi ere leku eginez".

#### Kanpaldia eta ibilaldia itxietan

Udaleku itxiak 9 eta 18 urte arteko zuzenduta egongo dira eta hiru eskaintza dituzte: batetik, zortzi eguneko kanpaldia egingo dute, ekainaren 29tik uztailaren 6ra, Garaion Sorgingunean (Ozeta, Araba). Adin tartearan arabera, bi herrixkatan banatuko dituzte. "Elkar zaintza izango da ardatz garrantzitsuetako bat eta udalekuean parte hartuko dugun kideon hitza kontuan izanik adostuko ditugu ekintzak", diote.

Aizkomendi izango da herrixka bat, LHko 4, 5 eta 6. mailetakoentzat; hau da, 2013an, 2014an eta 2015ean jaiotakoentzat. Izen-ematea 350 euro izango da eta 30 plaza egongo dira, gehienez.

Beste herrixka Gebara izango da, DBHko lehen eta bigarren mailetakoentzat -2011n eta 2012an jaiotakoentzat-. Izen-ematea ere 350 euro izango da eta 30 plaza egongo dira, gehienez.

Bestetik, Kosta Ala Kosta udaleku ibiltaria egingo dute uztailaren 6tik 13ra, Arrasaten hasi eta, Gipuzkoako mendiez disfrutatuz, Mutrikuko kostalderaino. "Hor ere zaintza izango da ardatz nagusia, eta naturaz gozatzeko aukera aparta izango da", gaineratu dute. DBHko 3 eta 4. mailetakoentzat eta batxilergoentzat izango da eskaintza; hau da, 2007an, 2008an, 2009an eta 2010ean jaiotakoentzat. Izen-ematea 350 euro izango da eta hoge plaza egongo dira.

# Txatxilipurdiren udalekuak, prest

Udaleku itxietarako zein irekietarako izen-ematea zabalik du Txatxilipurdi Elkarteak: lehenak ekainaren 29tik uztailaren 13ra egingo dituzte eta bigarrenak, ekainaren 30etik uztailaren 18ra; apirilaren 13a izango da bietan izena emateko azken eguna



Txatxilipurdiko hezitzaileak, martitzenean, udaleku irekiak aurkezteko egin zuten ekitaldian. E.A.B.

#### Irekietan, herrian zehar

Udaleku irekiak, aldiz, 2 eta 12 urte arteko haur eta aurrenebeentzako izango dira eta ekainaren 30etik uztailaren 18ra egingo dituzte. "Lagun berriak ezagutzeko, oporraldiari hasiera bikaina emango diogu", diote.

"Arrasateko kale eta naturaguneetan barrena, besteak beste, egun-pasak, mendi bueltak eta ur-jolasak izango dituen eskaintza dibertigarri eta dinamikoa sortuko dugu".

Ohi moduan, ekintzetan taldeak nahastu egingo dituzte, "adinar-tektotasunak eskaintzen duen

aberastasunari balioa emateko asmoz, baita harreman berriak sortzeko ere". Hala, hiru talde osatuko dituzte. Bilin Bolonka taldea 2019 eta 2022. urte artean jaiotakoentzat izango da, Haur Hezkuntzakoentzat, eta 10:00etatik 13:00etara elkartuko dira. Izen-ematea 123 euro izango da.

Bihurrikeixetan taldeari dago-kionez, 2016 eta 2018. urte artean jaiotakoentzat izango da, LHko 1, 2 eta 3. mailetakoentzat. Gozerako edo egun osorako eman ahal da izena: lehenari dago-kionez, 10:00etatik 13:00etara izango da, eta izen-ematea, 146 euro; bigarrenean, berriz, 10:00eta-

**ITXIETAN, GARAION SORGINGUNEAN BI HERRIXKA IZANGO DITUZTE; MUTRIKURA ERE JOANGO DIRA**

13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara egingo dituzte ekintzak, eta izen-ematea 169 euro izango da. Hala ere, egun osoko taldea sortzeko gutxienez hamar haur beharko dituzte.

Azkenik, Erokeixetan taldea 2013 eta 2015. urte artean jaiotakoentzat izango da, LHko 4, 5 eta 6. mailetakoentzat. Astean bi egunez 10:00etatik 17:00etara elkartuko dira eta beste hiru egunetan, 10:00etatik 13:00etara. Izen-ematea 169 euro izango da.

Arrasateko hiru gunetan parte hartu ahal izango dute hurrek: Musakolan, erdigunean eta San Andresen. Horretarako, izena ematean zehaztu beharko dute, apirilaren 13a baino lehen.

#### Izena emateko, hainbat bide

Nabarmentzekoa da goian aipaturiko prezioek hainbat deskontu izango dituztela, baldintza jakin batzuk betez gero. Hala, AEDko bazkide izateagatik eta familia ugaria izateagatik %5eko deskontua aplikatuko da, eta, biak betez gero, %10ekoa. Horrez gain, udaleku irekietan zaintza zerbitzua egongo da, 60 euro gehiago ordainduta -deskontu barik-. "Ordainketa egitean, deskontuak kontuan izanik egin beharko da eta ordainketa gaztearen izenean egin beharko da. Kasu horietan, gainera, agiriak aurkeztu beharko dira", nabarmendu dute. Horrez gain, Arrasateko Udalak dirulaguntzak emango ditu udalekuetarako (Ikus goiko zatidura).

Izena emateko, hainbat bide daude: Txatxilipurdiren webgunean; QR kode baten bidez; Txatxilipurdiren bulegoan, astelehenean, 09:30etik 13:30era eta 15:00etatik 17:00etara -Nafarroa etorbidea 23, lehen solairua- edo telefonoz -943 79 54 46-.

Era berean, informazio-puntuak ere jarriko dituzte, udalekuei buruzko zalantzak argitzeko asmoz, honako egun hauetan: gaur, egubakoitza, Arimazubi plazan, 17:00etatik 18:30era; otsailaren 27an, Kurtzetxiki plazan, 17:00etatik 18:30era; eta otsailaren 28, institutu aurrean, 17:00etatik 18:30era.

**IREKIETAN, BESTEAK BESTE, EGUN-PASAK, MENDI BUELTAK ETA UR-JOLASAK EGINGO DITUZTE ARRASATEN**

## 30.000 euroko dirulaguntza

Udalekuean eta campusetan haurren parte-hartzea sustatzeko, 30.000 euroko laguntza bideratuko du Udalak, iaz baino 10.000 euro gehiago. Familiek bi baldintza bete beharko dituzte dirulaguntza eskuratzeko: batetik, Arrasaten bizitzea; eta, bestetik, urtean gehieneko diru-sarreraren gordinak honako hauek izatea: 21.200 euro bi laguneko bizikidetzaren unitateetan; 27.560 euro hiru laguneko bizikidetzaren unitateetan; eta 31.800 euro lau lagun edo gehiagoko bizikidetzaren unitateetan. Hala, laguntzaren onuradunak izango diren familiek %90eko deskontua izango dute matrikularen ordainketan, gehienez ere 212 euroraino.

Dirulaguntza jaso ahal izateko eskaerak udal webgunean egin daitezke, edota Biztanleen Arreta Zerbitzuan (BAZ).

# "Bizitza aktiboa" izateko deia, 'Orain zu' lelopean

Udalak kanpaina bat abiatu du, herritarrak kirola egitera animatu eta kiroldegian abonatu daitezten; helburua da herritarrak "bizi aktibo batera" batzea, Mikel San Miguel Kirol zinegotziaren esanetan: "Horregatik zuzentzen gataizkie zuzenean haiei"

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE  
Orain zu izeneko kanpaina jarri du martxan Arrasateko Udalak. "Hala, norberaren osasun eta ongizatea lehenetsi, eta kiroldegia eskaintzen dituen laguntza eta baliabideak eskaini nahi ditugu", adierazi du Mikel San Miguel Kirol zinegotziak. Azken batean, "2025 arinago, indartsuago, malguago eta osasuntsuagoa" izatera gonbidatu ditu Udalak herritarrak eta, besteak beste, eskuorriak banatu dituzte etxez etxe, kiroldegia duen eskaintza azaltzeko.

## Abonatuta, hainbat abantaila

Kiroldegiko abonatuak, kirol instalazioak erabiltzeko aukera emateaz gain, hainbat abantaila dituela dio San Miguelek. "Izan ere, bazkide izateagatik, sarbide zuzena izango du herritarrak hainbat zerbitzutarra". Besteak beste, honako hauek dira abantailak: Arrasasoi -hilean behin bazkideei eskaintzen zaien formakuntza edo ekintza-; urteko abonua zozketa -urtero abonua berritzeagatik hamar abonua zozkatzen dituzte-; astean kirol instalazio baten erreserba bat doan; entrenamendu pertsonalerako monitore zerbitzua; kirol ikastaroak merkeago; eta Mugiment kirol txartel birtuala erabiltzeko aukera.

## Lau abonua mota daude

Kiroldegian bazkide egiteko lau abonua mota daude: Plus abonua abonua osoa da, gune lehorra eta gune hezea batzen dituena; hezeko abonua, aldiz, kiroldegiko sauna eta barruko zein kanpoko igerilekuetara sarbidea eskaintzen duena; lehorreko abonua aukera ematen du Musakola, Uarkape eta Iturrieko kiroldegia erabiltzeko -gimnasioak, pista, frontoiak, zelaiak...-; udako abonua, azkenik, udan soilik kanpoko igerilekuak erabiltzeko aukera ematen du. Udal



Mikel San Miguel zinegotzia, Miriam Garcia eta Iñigo Ezkibel teknikariek. A.U.

## Kiroldegia berritzeko lanak, 2028an

Udal Gobernuak 2023a ezker hainbat inbertsio egin ditu kirol arloan: Mojatetik atletismo-pista, argiteria eta zelaia berritu; Uarkapeko frontoia berritu eta ordutegia luzatu eguerdian eta udan; eta Musakolako kiroldegiko sauna, aldagelen zorua eta igerileku txikia berritu, spinning birtuala ezarri eta makina berriak erosi.

Epe motzean, hainbat mugarri ezarri ditu Udal Gobernuak: 2025ean, esaterako, rokodromoa berritu egingo dute, tenis eta padel pistetan mantentze-lanak egingo dituzte, gimnasioko makina berriak erosi dituzte eta Mojatetik segurtasun-sistema hobetu egingo dute. Halaber, urte amaieran hasiko dira Iturripe berritzen. 2026an Musakolako kiroldegi berrirako proiektua idaztea da aurreikuspena, 2028an lanak hasteko.

Gobernuak azaldu duenez, pandemian "beherakada handia" izan zuen bazkide kopuruak: "Baina, apurka, ari gara lehen kopurura gerturatzeko".

## Askotariko deskontuak

Abonua horiek ordaintzen laguntzeko hainbat deskontu eta hoberi jarri ditu Udalak: "Hoberien sistema zailtasun ekonomikoak dituzten herritar eta familiei laguntzeko ezarri dugu, dirua ez dadin oztopo bat izan kirola egiteko". Honako hoberi hauek egongo dira: errentaren

araberako hoberia -gutxieneko soldataren arabera, %75eko hoberia-; gizarte larrialdietarako laguntza eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenentzat, %75eko hoberia; gizarteratze prozesuan daudenentzat edota asilo eskaera egin dutenentzat, %75eko hoberia; %33tik gorako desgaitasun maila onartua dutenentzat, %25eko hoberia; ikasleentzat, %25eko hoberia; guraso bakarreko familientzat, %25eko hoberia; eta 65 urte edo gehiagoko pertsonentzat, %25eko hoberia.



NIRE USTEZ

OIANA SANCHEZ

## Intimitatea

Orain gutxi, arrasatearrok intimitatearen kontrako eraso bortitza jasan izan dugu. Muga bat gainditu dela igarri da, erabat jasangaitza dena.

Denok dugu tarte sekreturen bat. Iluna, etikarik gabekoa edo gizarteak ez onartua izan daitekeena, baina, azken finean, gurea. Inori minik egin gabe. Ate itxi baten atzean, gure buruarekin edo nahi ditugunekin soilik konpartitzen duguna.

Izan ere, zer da intimitatea? Are garrantzitsuagoa dena, inoiz bete al da intimitatea?

Adibidez, sakelakoa gainean eramatean, etengabe mikrofono edota kamera batek grabatzeko aukerapean gaude. Behin eta berriro epaituak gara, manipulatuak gara. Hori nahiko ez balitz, guk geuk gure intimitateak sareetan ere zabaltzen ditugu. Bai, baina geuk erabakitzen dugu zer konpartitu, zer erakusten dugun. Aspaldiko kontua da. Ez al diozu kaleetan gure segurtasuna bermatzeko gailu bati inoiz barretxo bat egin? Ez da batere barregarria. Informazioa kontrola da. Kontrolpean bizi diren bortxatuak gara.

## Boxeo jaialdia egingo dute martxoaren 7an Uarkape frontoian

Soraboxek antolatuta, hamabi borrokaldiz osatutako boxeo jaialdia egingo dute Uarkape frontoian martxoaren 7an. Horietakoa hamar izango dira amateur mailakoak eta bi, aldiz, neoprofesionalekin. Gainera, Aitzol Ovejero eta Manex Bergoa arrasatearrok ariko dira borrokan. 21:30ean hasiko da lehen borrokaldia, eta 21:00etan irekiko dituzte ateak. Aurrez, baina, 19:30ean, pisaketak egingo dituzte Iluntz tabernan.

Sarrerari dagokionez, momentuan bertan, leihatilan, 25 euro balioko du. Edozelan ere, aurrez erosteko aukera ere izango da, Rumba, Taupa, Osorik eta Iluntz tabernetan, 20 eurotan.

## Familia-meza egingo dute etzi eta topaketa, aldiz, martitzenean

Etzi, domeka, eukaristia familiarra ospatuko dute San Juan Bataiatzailearen parrokan, 11:00etan hasita. Horrez gain, otsailaren 25ean, martitzena, errezoarekin lotutako topaketa egingo dute abade-etxean, Pako Etxebeste apaizarekin, bi astean behin egiten duten moduan, 19:00etan hasita. Hurrengo saioa martxoaren 11n izango da.

## Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa bihar

Herriz herriko kanporaketak egiten ari dira, lehenik, eta bihar, zapatua, egingo dute Arrasateko, Irati topalekuan, 17:30ean hasita -izen-ematea 20 euro-. Bihar irabazleak bazkari-bonua eskuratuko du Irati tabernan, baita beso iberikoa eta Iratiko hornitzaileen produktuekin osatutako saskia ere. Bigarren eta hirugarren sailkatuek, halaber, Iratiko hornitzaileen produktuekin osatutako saskia eskuratuko dute. Arrasateko bikote irabazlea Gipuzkoako kanporaketarako sailkatuko da -martxoaren 22an izango da-. Euskal Herriko XVI. Mus Txapelketako finala apirilaren 5ean jokatuko dute, Gopegin (Zigoitia, Araba).

## Liderra hartuko du bihar Mugarri Ingou Arrasatek Iturripen

Gizonezkoen eskubaloian, partidu gogorra dute bihar, zapatua, arrasatearrek. Izan ere, lider dagoen eta bi partidu bakarrik galdu dituen Done Pedro Hondarribia izango dute aurkari, 12:00etan hasita, Iturripen. Ane Herrerok zuzentzen duen taldea hamargarren postuan dago sailkapenean, liga erregularra amaitzeko sei jardunaldiren faltan.



Arrasate Musikaleko piano-jotzaile batzuk. ARRASATE MUSIKAL

# Piano doinuek girotuko dute JAME bihar, zapatua

Gurasoen eta gainontzeko herritarren aurrean joko dute pianoa bailarako eta inguruko herrietako musika eskoletako piano-jotzaileek. 09:00etan hasi eta 14:00ak arte izango da protagonista pianoa JAMEn; hiru zatitan banatuko dute saioa

**Julen Murua Mesonero** ARRASATE  
Pianoa doinuak izango dira nagusi Juan Arzamendi Musika Etxean zapatu goizean; izan ere, 09:00etatik hasi eta 14:00ak bitartean, Piano Topaketa egingo dute. Arrasate Musikaleko ikasleak ez ezik, Eskoriatzako, Aretxabaletako, Bergarako, Oñatiko, Soralezeko eta Legazpiko musika eskoletako piano-jotzaileak ere igoko dira oholtza gainera.

Arrasate Musikalek jakinarazi du sarrera doakoa izango dela, baina, era berean, plazak mugatuak izango direla eta ikasleek eta euren gurasoek izango dutela lehen tasuna. Hala ere, "herritarrei gonbidapena" egin nahi izan die emanaldia ikustera joan daitezten.

## 80 pianista inguru

Zazpi herritatik etorrira, adin eta maila askotariko 80 pertsona inguruk erakutsiko dute pianoaren aurrean duten abiltzia. Piano Topaketa hiru saiotan banatuko da: lehena 09:30ean

hasiko da, bigarren 11:00etan eta hirugarren 12:30ean. Saio bakoitzean maila eta musika eskola ezberdinetako ikasleek hartuko dute parte, eta bi modalitateetan joko dute instrumentua: alde batetik, pianoa bakarka joko dutenak egongo dira, eta, bestetik, pianoa lau eskutara joko dutenak. "Gehienek bakarka joko dute; guztiek, hamabi piano-jotzailek kenduta. Zailtasunari dagokionez, ez dago ezberdintasun handirik, baina badaude modalitate batean edo bestean gusturago ibiltzen diren ikasleak", dio Arrasate Musikaleko zuzendari eta piano irakasle Marta Izagirrek. Interpretatuko dituzten piezak ere ezberdinak izango dira adinaren eta

**ZAZPI HERRITATIK ETORRITAKO 80 PIANO-JOTZAILE INGURU EGONGO DIRA ZAPATUAN JAME-N**

mailaren arabera, baina, besteak beste, euskal kantak, klasikoak, jazz estilokoak eta *Disney*-ko abestiak joko dituztela iragarri dute Arrasate Musikalekoek.

## Harrera ona

Herritarrek "gustura" ikusten duten emanaldia dela dio Izagirrek, eta ikasleak, gainera, "motibatuta" joaten direla onartu du: "Guk, gehienetan, kurtsu bukaeran egiten ditugu emanaldiak, gurasoen aurrean. Modu honetara, gurasoen eta, oro har, herritarren aurrean jotzeko aukera izango dute. Gainera, inguruko herrietako ikasleen lanak entzuteko eta gainontzeko pianistak ezagutzeko ere balioko die".

Izagirrek esan du pianoa "arrakasta" izan duen instrumentu bat dela, eta musikari askok "lehenengo instrumentu bezala ez ezik, bigarren instrumentu bezala ere ikasten dute jotzen. Instrumentu aberasgarria dela esan daiteke".

## 'Zinema berrikusten' saioa, egitarauari hasiera emateko

Ekainera arteko egitarauari ekingo dio Emakume Txokoak bi film laburren emanaldirekin

**J.M.M. ARRASATE**

Emakume Txokoak otsailean hasi eta ekainera arte antolatutako duen egitarauko lehenengo ekimena da *Zinema berrikusten* zinema-saioa; emanaldia Kulturaleko areto nagusian izango da, otsailaren 26an, eguaztena, 18:30ean.

## Aurkezpenak eta solasaldia

Emakume Txokoko arduradunek adierazi dute ekimenen helburua dela "emakume sortzaileei leku bat eskaintzea"; horregatik, Mirentxu Loyarte zinema-zuzendari iruindarraren bi film labur aukeratu dituzte: *Irrintzi* eta *Euskal emakumeak* lanak, hain justu. Eta solasaldia gidatzeko ardura izango du Arantza Santesteban historialariak. Kultur arloko langilea, ikerlaria eta zinemagilea da Santesteban, eta Emakumeen Txokokoek esan

dute "zinemagileen genealogia feminista ariketa bat egin eta Mirentxu Loyarteren lana eza-gutzeko eta berrikusteko aukera" egongo dela zinema-saioan, iruindarraren eskutik. "Luxu a da Santesteban gurean izatea, eta haren begirada, ezagutza eta egin ditzakeen hausnarketak aprobetxatuko ditugu Mirentxu Loyarteren lanera hurbiltzeko, zinemaz aritzeko eta gozatzeko", gaineratu dute.

## Sarrera doakoa

Film laburrak ikusteko eta solasaldira bertaratzeke ez da sarrerarik ordaindu behar. Emakumeen Txokokoek diote "herritarrek ikuspegi feminista batetik hausnartzeko" antolatzen dituztela halako ekimenak, eta, hortaz, "arrasatearrei emanaldira gerturatzeko gonbita" egin diete.

## Micky & The Buzz, otsaileko azken Kooltur kontzertuan

Kooltur Ostegunak ekimeneko otsaileko kontzertuetako azkenak izango du tokia datorren eguean Arrasateko gaztetxean; izan ere, Zarauzko Erasok! rock taldeak atzo jotako kontzertuaren ostean, Micky & The Buzz taldearen txanda izango da otsailaren 27an, 22:00etan hasita, Arrasateko gaztetxean. Sarrerak egunean bertan erosi ahalko

dira, 7 eurotan. Rock estiloko murgiltzen den taldea da eta Carlos Beltran –gitarra-jotzailea–, Pedro Larrauri –kontrabaxu-jotzailea–, Blacky David –bateria-jotzailea– eta Ivan Santa Barbara –saxofoi-jotzailea– bilbotarrek eta Micky Paiano –abeslaria– italiarrak osatzen dute taldea. 2024. urtearen bukaeran argitaratu zuten lau abestiz osatutako lan labur berria, eta Arrasateko gaztetxeke oholtza gainera igoko dira hura defendatzera.

## '55 urte dantzan' erakusketa prestatu du Txikitxu-Arrostaitzek

Martxoaren 7an, egubakoitza, 18:30ean inauguratuko du Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeak *55 urte dantzan* erakusketa. Dantza taldearen 55. eta 35. urteurrenaren bueltako ekitaldien artean laugarren izango da erakusketa, eta martxoaren 27ra arte egongo da ikusgai, Kulturaleko klastroan. "Bertan, 1970etik gaur egunera arteko historia bildu

dugu, argazkien, jantzien, tresna tradizionalen eta bestelako elementuen bidez. Erakusketak taldearen bilakaera eta euskal kulturaren sustapenean egindako lana erakusten du, eta belaunaldiz belaunaldi transmititu den ondarea agerian utzi", adierazi dute dantza taldeko kideek. "Taldearen bilakaera, erronkak eta lorpenak gertutik ikusi ahal izango dituzu. Zatoz eta ospa dezagun elkarrekin!", gaineratu dute, herritarrei erakusketa ikusteko gonbita eginda.


# FORD PUMA GEN-E

## %100 ELEKTRIKOA



Easo Motor

29.900 €\* -tik aurrera



630 636 360

**FORD EASO MOTOR MUGARRI**

San Andres kalea 6 - 20500

Arrasate

\*Moves plana aplikatzeko aukerarekin.



Dagoeneko katalogatuta eta babestuta duten Iturriosteko iturria. AMAIA TXINTXURRETA GURIDI

## Martxan da ondarea babesteko ekimena

Ondare Babesa enpresa kontratatu du Udalak, eta helburua da herriko ondarea identifikatzea eta katalogatzea. Ondare hori izan daiteke baserri bat, iturri bat, zuhaitz bat... Eta horri buruzko informazioa jasotzen duen dokumentu bat bete beharko da

**Amaia Txintxurreta Guridi** ARAMAIO Udalak arkeologia-zerbitzuak eta dokumentuak kudeatzen dituen Ondare Babesa enpresa kontratatu du, Aramaion dagoen ondarea identifikatu eta babesteko helburuarekin. Asier Agirre alkateak adierazi du lan horrekin nahi dutena dela herriaren dauden ondare fisikoak katalogatu ahal izatea, eta ondare hori era askotakoa izan daitekeela: "Katalogatu nahi den ondare hori izan daiteke baserri bat, erromatar garaiko arkuak duena, esate baterako, baina izan daiteke baita ere zuhaitz bat, edo bide bateko harri konkretu bat. Kontzeptu ugari daude".

Baina zelan egin hori 7.300 hektarea dituen herrian? Alkateak zehaztu du "herriko sare bat" sortu nahi dutela eta sare horri pasako diotela dokumentu bat, identifikatu duten ondare horri buruzko informazioa jasotzeko helburuarekin: "Bertan jarri beharko dira lauzpabost

datu: ondare hori dagoen GPS-kopien bat, argazki bat atera beharko da, lekuaren izena zehaztu eta gutxi gorabeherako data bat jarri beharko da. Datorren dokumentazio hori guztiari garrantzia markatzen hasiko da gero lantalde bat, Ondare Babeseko Aitziber Gonzalezen gidaritzapean".

### Katalogatzearen garrantzia

Lanketa hori herritarrekin egin nahi dute. "Zenbat eta herritar gehiago batu honetara, orduan eta emaitza aberatsagoa irten go da", Agirreren esanetan. Eta herriko ondarea ondo katalogatuta izatearen garrantzia azpimarratu du alkateak: "Alde batetik, memoria kolektiboa

### DAGOENKO BABESTUTA DITUZTE HAINBAT ELEMENTU, BAINA HORI OSATZEA DA ASMOA ORAIN

behar dugu; garrantzia eman behar zaie gauzei. Pertsona eta pentsaera guztiak ez dira berdinak, baina gauza batzuk denontzako dira, eta, agian, bateren batek bere lursail partikularrean dagoen zerbait ez dio baliorik ematen baina sekulako balioa izan dezake. Adibide bat jartzearren, badauzkagu zuhaitz batzuk legeak babestuta daudenak, espezie bereziak direlako; eta jabe askok ez dakite, esaterako, hagina bat ezin dela ukitu".

Momentuz, dokumentu batean jasota eta babestuta dituzte herriko hainbat iturri, zubi, bide, errota eta baserri. Adibidez, katalogatuta dute Ipizteko harria – Tellamendi goian dagoen hilarri bat da –, baina beste asko ez daude katalogatuta, eta hori osatzea da oraingo asmoa.

Ondarearen katalogazioa egiten dutenean, Hirigintzako Plan-teamenduari batera eramango dute dokumentazio hori guztia legalizatzen.

## Martxoaren 8ari begira, zaintzailanen aldarrikapenak hizpide

Herritarrek ere batu dira talde feministak eta Iturzuri deitutako bilerara, egunaren nondik norakoak zehazteko

### A.T.G. ARAMAIO

Emakumeen Nazioarteko Eguna izango den Martxoaren 8a antolatzeke bilera deitu zuten Aramaio Feminista Taldeak eta Iturzuri emakume taldeak, eta, talde horietako kideez gain, beste herritar batzuk ere batu ziren bilerara. Guztira, bederatzita lagun inguru elkartuta, eguneko egitaraua landu eta lanak banatuta dituzte.

### Martxoaren 8ko aldarrikapenak

Hausnartu dute ea zer aldarrikatu nahi duten egunaren bueltan, kontuan izanda herri txiki batean bizi diren emakumeak direla, eta gai hauei heldu nahi dietela esan du talde feministako Sonia Etxenausiak: "Alde batetik, zaintza eta bizitzako hainbat fasetan dauzkagun arduen eta beharren inguruan hausnartu nahi dugu; beste alde batetik, emakumeen arteko belaunaldiarteko harremanei buruz ere jardun nahi dugu; horiek sustatu eta indartzearen garrantziaz".

Bi gai horiek irten ziren bileran, eta bai ikusi zuten azaroaren 30eko greba feministan egin ziren dinamikek eta solasek ere



Martxoaren 8ko puxika. GOIENA

jarraipena izango dutela Martxoaren 8an.

### Iturri-poteo feminista

Egitarauaren xehetasunak aurrerago emango dituzte, baina orain dela zazpi urte egin zuten iturri-poteo feminista berreskuratu dute: "Pentsatu dugu herriko emakume eta neska desberdinen ekarpenak entzuteko espazioak sortzea herriko iturri bakoitzean. Ekofeminismotik egiten ari garen lanketari zentzua ematen dio urak berak edo naturak, eta Iturzuri zentzua ematen dio iturrietatik dator".

## Mugikortasunaren inguruko diagnostikoa egiteko, inkesta

Helburua da herritarren mugikortasun ohiturak identifikatzea eta horiek hobetzeko neurriak zehaztea

### A.T.G. ARAMAIO

Debagoiena 2030ekin elkarlanean, Mankomunitate osoan egingo den *Mugikortasun diagnostikoa*-n parte hartuko du Aramaio Udalak. Horren helburua da Aramaio herritarren mugikortasun ohiturak identifikatzea eta horiek hobetzeko neurriak zehaztea; betiere, mugikortasun "eredu jasangarri baten mesedetan". Horregatik, Udalak adierazi du garrantzitsua dela identifikatzea zeintzuk diren gaur egun herritarrek dituzten ohiturak eta euren beharrak.

Herritarrengandik informazio hori jaso nahian, *Herri txikien mugikortasuna* izeneko galde-tegi bat prestatu dute, eta udal webgunean bete dezake edozein herritarrek. Etzi, domeka, izango da galdetegi betetzeko azken eguna, eta herritarrek inkesta hori betetzera animatu ditu Udalak.

Ondoren, eguaztenean, hilak 26, emaitzak jakinarazteko eta herritarren ekarpenak jasotzeko aurrez aurreko saio bat izango da udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 18:00etan.

# Aramaioko taldeak, finalerdiei ekiteko prest

Taldeen aurkezpenak eginda, finalerdiei begira jarrita daude Bertso Kuadrilla Arteko Txapelketako Aramaioko hiru taldeak. Bañera FT. taldea izango da lehena kantatzen. Izena Pentsau Bida 2 eta Aramaixoko Taluek taldeek jarraituko diote, hurrenez hurren

## Gontzal Belategi Zubia ARAMAIO

Arabako Bertso Kuadrilla Arteko Txapelketan izena eman duten hiru taldeek –Bañera FT, Izena Pentsau Bida 2 eta Aramaixoko Taluek– egin dute dagoeneko txapelketaren lehen fasean egin beharreko taldeen aurkezpena. Aramaixoko Taluek taldea izan zen azkena aurkezpena egiten. Aurreko astean egin zuten, Gorbeialdeko Bertso Egunean, Legution. Hango bertso eskolako gazteekin batera egindako bertso saioa izan zen, eta Aramaixoko Taluek taldeko kide Peru Abarrategik aurkezpenaren balorazio positiboa egiten du: "Oso ondo joan zen. Legutioko bertso eskolakoekin batera ofizialki ibili ginen. Ostean, haiek zenbait koplak bota zituzten. Alde horretatik, ez dugu inolako kezaririk".

## Balorazio positiboa

Hiru aurkezpenak aztertuta, saio bakoitzak bere ezaugarri propioak izan dituela azaldu du Izena Pentsau Bida 2 taldeko kide Manex Agirrek: "Bata Santa Ageda batzearen barruan izan zen. Bañera FT taldeko kideek koplata egin zuten bertan. Gure taldeak herriko haurrekin batera egin zuen aurkezpena, Sastiñan. Oso ondo joan zen. Jolasen bidez aurkeztu genuen taldea, denok batera ondo pasatzeko asmoarekin. Hirugarren taldeak berdina egin zuen, baina Legutioko ikasleekin, eskualdeko beste bertso eskola batekin kolaboratzeko asmoz".

Orain arteko lanaren balorazio positiboa egin du Agirrek: "Oso ondo joan da dena. Taldeen aurkezpena egiteko balio izan digu, jendeak nortzuk garen ikusi ahal dezan".

## Finalerdiei begira

Finalerdiei begira jarrita daude dagoeneko Aramaioko hiru taldeak. Bañera FT taldea izango



Izena Pentsau Bida 2 taldearen aurkezpena. GOIENA

## AURKEZPEN GUZTIAK EGINDA, FINALERDIEI BEGIRA JARRI DIRA ARAMAIOKO HIRU BERTSO TALDEAK

da lehena kantatzen; otsailaren 28an kantatuko dute, Narbaxan, 4 Gara (Lautada) eta Ganbarakoak (Añana) kuadrillekin batera. Izena Pentsau Bida 2 taldea izango da hurrengo kantatzen; martxoaren 9an izango da haien txanda, eta Aramaion bertan kantatuko dute, Txandrio (Arabako Errioxa), Inkostantinkoplan Potoz Poto (Gasteiz) eta Pintto Pintto (Gasteiz) kuadrillekin batera. Finalerdiei amaiera emateko, Aramaixoko Taluek taldeak martxoaren 23an kantatuko du, Gillernan. Haiekin batera, Gorringo (Gasteiz), Errexala (Gasteiz) eta Arlobiko Bardoak (Urkabustaiz-zuia, Gorbeialdea) izango dira kantuan.

## Helburu kolektiboak

Arabako Bertso Kuadrilla Arteko Txapelketa ez da ohiko txapelketa bat. Arabako bertso-

laritzaren sarea zabaltzeko helburuarekin antolatzen da, eta finalerdietarako dituzten helburuak filosofia horri lotuta daudela azaldu du Abarrategik: "Helburuetako bat bertsolari gazteei plazak ematea da, eta banakako txapelketatik kanpo dabilzan bertsolariarekin plazak elkarbanatzea. Eta gai-jartzaile eta epaile taldeak sendotu nahi ditugu. Orokorrean, horrelako helburuak ditu kuadrilla artekoak, eta guk ere ez dugu horiek baino askoz gehiago. Ez dugu helburu indibidualik".

Finalerdiei orain arteko helburu bera jartzen die Agirrek: "Formatu bereziko saioak dira, otordu baten bueltan egiten direnak. Helburuak orain artekoak dira: bertsoan egin, ondo pasatu, taldekoekin disfrutatu eta ikusleei disfrutazazi. Hori da kuadrilla artekoaren espiritua, eta hemendik aurrera ere hori izango da". Hala ere, Aramaioko talderen bat finalera iristea pozgarria litzatekeela aitortu du Abarrategik: "Saio txukuna egin eta Aramaioko talderen batekin finalera heltzeko aukerarik badu, hori ere pozgarria izango da".

## Herriko memoria historikoa lantzeko lehen bilera egin dute

Eguaztenean egin zuten lehen bilera, udaletxean. Lanean hasteko prest dira partaideak

## G.B.Z. ARAMAIO

Eguaztenean udaletxean egin zuten lehenengoz herriko memoria historikoa jasoko duen liburua prestatzeko bilera. Sei pertsona inguru elkartu ziren, eta Julen Arriolabengoa pozik dago bilerak emandakoarekin: "Bilera ondo joan da, giro onean, eta probetxugarria izan da".

Herriko historia jasoko duten liburuen beharra azpimarratu du Arriolabengoa: "Ez dago Aramaioko historia jasotzen duen libururik. Badira monografia batzuk eta Elejalde apai-

zaren lanak, baina Aramaioko historia jasoko duen lan mardul bat falta da". Alde horretatik, sortu den taldearen helburua bere aletxoak jartzea da; hain zuzen, 36ko gerraren gainean ikertzea eta idaztea.

## Hurrengo bilera

Maiatzaren 7an egingo dute hurrengo bilera, eta Arriolabengoa herriarrei dei egin die parte hartzeko. Hurrengo bilera heldu bitarte ez dira geldirik egongo, lanean hasteko nahikoa material dute eta dagoeneko.



ARAMAIXO HERRI ESKOLA

## Gaztetxoak bulboak landatzen

Aramaixo Herri Eskolako Haur Hezkuntzako ikasleek, Burgiren laguntzarekin, bulboak landatu zituzten eguaztenean, Gaztañatxuetan. Udaberriaren atarian egonda, ikasleek euren aletxoak jarri nahi izan zuten, eta berandu baino lehen loratuko diren hainbat lore jarri zituzten. Ikasleetako asko loreak noiz ernalduko zain daude dagoeneko.

## San Martin jaietarako inkesta betetzeko azken eguna da

Aramaioko Udalak San Martin jaiak prestatzen hasteko herriarren iritzia jaso nahi izan du. Horretarako, jaiak ahalik eta parte-hartzaileenak izateko helburuarekin, inkesta bat jarri zuten eskuragarri Aramaioko Udalaren atarian, baina gaur amaituko da inkesta bete eta proposamenak egiteko Udalak jarritako epea.

## Jolas Hezi topaketak antolatu ditu Leintz Eskola Kirolak

Leintz Eskola Kirolak antolatuta, Jolas Hezi topaketak egingo dituzte bihar, zapatua, herriko frontoian. 10:30etik 12:00etara izango da ekimena, eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetakoei bideratuta egongo da. Proiektuak ikasleen garapen osorako ezinbestekoak diren jarduerak txertatuko ditu; tartean, jokoak eta gorputz adierazpena.

# 14,8 milioi euroko udal aurrekontua onartu dute, 17ra igotzeko asmoarekin

Inbertsioetara 5.200.000 euro bideratu dituzte, bi urtean bederatzi milioi izateko xedearekin; EAJ abstenitu egin da, eta inbertsioak soberakinari esker egingo direla dio

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Aretxabaleako Udalak badu 2025eko aurrekontua: 14.835.242 eurokoa, hain zuzen ere; otsailaren 13an egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak. Kopuru hori, baina, handitu egingo dela aurrerago adierazi du Udal Gobernuak, 2.800.000 euro gehiagorekin; hala, guztira 17.635.242 euro izango da. Abenduan 19,4 milioi euroko aurrekontu-proposamena aurkeztu zuen, eta hori doitu beharra izan du. Horren arrazoia Garikoitz Iturbe Etxebarria alkateak azaldu du: "Europatik ezarritako arau fiskalen moldaketa baten ondorioa da. Horregatik, hasiera batean, inbertsio batzuk zehaztu ditugu aurrekontuan, eta, aurrerago, daukagun soberakina aprobetxatuta, kreditu aldaketa baten bidez 17,8 milioi euroraino iritsiko gara".

Hain zuzen ere, joan den irailetik otsailera bitartean Aldundiarekin egindako lanketa baten ondoren, hiru urterako aurrekontu baten plangintza zehaztu dute: "Horri esker, inbertsioak lau alditan banatu ahal izango dira, bi urtez". Soberakinari dagokionez, 2024ko itxierak zortzi milioi euro ematea espero dute, eta horren zati bat apirillean jasotzea.

**Zerbitzuak "indartu"**

Udal Gobernuaren helburua da Aretxabaleta "nabarmen hobetuko duen azpiegitura sare bat" garatzea, lehendik dauden "hobetzea" eta zerbitzu publikoak "indartzea". Hori horrela, "aldaketa estrategikoen artean" dago zainketen ekosistemaren proiektua: "Autonomia Sustatzeko Eremua laster zabalduko da komentuan, dependentziarik ez duten adineko pertsonentzat". Komentuaren alboan dagoen zentro soziosanitarioa ere "pieza garrantzitsua" izango da: "Aldundiarekin eta Osakidetzarekin batera lantzen dihardugu eta atea irekitzeaz dugu". Adinekoen hautatu gabeko bakardadearen lanketa ere jaso dute zaintzaren baitan: "Talde motorra sortuko da bailaran, baita herrietan ere, eta, horretarako, Adinberriren dirulaguntza lortu dugu, aholkularitza izateko". Osasunean egingo den inbertsioa azpimarratu gura izan du Iturbek: "Ez diogu bakarrik alderdi ekonomikoari erreparatu behar, baita pertsonal inbertsioari ere. Indar eta energia handia jarriko dugu hor, hasi umeetatik eta adineko pertsonenganaino iristeko. Hor ko-

katzen da zaintza ekosistema, baina baita ongizate emozionalaren lanketatik abiatuta abian jarriko den ekintza-plana ere".

Horrekin batera, hainbat zerbitzu indartzea aurreikusi dute, "baliabide gehiago" jarrita: kale-garbiketara, etxez etxeko arreta zerbitzua, udal-brigadarena eta kiroldegikoa, besteak beste.

Bestetik, Errekabarren kalean (Zainduz) kokatuko den Emakumeen Txokoa udaberrirako irekitzea da asmoa. Eta, enplegua eta ekintzailatza bultzatzeko aldera, alokairurako "dirulaguntza berria" jarriko dute abian.

**Inbertsioak hainbat lanetarako**

Onartutako aurrekontutik 5.200.000 euro bideratuko dituzte inbertsioak egitera, eta bi urtean bederatzi milioi euroraino igotzea aurreikusi du Udal Gobernuak. Garrantzitsuen artean daude Santutxu inguruan lursaila erostea, Eusko Jaurlaritzak institutu berria eraiki dezan; kiroldegien aurrealdeko berdegunean aisialdirako eremua egokitzea; Andramari auzuneko kantzak urbanizatzea; Iturrizar plazatik Txarapeara joango den igogailua erostea; eta Aozaratz auzoko bidegorriko zubia konpontzea. Horiez gain, eguzki-plakak jarriko dituzte Arkupen eta Kurtzebarri eskolan.

Beste inbertsio batzuk, ostera, kreditu aldaketak eginda sartuko dituzte 2025eko aurrekontuan. Horien artean daude

**AUTONOMIA SUSTATZEKO EREMUA LASTER ZABALDUK DUTE, BAITA ZENTRO SOZIOSANITARIOA ERE**

## Lan esanguratsu batzuk



**Santutxu inguruko lursaila**  
Arrasatera bidean dagoen eremua eskuratuko du, institutu berria eraiki dezan Jaurlaritzak.



**Kiroldegi aurreko gunea**  
Aisialdirako eremua egokituko dute berdegune hartan, eta ur-txorroten gunea kokatu.



**Andramari auzunea**  
Hango kantzak urbanizatze lanak egingo dituzte; irailean hastea da asmoa.



**Iturrizar plazako igogailua**  
Iturrizartik Txarapeara joango den igogailua erosi du, eta gero, ingurua txukundu.



**Asfaltatze-lanak**  
Konpondu behar handia duten hainbat kale asfaltatu egingo dituzte.



**Gune estalia**  
Gipuzkoa plazan hainbat erabilera izango dituen gune estali bat kokatuko da.

asfaltatze-lanak egitea, Gipuzkoa plazan gune estali bat egokitzea, udaletxean igogailua jartzea eta Ederlaneko beroa kiroldegian aprobetxatzeko proiektua: "Iturrigorri pilotalekua berritzeko proiektua ere idatziko da; kuartelean konponketak egingo dira, eta haur parkeetan ere bai. Eta argiteria publikoan, baserri-bideetan eta saneamenduan ere hobekuntza nabarmenak egingo dira".

**EAJren abstentzioa**

EAJ abstenitu egin zen botoa emateko unean. Alderdiaren bozeramaile Mikel Uribetxebarria Barrenak azaldu du aurrekontua edozein izanda ere -19,4 milioi edo 14,8 milioi euro-, "inbertsioetarako gaitasuna hutsa" dela: "Pertsonal

gastuak, ohiko gastuak eta dirulaguntzak batuta, 12,3 milioi dira, ohiko diru-sarrerak besteak, eta, ondorioz, ezin-egin genduzte inbertsioetarako dirurik aurreratu. Orain posible da, soberakinari esker, baina aurrera begira egingo da". Bi gasturen igoerarekin ere ez da ados agertu: "Pertsonal gastua, 2024aren itxieran, 2,5 milioi ingurukoa izango da, eta, aldiz, aurrekontuan ia 3,5 milioi aurreikusi dira; igoera hori ez dugu justifikatu ikusten. Eta gastu arrunta 6 milioi ingurukoa izango da 2024aren itxieran, eta 2025ean 7,8 milioi aurreikusi dira".

Udal Gobernuak zehaztutako inbertsioekin, ostera, bat dator, "asko aurreko agintalditik datozenak" direla iritzita. Baina

**Jou Díaz**  
Starakina  
Durana 15  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

**ION ANDER CASTRO ZABALA**  
Era guztietako aulkien konponketa  
Zumezko artikuluen salmenta  
TAPIZERIA OROKORREAN  
943 78 71 65  
639 01 69 69



## Aurrekontuaren kopuruak

<b>Partida esanguratsuenak</b>	
Zerbitzu Orokorrak	1.384.514 €
Zerbitzu Ekonomikoak	424.546 €
Hirigintza	1.744.024 €
Ingurumena	2.529.454 €
Zerbitzuak	2.526.478 €
Herritar Segurtasuna	344.323 €
Kultura	1.084.755 €
Kirola	1.507.994 €
Ongizatea	1.625.669 €
Euskara	449.714 €
Gazteria eta Hezkuntza	985.437 €
Enplegua	228.972 €

### Aurrekontuan sartutakoak

Lurra erostea Santutxun	520.000 €
Kiroldegi aurreko gunea	518.200 €
Urbanizatzeko lanak Andramari auzunean	450.000 €
Iturrizar plazako igogailua erostea	278.000 €
Aozaratzeko auzoko bidegorriko zubiaren konponketa	100.000 €
Arkupeko eguzki-plakak	69.000 €
Kurtzebarri eskolako eguzki-plakak	65.000 €

### Kreditu aldaketa bidez aurreikusitakoak

Asfaltatze-lanak	600.000 €
Gune estalia	430.000 €
Udaletxerako igogailua	200.000 €
Ederlaneko beroa aprobetxatzeko proiektua	85.000 €
Iturrizar plazako igogailuaren lanak	70.000 €
Umeen parkeetan inbertsioak	50.000 €

2024ko aurrekonturako egin zituzten "proposamen gehienak" oraindik ez direla bete dio: "Asfaltatze-lanak, zebra-bideetan segurtasuna areagotzeko argiteria ezartzea, Lausittako saneamenduaren lanketan aurrerapausoak..."

Udal Gobernuari "motel" jardutea ere egotzi zion: "Arau fiskalak aipatu dituzte, eta bai, horiek mugatzen dituzte exekutatu beharreko inbertsioak, baina proiektuek idatzita eta tramitatuta egon behar dute, gero lehenbailehen exe-

kutatzeko. Eta oraindik idatzi barik daude azken bi urteetakoak".

Alkateak bere aldetik argitu du aurrekontuaren barne kuadeaketa aldatu egingo dutela, "arinagoak eta eraginkorragoak" izateko: "Orain arte, partidak mugiezinak izan dira, eta hori aldatu egingo dugu. Bestetik, urtetik urtera geratzen den dirua, soberakinera joan izan dena, urtean erabili gura dugu. Kreditu aldaketa batek duen tramitazio-prozesuari itxaron beharrik ez izateko".

# Aratuste giroa berotuko du bihar Txapel Txinek

Umeekin egingo du kalejira eguerdian, ohi legez, eta gero, 40 bat lagunekin batera bazkaldu; iluntzeko pregoiarekin, festaren atzerako kontaktari ekingo diote herritarrek, eta mozorroak prestatzeko astebete geratzen dela gogoraraziko dute

### M.A. ARETXABAETA

Herriko bazterrak alaitzera eta aztoratzera etorriko da Txapel Txin bihar, zapatua, aurreko bi egunetan herriko ikastetxeetatik eta ludotekatik pasatu ostean. *Txapelaroa* kalejirarekin, mozorroa gertatzeko astebete inguru geratzen dela gogoraraziko die herritarrei. Hain zuzen ere, horretan dihardute karrozak prestatzeko lokalean hamar bat kuadrillak, eta beste horrenbeste han edo hemen, isilean.

### 40 lagun bazkaltzeko

Hamazortzigarrenez ospatuko den jaiari umeek emango diote hasiera, eguerdi partean, eta

haiekin batera erraldoiek eta gaiteroek jardungo dute kalejira, Herriko Plazatik abiatuta; ondoren, 13:00etan, Txapel Txin batuko zaie. Bazkaltzeko, paella gertatuko du Aretxabaletako sukaldari talde entzutetsuak, eta 40 lagun inguru elkartuko dira, Kurtzebarri eskolako barruko kantxan; Glutenbakuak taldeak girotuko die haiei bazkalostea.

Aratusteei ongietorria egiteko pregoia 18:45ean botako du Txapel Txinek, eta ondoren, Zutik elektrotzarangak dantzan jarriko ditu kalean batutakoak. Gauean, Mugi panderoa taldearen erromeria izango da Mitarte kalean.

### Bola-txapelketak

Bestetik, Aratusteen bueltako bola-txapelketak bihar, zapatua, jokatuko dituzte, UDAko bola-taldeak antolatuta. 16:00etan hasiko da gazteen, infantilen eta jubenilen mailetakoa, eta 22:30ean helduena.

Antolatzaileek adierazi dute urtean zehar Aretxabaletan jokatuko diren zazpi-zortzi txapelketaren artean lehenengoa izango dela biharkoa, eta sailkapen bat osatuko dela horietan jasotako emaitzekin, herriko bolari onena hautatzeko. Urte bukaeran sailkapen horren buru denak 200 euro eta txapela jasoko ditu.

## Marokora bidaltzeko bilketa solidarioa egingo du ALEK

*Chatarras Raid* izeneko Marokoko auto-lasterketa solidarioan parte hartuko du Aretxabaletako Lanbide Eskolak martxoaren 14tik 21era bitartean. Bi auto prestatu dituzte horretarako, eta horiek erakutsiko dituzte gaur, egubakoitza, Herriko Plazan, baita argibideak eman ere proiektuaren bultzatzaileek. Autoak erakusteaz gain, Marokora era-

mateko bilketa egingo dute. Honako hauek jaso gura dituzte: elikagaiak –iraungitze-data luzea dutenak–; jolasak; eskolako materiala; eta umeendako arropa –bereziki, kirol-arropa–. Herritarrei eskatu diete plazara eroateko 10:00etatik 12:00etara eta 16:30etik 18:00etara. Bien bitartean, pintxoak salduko dituzte eta tentsioa hartu, eta jasotako diruarekin botikina erostea da asmoa.

Otsailaren 24tik 28ra bitartean ALEn ere jasoko dute materiala, 08:00etatik 20:00etara.

## Frontenis txapelketa antolatu du UDAk, bederatzigarrenez

Emakumeen frontenis txapelketa egingo du UDAk, Martxoaren 8aren bueltan. Hilaren 8an eta 9an jokatuko dira partiduak, Iturrigorri pilotalekuan, eta ize-na emateko epea zabalik dago. Horretarako, [emakumeenfrontenis@uda.com](mailto:emakumeenfrontenis@uda.com) helbidera idatzi behar da, martxoaren 4rako; bikoteak 20 euro ordainduko ditu txapelketa egunean.






**INPLANTOLOGIAN ESPERIENTZIA  
HANDIKO AHOLKU-EMAILEAK GARA  
3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN  
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABAETA • TEL.: 943 79 93 55

# "Herriko sareari bidea egiteko rola izango dut"

**OLAIA BENITO** ESKORIATZAKO EUSKARALDIAREN DINAMIZATZAILEA

Maiatzaren 15etik 25era izango da aurtengo Euskaraldia, euskararen erabilera aktibatzen mugimendu soziala, eta dagoeneko martxan daude Eskoriatzan

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Eskoriatzako Olaia Benito (2000, Eskoriatza), Artearen Historia eta Ilustrazioko ikasketak dituen eta gaur egun Eskoriatzako udal langilea, izango da Eskoriatzako dinamizatzailea.

**Zein izango da zure egitekoa aurtengo ariketa sozialean?**

Aurten dinamizatzaile rola izango dut. Eskoriatzako batzordea eta herritarrekin batera Euskaraldia martxan jarri eta aurrera eramateaz arduratuko gara. Dinamizatzaile bezala zenbait ardura edo funtzio izango ditut; berez, dinamizatzaile figura *erraztaile* bezala ulertzen dut. Herriko sareari bidea egiten dion rola da, gidaritza moduko bat: eragileen koordinazioa, batzordeen eta sareen osaketa-lana, bileren kudeaketa –gai-ordena prestatu, aktak jaso, dinamizazioa bera– eta Euskaraldiaren koordinazio orokorra eta administrazioekin harremana mantenduko duen pertsona izango naiz. Horretaz gain, batzordearen jarraipena ere egin beharko dut, eta momentuak eskatzen dituen beharrei erantzun.

**Egin duzue urratsik?**

Orain artekoak, barrura begirakoak: kokapen orokorra, Euskal Herriko dinamizatzaileen bilera, koordinazio orokorrenekin... Herrira begira batzordea osatzeko lehen urratsak egiten ari gara; hurrengo astelehenean, otsailaren 24an, arratsaldeko seietan, batzordearen lehenengo bilera izango dugu eta orduan hasiko gara kanpora begirako engranajea martxan jartzen. Helburua ahalik eta talde zabalen sortzea da; Euskaraldia perspektiba desberdinetatik ulertzen duten norbanako, entitate, elkarte edo kuadrillekin aurrera eramatea, hain zuzen ere. Eskoriatzako errealitatera egokitzen dena, non profil askotariko pertsonentzako lekua egongo den.



Olaia Benito, Eskoriatzako Euskaraldiaren dinamizatzailea. XABIER BADIOLA

**"OTSAILAREN 24AN, 18:00ETAN, BATZORDEAREN LEHENENGO BILERA IZANGO DUGU"**

**Beste edizio batzuekin alderatuz zein ezberdintasun izango du aurtengo Euskaraldiak Eskoriatzan?**

Aurtengo berritasun nagusia data aldetik iritsi zaigu; aurreko edizioetan ez bezala, laugarren edizio hau udaberriaren egingo da. Maiatzaren 15etik 25era, hain zuzen ere. Eguraldia dela eta, data berri hauetan gizarte bizitza handiagoa dago, orokorrean da, hau da, baldintza sozialak hobekia dira. Iruditegi berriak ere bat egiten du ideia horrekin, oso koloretsua eta alai baita. Bestetik, hamaika egunen bueltakoa izatea hobetsi da, egun kopurua murriztuz eta bi aste-buru hartuz. Modu sakonagoan egiteko aukera emateaz gain, ariketaren intentsitatea mantentzen lagunduko duelako. Gainera, 2025eko edizioan Euskaraldian parte hartzeko modu

berri bat aurkituko dugu: Euskaraldia *HIKA*. Ez du lan estra handirik ekarriko; hika egin, ikasi edo entzun nahi dutenei aukera emateko modu bat da. *Ahobizi* eta *belarriprest* txapetan *H* gehigarria jarriko zaie, "*nahi baduzu, nirekin hika egin dezakezu*" adieraziko duena. Rol nagusiak ez dira aldatuko, eta ez dago hika jakin beharrik *H*-a ipintzeko; ikasi edo entzun nahi dutenentzako aukera polita izan daiteke.

**Aurtengo helburu nagusia?**

Hizkuntza-ohiturak aldatuko dituen mugimendua sortzea; leloak adierazten duen bezala mugimenduan jarri da ardatza: *Elkar mugituz egingo dugu*. Laugarren edizioan, Euskaraldiaren eraginkortasunean sakontzeko urrats berriak proposatuko dira. **Euskaraldiaren gaineko informazioa nahi duenak nora jo behar du?** Edozein zalantza, proposamen edo iruzkin ongietorria izango da. Horretarako, sare-sozialetan aurkituko gaituzue: Instagramen, *@euskaraldiaeskoriatza* kontuan; Facebooken, *@euskaraldiaeskoriatza*; eta Whatsapp zenbakia, berriz, honako hauxe da: 666 72 33 94.



Aste honetan, buztzingintzako ikastaroan batutakoak lanean. OLATZ PAGALDAY

## Buztina lantzearekin batera, herriari ekarpena egiten

Ikasturte berriari ekinga, urteko batzar orokorra egin dute Buztinate buztzingintza elkarteko kideek

**I.B. ESKORIATZA**

Buztinate buztzingintza elkarteko 53 bazkideek urteko batzar orokorra egin dute, eta ikasturte honetara begira zehaztu dituzte erroka eta helburu berriak.

Eskoriatzako buztzingintza eta zeramika ikastaroko ikasle talde batek bultzatuta 2016an sortutako Buztinate elkartearen jatorria eta ibilbidea labur aipatzeaz batera, elkarteak herriarekin dituen konpromisoak izan zituzten hizpide batzarrean batutakoek, baita taldearen aisialdi jarduerak zeintzuk izango diren ere: irteerak, ospakizunak... Horrekin batera, diru kontuak ere izan zituzten berbagai, eta, tailerraren erabilera egokirako arauak zehaztu ere.

**Ekintzak zehazten**

Ohiko hitzorduetan parte hartzearen garrantzia azpimarratu zuten saioan. Ferixa egunean

postua jartzea eta tornu erakusketa ematea, Herri Eskolaren Egunean parte hartzea, Gabonetan familientzat apaingarriak egiteko tailerrak antolatzea...

**Helburuak betetzen**

Eskoriatzako Buztinateko labea ez dute erabilgarri izan hainbat urtean, eta horren beharra azpimarratu dute. Hala, labea erosi eta ikastaroetako lan egiteko modua aldatu, erraztu eta hobetu egingo dela dio Olatz Pagaldayk, Buztinateko kideak: "Buztzingintzan ezinbestekoa den labea erosi dugu, bazkideen kuotekin eta Eskoriatzako Udalaren laguntzarekin. Martxoan instalatuko dugu. Horrekin batera, eskaerak ere handituz doaz, eta buztina lantzeko beste egun bat gehiago jartzea pentsatzen ari gara; hau da, datorren urtean bi egunetan izango dira saioak, bakarrean beharrean".



# Usadioari jarraituz, Urdelardero ospatzera

Otsailaren 27an ospatuko da Urdelardero Eguna, eta, zirian sartuta jatekoa eramateaz gain, kantuan arituko dira haurrak kaleetan zehar, gozoki eske. Hezkuntza publikoaren greba izanda, Koldotxo Guraso Elkarteok euren kabuz antolatuko dute

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Ozen abestera irtengo dira kalera Eskoriatzako gaztetxoak, beste urte batez, Urdelardero Eguenean. Luis Ezeiza Herri Eskolako irakasleen greba dela eta, Luis Ezeiza eskolak ez du Urdelardero ospatuko, nahiz eta Koldotxo Guraso Elkarteok kideek eskolako patioan batzeko dei egin duten, 10:30ean, kalejiraren uean. Elkartzen direnek Intxaurtxueta inguruko ibilbidea soilik egingo dute kantuan, gozoki-eskean, eta gero, Fernando Eskoriatza plazako ekitaldira joango dira.

Arizmendi ikastolakoek, berriz, urtero moduan ospatuko dute Urdelardero Eguna. Jose Arana guneko Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5. mailetakoko 35 haur inguru aterako dira, eta Almen Ikastolatik, berriz, Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailetakoko ikasleek hartuko dute parte egitasmoan. Beti bezala, ziria eskuan, *Urdelardero* abestia kantatzen pasako dute goiza.

## Egun osoko egitaraua

Egitarauari dagokionez, 10:30ean, haurren kalejira hasiko da, eta haurrei gozokiak banatuko dizkiete kantuen trukean. 11:30ean, txistor-jana izango dute Fernando Eskoriatza plazan, eta horiek

izango dira goizeko ekintzak. Arratsaldean, berriz, Fernando Eskoriatza plazan jarraituko du festa egunak. 17:30ean, Mikeltxi DJaren saioa izango da; 18:30ean, txokolate-jana izango da, eta, kasu horretan, bakoitzak bere edalontzia eramateko eskaera egin dute.

## Grebaren eragina

Iaz, adinaren arabera taldeetan banatuta, bi ikastetxeetako umeak elkarrekin abestera irten ziren, baina aurten grebaren eragina sumatuko da parte-har-

tzean. Izan ere, langileen lan-baldintzak hobetzeko ELA, LAB, Steilas eta CCOO sindikatuek deitutako greba zikloaren baitan, hezkuntza publikoko irakasleek greba egingo dute. "Iaz bezala, herriko adin bereko ikasleek irten behar zuten kalera. Greba dela eta, gure ikasleak ez dira irakasleekin aterako, baina guraso elkarteak antolatuta batzeko dei egin dute, ibilbide zati bat egin eta plazan elkartzeko", adierazi du Maitane Gomez de Segurak, Luis Ezeiza Herri Eskolako irakasleak.



Iaz, Urdelardero Egunean, Jose Arana adinekoen egoitzan. GOIENA

## Mendi Tour Mendi Filmeko proiektioak asteburu honetan

Asteburuan, 2024ko Mendi Tour Film Festibalean aurkeztutako dokumental onenak Eskoriatzan izango dira ikusgai, bi egunetan: gaur, egubakoitza, eta domekan. Proiektioak Zaldibar antzokian izango dira, 19:00etan. Sarrera: 5 eurokoa da saio batera joateko eta 8 euro ordaindu beharko ditu, bestalde, bi saioetarako bonua nahi duenak.

## Heriotza musika taldea Mondra&Roll jaialdian arituko da

80ko eta 90eko hamarkadetan Eskoriatzako eta Arrasateko musikariak batzen zituen punk-rock taldea eszenatokira bueltatuko da; izan ere, uztaillaren 4an eta 5ean Mondra&Roll jaialdian arituko da. 2023ko abenduan zuzeneko eman zuen Arrasaten, Irati tabernako topagunean, sorpresa moduan, eta uztaillera-ko prestatzen hasi dira.

## OHARRAK

**Dantzaldia zapatuan**  
DJ Moto arituko da Zaldibar antzokia girotzen, 18:30ean.

**Eski irteerarik ez**  
Astunera irteera bertan behera geratu da, izen-emate kopuru baxuagatik.

**Ipuin kontaketa**  
Otsailaren 26an, 18:00etan, bibliotekan, Pello Añorgarekin.

# LEINTZ GATZAGA | 19



Ainara Abasolo Irrikako Dorlak txokolatearekin. I.BELOKI

## Irrikako Dorlak: gatz eta txokolatea, uztartuta

Irrika Gluten Free Bakery eta Gatzagako Gatz Museoak elkarlanean, txokolate-tabletak merkaturatuko dituzte

## Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Irrika Gluten Free Bakery eta Leintz Gatzagako Gatz Museoak elkarlanean, txokolate-tabletak merkaturatuko dituzte, bertako gatzarekin egindakoak, Gatz Museoak eta Irrikak dituzten salmenta-puntuetan.

## Bertakoaren aldeko hautua

"Leintz Gatzagako Udalak bertako ekoizle batekin eta Gatzagako gatzarekin produktu bat sortzeko nahia izanda, txokolate dultzea eta gatz gazia batuta txokolate-tabletak egitea adostu dugu. Probak egin ditugu,

eta, azken emaitza gustukoa izanda, proiektuarekin hasiko gara", adierazi du Ainara Abasolok, Irrika Gluten Free Bakeryko arduradunak.

Proiektuak hainbat helburu dituela gaineratu du Dorleta Elkorobarrutiak, Leintz Gatzagako alkateak: "Gluten bako produktua izango da, jende guztiarentzat eskuragarri izango dena, gatzaren onurak zabalduko ditugu, zero kilometro produktua... Ainararen aita gatzagarra izanda bada lotura bat, gainera, Irrikaren eta Gatzagaren artean".

## Txistu doinuak entzungo dira bihar Gatz Museoan

Arrasate Musikaleko Txistulari Bandaren kontzertua izango da 12:00etan, eta doako saioa izango da

## I.B. LEINTZ GATZAGA

Txistu doinuak entzuteko aukera izango dute gatzagarrek bihar, zapatua, Leintz Gatzagako Gatz Museoan. Bertan izango dira Arrasate Musikaleko Txistulari Bandako kideak, eta proposamen ederrarekin izango dira ikuskin-uzina eskaintzen.

Lander Diaz de Gereñu eta Juan Karlos Larreategi arituko dira lehenengo txistu; Markel Iragi, Oihan Martinez eta Amets Pagaldai, berriz, bigarren txistu; silboteaz Domentx Uzin arduratuko da; eta perkusioaren

lana, berriz, Julen Larreategi-rena izango da. Hala, prestatuta dituzte Gatz Museoan jotzeko piezak.

Egitarauari dagokionez, *Kaskagorria* (fandangoa) eta *Txistulariak* (arin-arina) eskainiko dituzte hasteko. Eta gero, *Euge-nio* (zortzikoa), *Sagar Dantza Baztan*, *Donostia* (bariaziodun fandangoa), *Nire Bihotzeko Habanera Kuttuna*, *Ansola anaiak* (suitea), *Adan eta Eba* (polka), *Raimundo Basurko* (kontrapasa), *Ezoz* (fandangoa) eta *Ezoz* (arin-arina).

# Eman daiteke izena Jabekuntza Eskolan

Martxoaren 2ra arte eman daiteke izena antolatu dituzten ekintzetan; halaber, hainbat mahai-inguru egingo dituzte, eta, berritasun moduan, gizonetako hitzaldia ere antolatu dute, martxoaren 20rako, 'Aitatasun aktiboak eta arduratsuak' izenburupean

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA  
Bergarako Emakumeendako Jabekuntza Eskolak hainbat tailer, hitzaldi eta mahai-inguru antolatu ditu martxotik ekainera bitartean. Programaren helburua da "emakumeen ahalduntzea sustatzea, espazio seguru eta inklusibo batean elkartzu, ikasiz eta hausnartuz".

Hala, iragarri dituzten ekintzen artean daude kulturaren, artearen, osasunaren, ongizatearen, autozaintzaren, sexualitatearen, hezkuntzaren, hizkuntzaren, feminismoaren eta gizartearen bueltako gaiak. Egitarauaren baitan honako ekintza hauek daude jasota: Ana Goitiaren *Katana* bakarrizketa, martxoaren 6an, Seminarixoan; *Joskintza iraultzailea*, martxoaren 10etik maiatzaren 5era, Irizar jauregian; *Xilografia* tailerra, martxoaren 20tik maiatzaren 15era, Martoko eskola zaharrean; *Zoru pelbikoa indartzea*, martxoaren 12tik maiatzaren 28ra, Osintxun; *Elikadura menopausian* tailerra, martxoaren 12an, 19an eta 26an, Irizar jauregian; *Autozaintzaren erotika* tailerra, martxoaren 11tik maiatzaren 27ra, Agorrosin Ekintza Gunean; *Desio tailerra*, maiatzaren 16an, Irizar jauregian; *Gure artean euskaraz* ikastaroa, martxotik ekainera; *Emakumea bere*

*ingurunean: lehen, orain... eta gero zer?* mahai-ingurua, maiatzaren 22an, Irizar jauregian; eta *Bergarako Emakumeen Txokoa* hausnarketa-prozesua, martxotik irailera bitartean.

Udaleko Berdintasun teknikari Yenifer Garciak esan du programa diseinatzeko aurreko edizioan emakumeen egindako

proposamen guztiak hartzen dituztela kontuan. Proposamen horiek tailerretako balorazio-orrietan nahiz ikasturtearen amaieran egiten diren ebaluazio-saioetan jasotzen dituzte. Bestalde, azaldu du Jabekuntza Eskola Bergarako mugimendu sozialekin lotu nahi izan dutela; betiere, ikuspegi feministari eutsiz. "Edukien ore-



Jabekuntza Eskolaren jardunaldiak aurkezteko talde argazkia. BERGARAKO UDALA

## Emakumeen Txokoaren oinarria

Arrizuriaga jauregiko bigarren solairuan kokatuko da Bergarako Emakumeen Txokoa, eta espazio horri dagokion prozesua martxoan jarriko da martxan, Elhuyar Kooperatibaren laguntza teknikoarekin. Martxoaren 13an, 18:00etan, *Bergaran emakumeen txokoa, zergatik?* mahai-ingurua egingo dute, Euskal Herriko hainbat emakume-txokotan esperientzia duten emakumeekin. Ondoren, martxoaren 21etik irailera bitartean, bost hausnarketa-saio egingo dituzte, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Martxoaren 21ean, 18:00etatik 20:00etara, Emakumeen Txokoaren helburuak, eskaintza eta erabiltzaileak zehaztuko dituzte; bigarrena, berriz, apirilaren 5ean izango da, 10:00etatik 13:00etara, eta kudeaketa-sistema izango dute hizpide; hirugarrenean, maiatzaren 24an, 10:00etatik 13:00etara, Arrizuriagako espazioaren antolamendua eta baliabideak landuko dituzte, baita eraikineko beste proiektuekin izango duten elkarbizitza ere; Emakumeen Txokoaren funtzionamendua, ordutegia eta erabilera izango dituzte berbaiz maiatzaren 30eko saioan, 18:00etatik 20:30era bitartean; azkenik, hausnarketa egin eta ondorioak aterako dituzte —data zehaztu gabe dago, baina irailean izango da—. Bergarako Udalak parte hartzeko dei egin die hausnarketa prozesuan interesa duten herritarrei eta eragileei.

ka mantentzen saiatzen gara: emozioa, gorputza, sormena nahiz aldarrikapen politikoa landuz. Hori guztia, Eskolaren jarduera osoa zeharkatzea nahi dugun printzipioak kontuan hartuta: feminismoa, euskara eta aniztasuna", dio Garciak.

### Gizonetako hitzaldia

Aurtengo edizioak aitatasun arduratsua sustatzeko ekimen berezia aurkeztu du. *Aitatasun aktiboak eta arduratsuak* hitzaldia antolatu dute martxoaren 20rako, 18:00etatik 20:00etara, Irizar jauregian, gizonen familia eta hazkuntza arloan duten funtzioak hausnartzeko.

Orain arte, ez dute gizonekin tailerrik egin, "batez ere, feminismoaren subjektu politikoa emakumeak direla" ulertzen dutelako, baina A25eko Euskal Herriko Mugimendu Feministaren *Konponbidearen parte ez bazara, arazoaren parte zara* leloak zer-pentsa eman zien: "Hori dela eta, eta zalantza askorekin, gizonetako tailer bat egitea erabaki genuen, eta, gure

harridurarako, nahiko arrakasta izan zuen. Egia da ez genituela bete eskaini genituen plaza guztiak, baina hamalau gizonetako talde bat elkartzu zen; tailerra ontzat eman zuten zuten eta ildo horretatik jarraitzea animatu gintuzten".

### Izen-ematea zabalik dago

Jabekuntza Eskolan parte hartu duten emakumeek izena eman dezakete, martxoaren 2ra arte, *berdintasuna@bergara.eus* helbidean, 943 77 91 45 edo 688 81 17 60 telefonoetara deituta edo *bergara.eus/berdintasuna* webgunean. Plazak esleitzeko zozketa egingo dute eta lehentasuna izango dute Bergaran errol-datatutako emakumeek. Partaideek doako zaintza zerbitzua izango dute jarduera guztietan.

## KULTURA, AUTOZAINZA, SEXUALITATEA ETA FEMINISMOA LANDUKO DITUZTE

## Euskaraldiko hamaikakoa aurkeztuko dute arratsaldean

19:00etan hasiko da ekitaldia, eta arratsalde osorako egitaraua antolatu du Bergarako Euskaraldiko taldeak

**I.A.A.** BERGARA

Gaur, arratsaldeko zazpietan, Seminarixoan aurkeztuko du Bergarako Euskaraldiak hamaikakoa. Sare sozialetan dagoeneko eman dituzte hamaikakoa osatzen duten herritarrei

buruzko pistak, baina gaur jarriko zaie aurpegia. Karmele Uribesalgo kazetari bergararrak aurkeztuko du ekitaldia, eta Asier Galarzak bakarrizketa-saioa egingo du. Horren ostean emango dute ezagutzera

hamaikakoa. Zuzeneko musika ere egongo da, eta, ekitaldia borobiltzeko, luntxa izango dute, San Joxepe erretiratu elkarteari eta pentsiodunei esker. Orduete inguru iraungo du ekitaldiak.

Alabaina, aurrez egongo da zertaz gozatu: Beart-eko artistek Euskaraldiaren mural bat marrotuko dute, 16:00etan hasita, eta Bergarako Erraldoi Taldekoek eta herriko musikariek kaleak girotuko dituzte, 18:00etatik 19:00etara.

## OHARRAK

### Odol-ematea

Odol-ateratzea egingo dute hilaren 26an San Joxepen. Hitzordua hartzeko: *gotatanta.eus* edo 943 00 78 84.

### Aratusteei ongietorria

Datorren egunean, Bergarako Musika eta Dantza Eskolako ikasleek sorgin dantza egingo dute, 19:00etan, San Martin plazan hasita.

### Eguaztenak Oxirondon

Otsailaren 26an egingo dute hileko azken saioa Oxirondo azokan: baserritarren azoka eta sukaldaritza zuzenean, Erikaeneak gidatuta.

# "Euskara ezinbestekoa da diagnostiko ona egiteko"

**INTZA GURRUTXAGA** EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ ELKARTEKO KIDEA

Osasun arreta kalitatezkoa izateko pazientea ama hizkuntzan artatua izateak "berebiziko garrantzia" duela "frogatuta" dagoela dio: "Kontrako diskurtsoei aurre egin behar diegu"

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA  
Duela bi urte eta erdi sartu zen Euskal Herrian Euskaraz elkartean Intza Gurrutxaga (Getaria, 1996). Otsailaren 25ean Irizar jauregian arituko da hizlari, Adrian Zelaiaekin eta Jon Zaratekin batera, *Osasungintza euskalduna behingoz!* izenburu duen hitzaldia egiten; Irizar jauregian izango da, 18:30ean. **Zergatik sartu zinen Euskal Herrian Euskaraz (EHE) elkartean?**

Betidanik izan dut euskararekiko kezka eta interesa, eta, EHEn sartzeko aukera izan nuen, askorik pentsatu gabe sartu nintzen; bereziki, elkarrearen oinarri ideologikoekin guztiz bat egiten dudalako. Gainera, sartu nintzen nire ekarpena egiteko une egokia zela ikusi nuen.

**Emankorra izan da egindako bidea?**  
Pandemiaren amaiera aldera sartu nintzen, EHE barruko hausnarketa prozesu sakon baten testuinguruan. Eragilea eraberritzeko beharra ikusi zen, testuingurua eta militantzia-eredua aldatu egin zirelako. Garai hartan oso ahul zegoen EHE, eta barne prozesu harekin oinarri ideologikoa eta antolakuntza eredu berrikusi egin ziren, etorkizuneko lan-ildo berriak zehaztearekin batera. Zuzendaritza batzordea berriro egin genuen, bost kide berri sartuta, gazteak guztiak; gogotsu ekin genion. Oso ahul egotetik berreskuratzen ari gara, indartzen; gero eta ekimen gehiago ari gara antolatzen, eta komunitatea indartzen ari gara. Euskal Herri osoko gero eta kide gehiago ari gara batzen.

**Otsailaren 25ean Irizar jauregian arituko zara, osasungintza euskalduntzeko beharraz; zergatik?**

Enpirikoki frogatuta dago norberaren ama hizkuntzan artatua izatearen garrantzia. Kalitatezko osasun-arreta eman nahi bada, ezinbestekoa da arreta hori pazientearen ama hizkun-



Intza Gurrutxaga, asteon; otsailaren 25eko hitzaldiko hizlarietako bat izango da. I.G.

## "GARRANTZITSUA DA EUSKARA LEHEN LERROAN JARTZEA LANTZEN ARI DIREN OSASUN ITUNEAN"

tzan izatea. Ideia hori presente izanda, osasungintza euskalduntzeko, Aintzat mugimendurekin elkarlanean, Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Itunean eragin nahi dugu; orain ari dira hainbat alderdi, sindikatu eta eragile Osasun Ituna lantzen, eta uste dugu garrantzitsua dela itun horretan euskararen presentzia bermatzeko beharra lehen lerroan jartzea. Ezin dugu ahaztu, gainera, Comisiones Obreras (CCOO) eta UGT sindikatuak antolatzen ari direla, hain zuzen ere, gure diskurtsoa kontrajarriz. Diskurtso horri aurre egin beharreen gaude. Horrez gain, osasun langile euskaltzaleak saretzeko beharra ere ikusten dugu.

**Kalitatezko osasun sistemarik ez duzue ulertzen, euskaraz ez bada.**  
Ez. Osasun arretan hizkuntzak berebiziko garrantzia duela sinistuta, hori zalantzan jartzen

duen diskurtsoei aurre egin behar diegu, besteak beste, enpirikoki demostratuta dagoelako. **Nola planteatzen duzue hitzaldia?**  
Sarrera gisa, EHEN osasungintza arloan zertan dihardugun emango dut aditzera. Ondoren, Jon Zaratek azpimarratuko du zein garrantzitsuak diren herri mugimendutik datorren eragile batentzat oinarri zientifikoetan oinarritutako aldarrikapenak. Eta, azkenik, Aintzat-eko Adrian Zelaia, osasun-profesional bezala, zein hutsune ikusten dituen azalduko du; historia klinikotik hasi, eta aurrez aurreko diagnostikoetara arte. Pazienteen ikuspegia ere azalduko da.

**Mediku ona edo euskalduna, diktoria hori apurtu nahi duzue.**

Hala da. Horri buelta eman gura diogu. Ez da euskaldunok bakarrik eskatzen dugun zerbait; hainbat hizkuntza gutxitutan egin izan diren ikerketek ere ondorio berera garamatzate.

**Ezer gaineratu nahiko zenuke?**  
Kanpaina honez gain, apirilaren 6rako manifestazioa deitu dugu Baionan, *Justizia euskararentzat* lelopean. Bi arlo horietan atzerapausoak ikusi ditugu, eta hori ezin dugu onartzen jarraitu.



Amaia Zubiria, artxiboko argazki batean. FOKU

## Amaia Zubiriak jasoko du 2025eko Monzon-Ganuza Saria

Euskal musikaren historiako "ezinbesteko figura" denak jasoko du saria, martxoaren 27an, Seminarixoan (18:30)

**J.B.L. BERGARA**

Udalak eta Olaso Dorrea Fundazioak banatzen duten Monzon-Ganuza Saria Amaia Zubiriak (Donostia, Zubietia, 1947) jasoko du aurten. Ekitaldia martxoaren 27an izango da, Seminarixoan (18:30). Sariduna iragartzeko agerraldian Gorka Artola alkateak esan zuenez, euskal kulturari eta musikagintzari egindako ekarpenagatik jasoko du saria Zubiriak: "Euskal musikaren historian ezinbesteko figura da, haren ahots gardenari eta sentikortasun handiko interpretazioei esker. Herri kantak, jazzaren ukitua, poesia-

ren indarra eta zinema-musikarako ekarpenak uztartu ditu, beti berrikuntzaren eta sormenaren bidetik jorratuz".

**"Arbaso kolosalak" gogoratu**

Olaso Dorrea Fundazioko lehendakari Irati Jimenezek sariaren helburua zein den gogoratu zuen, besteak beste: "Gure lanak zentzurik badu, gure arbasoen artean kolosoak ditugulako da. Haiek egin zuten lanari jarraipena ematea da gure helburua. Baina sari honekin urtero beste zerbait ere gogoratzen dugu: herri kolosal batean bizi garela".

## Erramu-zapatuko ferian postua jartzeko izen-ematea, zabalik

Martxoaren 5erako, artisau, abeltzain, elikagai eta taloak; Eusko Labeldun posturako, martxoaren 13a baino lehen

**J.B.L. BERGARA**

Zabalik dago izen-ematea apirilaren 12an ospatuko den Erramu-zapatuko ferian postua jartzeko. Artisauak, abeltzainak eta bertako barazkien, fruten eta elikagaien ekoizleek martxoaren 5erako egin behar dituzte eskararak, *ferixa@bergara.eus* helbide elektronikoan, BAZen edo Internet bidez. Postuak Ibargarai kalean, Simon Arrieta plazan eta San Martin plazan jarriko dituzte, 09:30etik 14:30era. Talo-postua jartzeko ere martxoaren 5erako egin behar dira eskar-

rak; zozketa martxoaren 25ean egingo dute, 12:00etan, udaletxean. Talo-txosna 09:30etik 14:30era egongo da, Seminarioko patioan.

**Irabazi asmorik gabeko taldeak**

Eusko Labeldun produktuen posturako izen-ematea martxoaren 13an amaituko da. Bergarako irabazi asmorik gabeko elkarrekin aurkez ditzakete eskararak, baita Bergaran delegazioa izanda herritarrendako ekintzak burutzen egiten elkarrekin ere. Zozketa martxoaren 27an egingo dute, 12:00etan, udaletxean.

# "Sekulakoa litzateke World Tourrera heltzea"

**JON ARANTZABAL** CAJA RURAL-RGA TXIRRINDULARI TALDEKO MASAJISTA Txirrindularitzako afizioa ofizioa da dagoeneko Arantzabalentzat: udan Euskaltel Euskadin masajista-lanetan aritu ostean, denboraldi osoa pasako du Caja Ruralen

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA Algarveko Itzuliko lehen etapan anoa-postu batean zegoela elkarriketatu zuen GOIENAK Jon Arantzabal (Bergara, 1994). Lehenengo aldiz igaroko du txirrindulari-talde batekin denboraldi osoa. Etxetik kanpo egun asko igaro behar dituen arren, "ilusioz eta gogoz" dago. Gainera, iaz hasi zuen bideari ere emango dio jarraipena Tolosaldea Arraun Klubeko emakumezko taldean. **Urtarrilaren amaieran Saudi Arabian eta orain Portugalen egin duzue geldialdia; gustura zabilteza?**

Gogotsu nago. Denboraldi osoa talde batean egingo dudana lehen aldia da. Etxetik kanpo egun asko dira; ea zelan eramaten dudana. Martxoko lehen asteburuan, esaterako, Italiara joango gara.

**Zein lan egiten du txirrindularitza talde bateko masajista batek?**

Hiru masajista gaude. Bat autokarabana ondo egoteaz arduratzen da. Beste biok botilak prestatzen ditugu, arroz-pastelak egin, kamioiak txukundu, erosketak egin, hozkailuak berriz betetzen ditugu produktuak gastatu ahala... Hori goizez egiten dugu. Lasterketetara joaten garenean, anoa-postuetan egoten gara, poltsak banatzeko, orain nagoen bezala. Hotelera heldutakoan ematen ditugu masajiak. **Orduan, masajea ematea soilik ez; hainbat ardura dituzue.**

Egun osoa gabiltza lanean, eta, azkenean, masajea da azkena. Masajiek bakarrik ematen ditugula pentsatzen du jendeak. **Entrenamendu eta lasterketa garaiek berberak izaten dira zuendako?**

Gu lasterketetara bakarrik joaten gara. Txirrindulariak etxean entrenatzen dira, eta, eguraldi txarra bada, Calpe eta Benidorm aldera joaten dira. Gu lasterketa baino bi egun lehenago joaten gara nabera, gauzak prestatzera. **Txirrindularitza afizioa ere baduzu; ezberdin ikusten duzue sektorea masajista ikuspuntutik?**



Jon Arantzabal, eguaztenean, anoa-postu batean, Algarveko Itzulian. J.A.

## "MASAJISTOK MASAJEAK BAKARRIK EMATEN DITUGULA PENTSATZEN DU JENDEAK"

Ikusten dut asko aldatu dela. Asko zaintzen dira xehetasun guztiak eta txirrindulariak. Azkenean, jende asko dago lanean. Talde batek lehen birekin egiten zuena orain hirurekin egin behar du. Geroz eta pertsona gehiago izaten dira, lana azkarrago eta efizienteago egiteko.

**Halako bidaiak aprobetxatzen dituzue bizikletan ibiltzeko?**

Ez dugu bizikletarik ekartzen, baina afaldu aurretik korrika egitera joaten gara. Eta oso turismo gutxi egiten dugu. Lasterketetan zentratuta gaude, nahiz eta kirola egiteko tartea atera.

**Uste duzue txirrindularitza-zale izateak lagundu dizula sektorean sartzen?** Gure artean asko aipatzen dugu mundu honetan sartzeko gustatu egin behar zaizula txirrindularitza; bestela, lan gogorra da. Azkenean, egun osoa igarotzen dugu horren bueltan. Gustatu

egin behar zaizu saltsa hau; bestela, eguna luze egiten da.

**Zein txirrindularitza-taldetan lan egitea amesten duzue?**

Sekulakoa izango litzateke World Tourrera heltzea, lehen mailara, baina ez daukat presarik; nagoen tokian oso gustura nago.

**Aurreko denboraldian, Tolosaldea Arraun Klubean egin zenuen lan.**

Iazko ekainean hasi nintzen Tolosaldeako neskekin. Denboraldi osoa egin nuen, oso gustura. Esperientzia berri bat izan da, kirol berri batean, eta aurrean ere jarraituko dut.

**Ezberdintasuna dago arraunlariekin edo txirrindulariekin lan egin?**

Kirol ezberdinak dira, baina antzekotasunak dira oso kirolari zorrotzak eta kirol gogorak dira. Arraunlariekin lan gehiago egiten dut estropada aurretik; txirrindulariekin, etapa bukaeran. Txirrindulariak egun gehiago jarraian lehiatzen dira, eta garrantzi handiagoa ematen diogu etapa ondorengo atsedeneri.

**Beste kirolik probatuko zenuke?** Futbol talde bateko masajista izan nintzen. Momentuz, arraunlariekin eta txirrindulariekin oso gustura nabil, eta horretan jarraituko dut.



NIRE USTEZ

MAITE TOLEDO

## Adimen artifiziala eta plagiataileak

Joan den mendeko 80ko hamarkadako azken urteetan, maisutasunez idatzi zuen Bernardo Atxagak, *Obabakoak* liburuan, *Ondo plagiatzeko metodoaren azalpen laburra eta adibide bat* izeneko ipuina. Alabaina, orduetik makinatxo bat itzuliguru eman dituzte plagioek eta plagiataileak, batik bat teknologien bilakaerarekin, eta, azkenaldian, adimen artifizialaren agerpenarekin. Irudimena eta sormena bor-bor dabilteza, han eta hemen. Larunbat goiza da, eta irakaslea azken notarako balioko duten lanak zuzentzen dabil. Zenbait ikaslek adimen artifiziala baliatu duten ziurtasuna dauka. Zirt edo zart erabaki behar du. Batetik, inoren hitzak norberarenak balira bezala erabiltzea kopiatzea da, legalki arau-haustea. Bestetik, norenak dira adimen artifizialaren hitzak, irudiak, soinuak? Eta akademikoki, nola frogatu ikaslea tranpatan dabilela? Euskara ikasleak idazlana, kazetariak erreportajea, musika-produktoreak bideoak edota artistak irudia; nola igarri eta adierazi adimen artifizialari kopiatu diotela? Ba omen daude antzemateko baliabideak. Horra hor *Ondo plagiatzeko metodoa* ipuina berridazteko aitzakia.

## Emakumeen eskalada saioa egingo dute martxoaren 1ean

Emakumeen eskalada saioa antolatu dute martxoaren 1erako Labegarrietako rokodromoan, 10:00etan hasita. Eskalatzen trebatu edo hasi nahi duten 16 urtetik gorako emakumeei zuzendutako jardunaldia izango da, eta antolatzaileek aurreratu dute izena emateko eskaera asko jasotzen badituzte Bergaran bizi direnek izango dutela lehenta-

sunak. Katu-oinak eramatea beharrezkoa izango da. Halaber, magnesioa ere eraman dezakete; hala egiteko eskatu diete.

Otsailaren 15ean egin zuten aurreneko saioa, eta martxoaren 1ean egingo dute bigarrena. Horren ostean, martxoan beste bi jardunaldi egiteko asmoa dute. Hala, aurreneko aldiaren parte hartu zutenek eta eskalataile berriek hartu dezakete parte. Izena eman daiteke Agorrosinen edo [labur.eus/g9XGX](http://labur.eus/g9XGX) webguneko galdetegia beteta.

## Gorlako Igoeraren 50. aldiak ibilbide berria izango du

Martxoaren 30ean jokatu da 50. Gorlako Igoera, eta 114,3 kilometro izango ditu, 2.175 metroko desnibelarekin. Hala, ibilbideari Asentzioko igoera gehitu diote Gorlako azken igoeraren aurretik. Antolatzaileen esanetan, horrek esizientzia fisikoa areagotu eta lasterketako dinamika taktikoak eraldatu egingo ditu: "Asentzioko igoera lasterketaren puntu gako bihurtuko da, eta eszenario zabalagoa eta selektiboagoa eratuko da; estrategiari joko handiagoa emango zaio eta tropelaren kontrol zorrotzagoa eskatuko du Gorlako azken igoera erabakigarriaren aurretik". Lehen kilometroetako zati lauak, berriz, murriztu egin dituzte.

## Lau partidu jokatu dira arratsaldean Udal Pilotalekuan

Bergarako pilotariek gaur jokatu dituzte Gipuzkoako Binakako Txapelketako partiduak, Udal Pilotalekuan, 19:15ean hasita. Infantiletan bi partidu jokatu dira: bata, Lazkaokoaren kontra, eta bestea, Aretxabalekokoaren aurka. Alebinek Azpeitia hartuko dute. Udaberri Binakako Txapelketako partida bat ere hartuko du frontoiak. Jokatu den azken norgehiagoka izango da, eta etxeko pilotariek Tolosa izango dute aurkari.

Era berean, domekan, goizeko hamarretan hasita, Reyes Sarioko pilota partiduak jokatu dituzte benjamin eta alebin mailako pilotariek, Udal Pilotalekuan, Boluan eta Osintxun.

# Txapa Irratia urteurrena ospatzeko gertu dago

Irratia herritarrei gerturatu nahi die Txapa Irratiak 40. urteurrenarekin, eta, hori ospatzeko, egitarau zabala antolatu dute; lehen hitzordua Aitor Escobarren kontzertua izango da, domekan, kartzela zaharrean, 12:00etan; Txapa Eguna martxoaren 29an egingo dute

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA

40 urte daramatza Txapa Irrati libreak uhinetan, eta urteurrena ospatzeko hainbat ekintza antolatu ditu. Aitor Escobarren kontzertuarekin emango zaio hasiera, domekan, 12:00etan, kartzela zaharrean, eta ondoren etorriko dira, besteak beste, Anari eta Juan Pablo Blacazar Trioren kontzertuak eta Mejillon Tigriren hitz-esana. Momentuz, maiatzera bitarteko egitaraua iragarri dute, baina azarora bitartean ospatuko dute urteurrena.

Txapa Irratiak urtero antolatu dituzten ekintzak, baina urteurrena baliatu nahi du 40 urteak eta urte horietan pasa diren ahots eta irratsaio guztiei balioa emateko. "Irratiari balioa emateaz gain, egitarau bat kaleratu dugu, oso modu naturalean, beti antolatzen baititugu kontuak. Aurten, urteurrenaren txapela jarri diogu eta gauza ezberdinak antolatu ditugu", azaldu du Txapa Irratiko kide Lander Juaristik, egitarauan jaso dituzten musika, literatura eta antzerki emanaldi nahiz jaiari erreferentzia eginda.

Andoni Larrañaga txapakideak gehitu du irratia "zertxobait gehiago" herrira gerturatzea dela helburua, "ohikoa den moduan", kultura presente dagoen eskaintzarekin: "Txapak historikoki musika eta beste adierazpen batzuk herrira gerturatu izan ditu, eta hori egiteko asmoa daukagu".

## Txapa Eguna martxoan

Ospatu dituzten beste urteurrenetan bezala, Txapa Irratiko egungo kide nahiz kide ohiekin bazkaria egingo dute, martxoaren 29an, Pertxa elkartearen. "Ziur aski, jende mordoak esango du: 'Nik egin nuen irratsaio bat...'. Bada, horiek aukera izango dute gerturatu eta momentu horiek oroitzeko. 40 urte hauetako aho-

## Maiatzera bitarteko egitaraua

### Otsailak 23

12:00 Aitor Escobarren kontzertua.

### Martxoak 9

19:00 Anariaren kontzertua.

### Martxoak 13

21:00 Mejillon Tigriren hitz-esana.

### Martxoak 21

22:00 Juan Pablo Blacazar Trioren kontzertua.

### Martxoak 29

Txapa Eguna.

### Apirilak 12

Erramu-zapatua.

### Maiatzak 11

Tailerra eta kontzertua.

tsak batu eta gure artean hitz egitea da asmoa", dio Juaristik.

Bazkarian parte hartu gura duenak izena eman dezake, *labur.eus/VrgLT* atarian edo Telegram bidez, 622 68 94 19 zenbakian.

## 40 urtez komunikatzen

Hasierako txapakideak herriko sindikatu batek utzitako lokalean hasi ziren emititzen, 1984an; eta 1989an, Udalarekin lortutako akordio baten ondoren, Zabalotegi dorre azpira pasatu ziren. Gaur egun, kartzela zaharretik emititzen dute, eta 40 urteen balorazio positiboa egin du Larrañagak: "Logika merkantilistatik kanpo dagoen dinamika baten funtzionatzen jarraitzea, berez, oso positiboa da. Dinamika asanblearioa da, autogestionatua".

Ateak zabalik utzi dizkiete herritarrei Txapa Irratian parte hartzeko: "Askotan, jendeak ez dauka aukerarik komunikabideetara joateko bere gaiari buruz berba egitera; hemen badago horretarako aukera. Irrati euskalduna gara, baina hizkuntza ez da oztopo bat edozeinek bere irratsaioa edo proiektua garatzeko".



Aitor Escobar, emanaldi batean. GOIENA

## 'Emakume baten borroka eta metamorfosia' Seminarixoan

Eneko Sagardoyk, Eva Tranconek eta Vito Rogasok taularatuko dute antzezlan, bihar, 20:00etan

**I.A.A. BERGARA**

Ttanttaka Teatroak *Emakume baten borroka eta metamorfosia* antzezlan estreinatuko du bihar, 20:00etan hasita, Seminarixoan. Eneko Sagardoy, Eva Tranconek eta Vito Rogaso dira antzezleak. Edouard Louis idazle eta intelektual frantsesak idatzitako eleberrian oinarritua, homosexualitatearen eta baliabide gutxiak eta indarkeria psikologikoz, sexualez edo fisikoz inguratutako familia batean bizitzearen mina du hizpide: "Ustekabean amaren gaztaroko autorretratu bat aurkitu ondoren, Edouard Louisek gogora ekarriko du baztertuta, menderatuta eta, are gehiago, gizonezkoek eragindako indarkeriak makurtuta bizi den eta 45 urterekin matxinatu, ihes egin eta pixkanaka bere askatasuna eraikiko duen emakume baten irudia. Gizarte patriarka-



Eneko Sagardoy. TTANTTAKA TEATROA

lak, familiarik eta baita semeak ere suntsitutako emakume baten metamorfosia. Emakume hori, gero, berriz elkartuko da semearekin eta hark, publikoki, duintasuna itzuliko dio". Sarrerak salgai daude, [www.seminarixoa.eus](http://www.seminarixoa.eus) webgunean, zortzi eurotan.

## Manual De Combate eta Calzados Deportivo egunean

*Oztoporik ez!*-ek antolatuta, otsailaren 27an, Manual De Combate eta Calzados Deportivo taldeek kontzertuak emango dituzte kartzela zaharrean, 20:00etan; sarrera zortzi euro da.

Manual De Combate Santiagon (Txile) DIY filosofiaren baitan sortutako baxu eta bateria bikotea da. Gaur egun, ordea, lau musikaririk osatzen dute taldea,

eta punk estiloan hain ohikoak ez diren instrumentuetan murgildu dira; hain zuzen ere, baxua, bateria, sintetizadorea eta zeharkako txirula. Calzados Deportivo, berriz, Santurtziko taldea da, eta "estiloa definitu gabe" duen talde moduan identifikatzen da, nahiz eta zenbaitek *sporty doomed postpunk* izendatu duten.

Halaber, *Oztoporik ez!*-ek hurrengo kontzertuak iragarri ditu; hala, martxoaren 5ean, Marauder eta Meison taldeen txanda izango da.

## Okinaren pinturak ezagutuko dituzte Umore Ona elkartearen

Miguel Okinaren jaiotzaren mendeurrenako ekitaldien baitan, Bergarako elkarteetan dauden artistaren pinturak ezagutzeko bisita gidatuak ari dira egiten, eta bihar, 11:00etan, Umore Ona elkartearen artelanak ezagutuko dituzte: Barrenkalea 36. Edukiera mugatua da, eta izena eman behar da 613 44 82 17 telefono-zenbakian.

## Aroztegiko 'Gernikak. Begiradak' bisitatze azken egunak

Xanti Arrieta artista bergararrak egindako *Gernikak. Begiradak* erakusketa domekara arte egongo da ikusgai, Aroztegi aretoan. Hamahiru komposizio osatu ditu, Picassoren *Gernika* zatikatuz eta gerretako irudiak eta euskalgintzako aurpegi ezagunen hitzak gehituz. Orduetgia: gaur, 18:00-20:30; bihar, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta etzi, 12:00-14:00.



Bardeara eginiko irteera, iazko maiatzaren 11n. ARGAZKIAK: ARROLA MENDIZALE ELKARTEA

# Hamahiru natura parke, ezagututa

Euskal Herriko natura parkeak ezagutzen aritu dira, urtebeteko epean, Arrola Mendizale Elkartearen eskutik; antzuolarrak ez ezik, bergararrak eta arrasatearrak ere izan dira irteeretan. Mendiaz bere osotasunean gozatzea izan dute asmoetako bat

## Amaia Ramirez de Okariz

### Kortabarría ANTZUOLA

Urkiola; Izki; Pagoeta; Errege Bardea; Holtzarte-Irunberri; Aiako Harria; Urbasa-Andia; Valderejo; Aralar; Bertiz; Aratz-Aizkorri; Armañon; eta azkenik, Gorbeia. Hamahiru irteera eta hamahiru natura parke, euskal lurak osotasunean hartuta. Batez beste, 21 pertsona irteera bakoitzean, eta hamarretik zazpi, emakumeak. Hori da, hain zuzen ere, Euskal Herriko natura parkeak ezagutzeko ekimenak utzi duen emaitza.

Herritar talde baten ekimenez, Arrola Mendizale Elkartearen izenean, orain dela urtebete eman zioten hasiera ekimenari; ideia-aren jatorria, halere, lehenagokoa da, Arrolaren 50. urteurrenaren harira 2022ko abenduan bailarako mendi elkarteen antolatutako mahai ingurukoa. "Denok

egiten genuen bat: krisi garaian geunden, trantsizioan. Mendi elkarteak garai bateko beharrei erantzuteko jaio ziren, baina gizartea aldatu den heinean euren filosofiak ere aldaketa bat behar du, etorkizuna ziurtatu dadin", azaldu dute Jabi Etxanizek eta Iñigo Ramirez de Okarizek, ekimenaren sustatzailetako bik. Debagoiena batzen duen Hartzaren Urratsa ibilbidea egiten aritu ziren ondoren, eta, bailarako herritarren artean sortutako talde giroa oinarri, Euskal Herriko natura parkeak ezagutzeko ekimena martxan

**BATEZ BESTE, 21 PERTSONA IZAN DIRA IRTEERA BAKOITZEAN; ETA HAMARRETIK ZAZPI, EMAKUMEAK**

jarri zuten: "Horrelako ingurune bat ezagutzeko bizitza osoa behar da, baina lehen kontaktu bat egin nahi genuen leku horiekin, guk ezagutzen genuen hori besteei erakutsi".

Iazko urtarrilaren 20an egin zuten lehen irteera, eta aurtengo otsailaren 8an azkenekoa. "Horren ezagunak ez diren ibilbideak egin ditugu, baina ofizialak eta markatutakoak; aldeztatik egiten genituen antolatzaileok, eta horrek sekulako segurtasuna ematen du. 18 kilometro inguru egiten genituen irteerako, sei ordukoak eta mila metro inguruko desnibelarekin".

### Inguruneaz gozatuz

Mendiaz gozatzeko ohiturak garai batetik "asko" aldatu dira, diote ekimenaren sustatzaileek, eta hori parte-hartzaileen adinean eta parte hartze-



Holtzarten, iazko ekainaren 8an.



Aratz-Aizkorri, abenduaren 14an.



Urkiolan, iazko urtarrilaren 20an; atzealdean, Anboto.

ko eran nabaritu egiten dela: "Egun, esaterako, gazte gutxi ikusten dira motxila hartu eta mendian ibiltzen, antxintxika aritzen direnak gehiago baitira". Horrez gain, uste dute "bakartia" izan ohi dela praktika hori, kolektibotasunik gabea. "Bada beste puntu bat ere: jendea mendira joaten denean ez da gai mendia kontenplatzeko, gelditzeko tarte bat hartu eta ingurunea identifikatzeko, hala nola zuhaitzak, txoriak eta mendiak; ariketa fisikotzat hartzen dute askok, joan-etorria egin eta listo". Bada, egite hori

**BIDE EZEZAGUNAK EZAGUTU DITUZTE, BAINA OFIZIALAK ETA MARKATUTAKOAK, AURREZ EGINDAKOAK**

"apurtzea" izan da euren asmoa: "Ariketa fisikoaz gain, ariketa mentala egitea ingurunearekin bat egiteko, hori galduta baitago egun; mendian ibiltzea eta hura dastatzea, inguruak dituen mezuak jasota".

### Aurrera begirakoak

"Eta orain zer?" da parte-hartzaileek sustatzaileei eginiko galderetako bat; izan ere, euren hitzetan, jendea animatuta dago irteera gehiago egiteko aurrerantz. Martxoan hartuko dute hausnarketarako momentu bat, gerora begirakoak zehazteko; argi dute, ordea, herritarrei egin nahi dietela tira, hasierako irteeran antzuolar dezente hartu arren parte, jaitsi egin baita kopurua bukaerarako, eta, horrenbestez, antzuolarrak baino gehiago dira bergararrak eta arrasatearrak.



# "Zalantzan jarri behar da energia-eredua"

**FERNANDO VALLADARES** ESPAINIAKO ZIENTZIA IKERKETE KONTSEILUKO IKERLARIA Torresoroan egindako hitzaldiaz gain, herri eskolako ikasleei biodibertsitatearen eta klima aldaketaren gaineko saioak eskaini dizkie, astean zehar, Valladaresetik

**Julen Murua Mesonero** ANTZUOLA

Urtebete baino gehiagoz ari da Meaka-Irimo plataforma bi mendi horien artean jarri nahi duten zentral eoliko bultza ekintza ugari antolatzen. Ibilbide horretan, ikaskuntza handitzeko asmoz antolatu dute Espainiako Zientzia Ikerketen Kontseiluko ikerlari Fernando Valladaresen (Madril, 1965) hitzaldia.

**Zer aurkeztu duzu hitzaldian?**

Nire asmoa ikertzaile bezala datu batzuk ematea da, baina, garai hauetan gertatzen ari denekin kezkatuta, debate ireki bat proposatzera nator. Ez da hitzaldi itxi bat, ezta ideia finko batzuk ere ekartzen ditudanak. Adibide gisa energia eta ura izango ditut; energia gai unibertuala da, eta arazoak dakarrena, eta berba izango dut ziurtzat jo dugun ereduak. Zalantzan jarriko dugu. Hau da, ziurtzat jo dugu ekonomiak dena bultzatu behar duela, eta gaixotasunak, arazo mentalak eta pertsona askoren bizitzan jasanezintasunak topatzen ditugu; horrek guztiorrek zalantzan jarri behar gaitu.

**Herrian bertan eragitea ere garrantzitsua da?**

Lehenengoz etorri naiz Antzuolara, eta nire helburua izan da arazo globaletan hain garrantzitsua den tokiko dimentsio hori txertatzea. Eskualde eta udalerrri bakoitzean modu ezberdin batean gertatzen da guztia, baina, askotan, beste leku batzuekin alderatuta badituzte antzekotasunak.

**Antzuolako errealitatea bat da, baina beste errealitate guztiek zer dute amankomunean?**

Ikusten ari gara da aldatu nahi dela eredu energetiko bat beste batengatik, funtsa aldatu gabe. Planteatzen dudana galdera da ea zenbat energia behar dugun; alde batetik, pertsonok behar dugun energia dago; eta, bestetik, sistema ekonomikoak



Valladares, Torresoroan egindako hitzaldiaren ostean. IMANOL BELOKI

## "ALDATU NAHI DA EREDU ENERGETIKO BAT BESTE BAT HARTUTA, FUNTSA ALDATU GABE"

behar duena. Sistema ekonomikoak inoiz ez du izango energia nahikoa; halere, jakina da pertsonen eguneko 75 GJ ingururekin ondo biziraun dezaketela. Bizi-estilo horrekin bizi-modu arrunta modu sostengarriaren eraman daiteke, eta ziurtatu daiteke hamarkadetan zehar ez direla ekosistemak modu konponezinean kaltetuko, ezta lurra, paisaia eta abar gehiegi kargatuko ere. Barneko pentsamoldea aldatzen ez badugu, hau da, energiari negozioa egitea, eta ez badugu zerbitzu energetikoa lehenetsi jartzen, ez badugu energia hornitzen pertsonok gure jarduerak egin ahal izateko, ez dugu arazoa konponduko. Klima aldaketa da erregai fosilak erantzukizun gabe erabiltzearen ondorio bat. Uste dut egoera zail hau aprobeztatu behar du-

gula hausnartzeko zer mundutan bizi nahi dugun, zer lehenetsun ezarri nahi ditugun gaur egun eta datozen belaunaldiari zer mundu utzi nahi diegun oinordetzan.

**Esango zenuke trantsizio horretarako aldaketa zorrotzak gertatu beharko lirakeela?**

Lehenik eta behin, benetan nahi badugu egoera honi buelta ematea, askoz garbiago hitz egin behar dugu. Zientziaren lengoaiari hala egiten dugu, baina, testuinguru horretan, zientzia aldagai bat besterik ez da; zientziaren hitza erreferentzia bat besterik ez da, eta uste dut badaudela interesatzen zaienaz soilik mintzatzen diren eta istorio guztia kontatzen ez duten politikariak eta industria-edo enpresa-taldeak. Horrek ez du eztabaidan laguntzen. Komunikabideek ere eginkizun garrantzitsua dute; izan ere, egiazko informazio oinarritutako demokrazia batean oinarritu behar dugu. Ariketa hori da garrantzitsuena. Egiazko informazio hori mahai gainean dagoenean, aldaketa asko saihestezinak direla ikusiko dugu.

## 'Pronoia' antzezlan, Valentziako clownei laguntza emateko

Umorean oinarritutako lana da; borondatearen truke ikusi ahalko da gaur, Torresoroan, 18:30ean

**J.M.M. ANTZUOLA**

Oihulari Klown konpainiak *Pronoia* antzezlan taularatuko du gaur, Torresoroan, 18:30ean hasita. Antzezlan horretan, Virginia Imazek clownak, umorean oinarrituta, berdintasunaren eta emakumearen aurkako biolentziaren gaiak lantzen ditu, besteak beste.

**Batutakoa, Valentziara**

Antzezlan ikusteko ez da sarerarik ordaindu behar; ez da derrigorrezkoa izango, behintzat. Izan ere, borondatearen truke

ikusi ahalko da lana, eta sarretatik batutakoa tanta hotzak Valentziaren eragindako kalteak jasan zituztenei bideratuko zaie. "Antzerkiaren gremioan lan egiten dutenei", Imazek adierazi duenez. "Oihulari Klown konpainian beti izan dugu sentibiltasun munduan gertatu diren ezbehar askorekiko. Valentziako gertutik bizi izan genuen, han clown asko daudelako, oso onak eta lagun minak asko. Halako hondamendi bati aurpegia jartzea zaila da; laguntza eskaini nahi diegu", dio Imazek.

## Zoru pelbikoaren gaineko ikastaroa Martxoaren 8an

Andramanuelak emakume taldeak, Antzuolako Udalarekin elkarlanean, zoru pelbikoaren eta diafragmaren inguruko ikastaroa antolatu du. Martxoaren 8an egingo da ikastaroa, 10:30ean hasita, Olanar etxean, eta Mariñe Etxaniz eta Olatz Abasolo izango dira saioaren gidariak. Ikastarora bertaratzeko plazak mugatuak dira; izena eman daiteke udalarekin edo liburutegian. Goizeko ekintza horrez gain, Martxoaren 8ko ohiko elkarretaratzea egingo dute, 19:00etan hasita. Martxoaren 8ko ekintzez gain, martxoaren 9an, 18:30ean hasita, Torresoroan, terapia-bakarrizketa egongo da, Lorena Arangoren eskutik; sarerak han salduko dituzte.

## OHARRAK

### Kontzertuak gaztetxean

Antzuolako 8 Miliak mendi lasterketaren baitan, Hauek taldeak eta DJ Maikiñok kontzertua joko dute zapatuan, gaztetxean, 22:00etan hasita.

### Aratuste-bazkaria

Martxoaren 1ean, 14:30ean, egingo da Inauterietako bazkaria. Izena emateko azken eguna otsailaren 24a izango da; txartelak salgai daude [entradium.com](http://entradium.com) plataforman.

### Landatxoeko festa

Martxoaren 4an (18:30) egingo da Landatxoeko Inauterietako festa. Izena eman ahalko da otsailaren 24an eta 25ean (16:30-18:00), Landatxopen.

MUJIKA  
HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

# Bi tronpa-jole profesional, Elgetan bizi izaten

Euskadiko Orkestrako musikaria da Adrian Garcia, eta Donostian egiten ditu entsegu gehienak. Estefania Beceiro, berriz, Bilbao Orkestra Sinfonikoko solista da, eta Bizkaiko hiriburua du lanleku nagusi. Orain bi urte, Elgeta aukeratu zuten bizileku

**Larraitx Zeberio Lekuona** ELGETA

2012an ezagutu zuten elkar, Bilbao Orkestra Sinfonikoan. Estefania Beceirok (Aspantes de Garcia Rodriguez-Coruña, 1986) aterata zeukan plaza, eta Adrian Garcia (Coruña, 1990) kolaborazioak egitera etorri zen. "Urte batzuetara, Euskadiko Orkestrarako entzunaldiak egiteko aukera sortu zitzaidan, eta plaza atera nuen", azaldu du Garciak.

Ez dira asko tronpa-jole profesionalak. "Estatu mailan 25 orkestra profesional daude eta bakoitzean lauzpabost tronpa-jole, gehienez", dio Beceirok. Emakumeak gero eta gehiago, baina oraindik ere gutxi. "Ni orkestran hasi nintzenezan hiru bat emakume izango ginen Estatu osoan. Zorionez, aldatzen doa hori", dio.

Gustuko dute egiten dutena, eta Elgetan aurkitu dute bien lantokiaren erdibidean dagoen bizilekua. Kokapenez gainera, herriaren tamainak erakarri ditu. "Ez genuen Elgeta ezagutzen, baina ni herri txiki batekoa naiz, eta horixe nahi nuen alabrendako", esan du Beceirok. "Hau da, nik bezala, umetako lagun kuadrilla izatea, eta sei-zazpi urterekin esatea: 'Ama, kale-ra noa lagunekin!'. Eta askatasun osoz ibiltzea". Bi urteko alaba dute: Carola.

"Alokairuan gaude Elgetan. Eskaintza irten zenean ikustera etorri ginen, eta gustatu egin zitzaigun. Probatzeko etorri ginen, eta bi urte daramagu. Oso gustura gaude, egia esan".

## Lanbide esijentea

Musikari profesionalak dira. Bizkaiko Foru Aldundiarena den Bilbao Orkestrako tronpa-jolea da Beceiro, eta, gainera, Donostian dagoen Musikene goi-eskolako irakaslea da. Antzinako Tronpa izeneko ikasgaia irakasten du. Garcia, berriz, Eusko Jaurlaritzarena den Euskadiko Orkestrako tronpa-jolea da. Entzunaldiak gairitu eta sei hilabeteko probaldia egin behar izan zuten biek. Beceirok 14 urte daramatza Bilbao Orkestran eta Garciak zazpi Euskadikoan.

"Gure kasuan, 86 lagun gara lantaldean. Kontzertuen denboraldia abuztu hasieran hasi eta ekainean amaitzen da. Astelehenetik barikura egiten dugu lan.

## "PROBATZEKO ETORRI GINEN ETA BI URTE DARAMAGU ELGETAN; OSO GUSTURA BIZI GARA HEMEN"

Astelehen, martitzen, eguazten eta eguen goizetan entseguak izaten ditugu, eguen arratsaldeetan eta barikuetan kontzertu bana eskaintzeko. Abonudenboraldiko kontzertu sinfonikoak izaten dira; 17 programa eta 34 kontzertu urtean". Horrez gain, ganbera musikako kontzertuak, Operaren Lagunen Bilboko Elkartarekin (ABAO) egiten dituzten operak eta familiendako kontzertu didaktikoak ere egiten dituzte. "Uda aldean herriz herri ibiltzen gara kontzertuak eskaintzen, hango eta hemengo jaiak direla eta", azaldu du Beceirok.

Antzerako lan-erritmoa du Garciak. "Gu 91 musikari gara. Abonatuak ditugu, baina EAEko hiru lurraldeetan eta Nafarroan egiten ditugu kontzertuak. Ganbera musika eta opera ere egiten ditugu; tartean, ABAO-rekin. Soinu-bandak grabatzen ditugu, Donostia Zinemaldian jotzen dugu eta askotariko kolaborazioak egiten ditugu".

Gogotsu daude martxoaren 7tik 9ra Bilbon egingo den Musika-Musica jaialdirako. Hiru egunez askotariko orkestrekin osatutako 70 kontzertu baino gehiago daude aurreikusita, eta 1.500 musikari inguruk hartuko dute parte.



Adrian Garcia eta Estefania Beceiro musikari profesionalak, etxeko egongelan. L.Z.L.

## Tronpa aukeratzeko arrazoiak

Garciaren familia musika tradizio handikoa da. "Nire aitona tronpa jotzen zuen, eta, gainera, musika kopiazailea zen. Aita, berriz, biolin-jotzaile profesionala izandakoa da, eta tronpa jotzen duen lehengusu bat daukat. Coruña hirian Pachote ezizenarekin ezagutzen gaituzte. Ez dakit ziur zein unetan esan nuen tronpa jo nahi nuela. Niri tronpeta gustatzen zitzaidan, baina egun batean tronpa hitza irten omen zen nire ahotik, eta aitak berehala jarri zidan tronpa-pita bat ahoan. Nonbait, desiratzen zegoen nik tronpa esateko. Familia honetan jaiota, musika izateko behar zuen", dio, irribarre handi batekin.

Beceiroren kasuan, aitona gogorrik datorkio musikarekiko zaletasuna. "Tronpeta eta biolina jotzen zituen, eta kontrabaxua, erdizka. Diru apur bat ateratzeko ekin zion, eta jairik jai ibiltzen zen banda batekin hasi zen. Herriko banda sortzen amaitu zuen", esan du. Banda hartan hasi zen txikitik Beceiro. "Ni ere tronpe-

tarekin hasi nintzen, baina tronpa-joleak falta zirela eta tronpeta kendu eta tronpa eman zidaten, eta ordutik ez dut utzi".

## Aholkuak musikari gazteei

Txundituta daude Euskal Herrian dagoen musikarekiko zaletasunarekin. "Euskadiko Orkestra izango da Madrilgoarekin batera abonatu gehien dituen orkestra Estatuan, eta Bilbokoa da hurrengoa", diote. Onartzen dute musikari profesionala izateko lan asko egin behar dela, eta ikasketak luzeak direla -gutxienez, 14 urte-. "Hala ere, animatzen ditugu familiak seme-alabak babestera. Askorendako, tamalez, hori oraindik ere irteera gutxiko lanbidea da".

Instituzioendako ere badute eskaera: kontserbatorio gehiago. "Debagoienean ez dago. Musika eskola mugimendu handia dago hemen, baina ez dira kontserbatorioak. Gu astean lau egunez joaten ginen kontserbatoriora. Talentu asko ari gara bidean galtzen".

# Elgeta eta Eibar arteko taxibus zerbitzuak geraleku berria du

Asteon jarri du markesina Udalak, eta udal biltegitik beherako aparkalekuak geralekurako dira orain

**L.Z.L.** ELGETA

"Taxibus zerbitzuak oso ondo funtzionatzen du Elgetan, eta erabiltzaile asko ditu", azaldu du Ibon Unzetabarrenetxea alkateak. Gaineratu du euritik babesten duen geralekua jartzea

aspaldiko eskaera zela. "Hainbat azterketa egin ondoren, lekuri onena erabaki eta markesina egokiena aukeratu genuen. Ipar-haizeak jotzen du bertan, eta berezitasuna da atzekoz aurrera dagoela jarrita markesina.

Bestela egongo balitz ez luke bere funtzioa beteko, eta jendea berdin bustiko zen", azaldu du.

Markesina jartzearekin batera, taxibusaren geralekua gertatzeko lanak egin dituzte udal brigadako langileek: espaloiarekin lotutako irisgarritasun-lanak eta taxibusarendako geralekuko margotze-lanak, besteak beste. Aurrerantzean, udal biltegitik beherako aparkalekuak taxibusarendako gordeta egongo dira. Lanen aurrekontua 4.835 eurokoa da.



Artekalen dagoen geralekua. L.Z.L.

# "Oinak zainduta, arazo asko saihesten dira"

**VIRGINIA FERRUSOLA** PODOLOGOA

Aurrerantzean, 23 urteko sevillar gazteak artatuko ditu elgetarrak hilean behin egiten den podologia kontsultan. Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatzen du zerbitzua

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Eskaera handia izan ohi da, eta, gehienetan, jendea gelditzen da itxarote-zerrendan. Martitzenean izan zen Virginia Ferrusola (Sevilla, 2001) herrian. Oso gustura etortzen dela dio.

**Nola heldu da Sevillako Paradas herriko neska gazte bat Elgetako podologia zerbitzua ematera?**

Nagusiagoa den anaia bat dut. Hura ere podologoa da, eta Bilbora etorri zen lanera. Sevillako unibertsitatean ikasketak amaitu nituenean esan zidan etortzeko, hemen bazegoela lana podologoendako. Eta horrela da. Eibarko klinika batean dihardut lanean. Orain arte, lankideak etorri izan dira Elgetara, eta aurrerantzean ni etorriko naiz. **Bigarren kontsulta izan da martitzenekoa; zer moduzko pazienteak dira elgetarrak?**

Egia esan, oso gustura etortzen naiz. Jende oso atsegina dago hemen. Euskaldunok baduzue oso sinpatikoak ez izateko fama, baina ez dut ulertzen zergatik. Gezurra da.

**Podologia kontuetara etorrita, ondo zaintzen ditugu oinak edo kasu gutxi egiten diegu?**

Gauzak aldatzen doaz, baina esango nuke, orokorrean, hobetu zaindu daitezkeela. Argi dugu guztiok garrantzitsua dela dentistarengana maiztasun jakin batekin joatea. Oinekin berdina gertatzen da, baina ez dugu hain barneratuta. Kasu gehienetan, arazoak sortzen direnean jotzen dugu kontsultara, eta oinak gorputzeko atal oso garrantzitsua dira. Ondo zainduta, arazo asko saihestu daitezke. Nire gomendioa da gutxienez urtean behin joatea kontsulta batera; batez ere, azterketa egitera. Sarri gertatzen zaigu paziente bat etortzea azazkala batean min duelako eta orduan konturatzea gu bestelako arazoak ere badituela. Adibidez, garatxoak edo zola batzuk behar izatea.



Virginia Ferrusola podologoa, Elgetan. JOSE ANTONIO OJANGUREN

## "OINETAKOETAN ZOLA ETA KONTRA-HORMA BIGUNEGIAK KALTEGARRIAK DIRA OINARENDAKO"

**Zeintzuk dira gehien egiten dituzuen tratamenduak?**

Zalantzarik gabe, kiropodiako tratamenduak dira ohikoenak: azazkalak moztea eta kailuak kentzea. Oinetarako zolak jartzea ere oso ohikoa da. Hori Eibarko klinikan egiten dugu.

**Zein eragin du adinak oinetan izan ditzakegun arazoetan?**

Adinean aurrera egin ahala, azala, azazkalak eta gorputza, orokorrean, gogortzen doaz. Elgetan artatu ditudan paziente gehienak adin batetik aurrerakoak dira, eta, normala denez, gehienek aurrez aipaturiko kiropodia tratamenduak eskatu dituzte. Kontsulta, baina, irekia da, eta edonork etor daiteke, aurrere txanda hartuta.

**Garatxoak aipatu dituzu lehen; arazo handia ematen dute?**

Oso ohikoak dira, eta, gehienetan, ez dute minik eragiten. Hasieran,

behintzat, ez. Ohikoena da askotan konturatu ere ez egitea garatxoak ditugula. Baina garatxoak papilomak dira eta birus batek eragiten ditu, eta, gainera, kutsakorrak dira. Garrantzitsua da lehenbailehen tratatzea.

**Eta oinetakoei buruz zein gomendio emango zenituzke? Nolakoak lehenetsi behar ditugu?**

Egokienak kirol-zapatila estilokoak dira, eta garrantzitsua da kontra-horma ona edukitzea. Kontra-horma da orpoa inguratzen duen oinetakoaren zatia, eta oso garrantzitsua da. Bigunegia izatea kaltegarria izan daiteke. Beste ideia okerra da zola zenbat eta bigunagoa izan orduan eta hobea dela. Ez da horrela. Zolak ere irmotasun bat eduki behar du. Malguak izan behar dute, baina ez bigunak.

**Umeek ere joan beharko lukete podologoarengana?**

Etortzen dira, eta, gehien-gehienetan, izaten da garatxoak kentzera, baina uste dut egokia litzatekeela urtero azterketa egitea. Txikitan antzemandako arazoekin gertatzen da lehenago hartzen direla neurriak eta etorkizuneko arazo larriagoak saihestu daitezkeela.



Koko-mozorroren prestaketan diharduen lantaldeko zenbait kide. L.Z.L.

## Gutxienez, sei mozorro berri izango ditu bihar kokoen taldeak

Jostun lanetan aritu dira hainbat lagun asteotan, eta nobedadeekin dator 09:00etan abiatuko den konpartsa

**L.Z.L.** ELGETA

Iratxe Bravo, Nerea Villa, Arantxa Arrastia, Sonia Miranda eta argazkian falta diren Kepa de Vega eta Mireia Berriozabal aritu dira aurten jostun lanetan. "Koko-batzeak laugarren urtea du aurten. Lehen bietan bereziki lanpetuta ibili ginen; dena zegoen egiteko. Aurten, hartz txikia sortzea zen erronka nagusia, baina saltsa hauek gustuko ditugu, eta, azkenean, beste bost mozorro berri ere irten dira: Udaberria, Udazkena, Belea, Mirotsa eta Zuhaitza. Hartz txikia, berriz, oso polita da", azaldu du Villak.

Masustek osatzen dute kokoen multzo nagusia. "Etxean dagoenarekin edonork prestatu dezakeen koko-jantzia da. Behar dira kolore bizidun jantziak, txapela prestatzea eta aurpegia estaltzea. Hortik aurrera, dena libre!", esan du Bravok.

**Azken entsegua gaur**

Goibekok antolatzen du koko-batzea, eta gaurko deitu du azken entsegua, 19:30ean, gimnasioan. Azken zalantzak argitu eta dantzak zein koplak erreparatuko dituzte. Hartza bihar esnatuko da, plaza barranean, 09:00etan, eta konpartsa Urrejalei baserrian, Ubera auzoan (10:15), San Antonio, Galarragaetxetxon eta Zabaleta auzoan (13:30) izango da bazkaldu aurretik. Hartz txikia 18:00etan esnatuko da eta Ustekabe txarangarekin kalejiran egingo du Salbador gainerrainoko bidea. Bertan elkartuko da Zalbide etxetik datorren hartz handiarekin zein kokoen konpartsa guztiarekin. Plazara joango dira, azken dantza eta kantu saioa egiteko. "Animatzen ditugu herritarrak iluntzeko saio horretan parte hartzera, baita herriko balkoiak eta leihoak apaintzera ere", esan dute.

## OHARRAK

### Bisita gidatua lubakietara

Datozen bi domeketan egingo dira bisita gidatuak, 10:00etan. Ezinbestekoa da aurrez izena ematea: 943 79 64 63 edo [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus).

### Baserrietako plastikoen bilketa martitzenean

Arratsaldean emango du zerbitzua Deba Garaia Landa Garapenak. Deitu egin behar da zerbitzua eskatu eta bilketa-lekua adosteko: 943 76 25 47.

### Astrotopaketa eguaztenean liburutegian

Ilartegi elkartearen eskutik, Astrotopaketa saioa izango da hilaren 26an, 18:30ean. Gaia: eguzki-erlojuak.



Joan den urteko Oñatiko Inauteri txikiko ospakizunaren amaiera, plazan. GOIENA

## Inauteri txikiak emango dio bide handiari

Eguenean ospatuko da Oñatiko Inauteri txikia eta zapatuan izango da egun osoko festa handia. Aurtengo berritasun nagusia, baina, Kantabriako maskaradak ezagutzeko antolatu duten hitzaldia izango da: Silio herriko hiruzpalau lagun datoz

### Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Astebete orduko hasita egongo dira aurtengo Aratusteak Oñatin, aurten ere Oñatiko Inauteri txikiak emango diolako hasiera jantziek pisu handia hartzen duten jaiari. Eta datorren egunean, 27an, da egun hori.

### Olaitturririk plazara

Oñatiko Inauterietako ohiko koloretako arropak jantzita elkartuko dira Olaitturrin herriko Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetakoko ikasleak. Hiru ikastetxeek batera hartzen duten ospakizuna izaten da, baina aurten hezkuntza publikoko irakasleen greba dago deituta egun horretarako eta horrek baldintzatu egin dezake herri eskolako ikasleen partaidetza. Hitzordua, baina, 15:00etan dute, hilaren 27an, Olaitturrin, eta, erdiguneko kaleak zeharkatu ostean, plazara helduko dira, 16:15 aldera, ekitaldiaren amaierarako. Inauterietako arroparekin aterako dira ikasleak,

eta ikastetxeetako irakasleek zein Oñatiko Inauterietako lantaldeko lagunek beteko dituzte kondearen eta kondesaren paperak zein hartzarena eta zain-tzailearena.

Zapatuko, martxoak 1, Inauteri handiko prestaketak, bestalde, aurrera doaz. 300 bat lagun aterako dira kalera egun horretan: 28 musikari, 51 pertsonaia eta 220 bat dantzari. Goizean zein arratsaldean ibiliko dira kalez kale dantzan, bazkaltzeko atsedean hartuta, eta iluntzean emango diote amaiera egunari, plazan. Oñatz dantza taldeko dantzariak, bestalde, Bolant dantzak egingo dituzte, ohitura duten moduan, Aratusteetako domekan.

**HEMENGO JOALDUNEN ANTZA DUTE KANTABRIAKO ZARRAMANKOEK, ADIBIDEZ**

### Kantabriako maskaradak

Egubakoitzean izango da, baina, aurtengo Inauterietako egutegiak jasotzen duen berritasun nagusia: Kantabriako Silio herriko hiruzpalau lagun etorriko dira euren maskaradei buruz berba egitera. "La Vinajera du izena euren jaiak, urteko lehen domekan ospatzen dute eta ondare immaterial izendatuta dago. Sorkuntza bai, baina beste herri batzuetako ohiturekin antzekotasunak badaudela ikusiko dugu hitzaldi horretan", dio Oñatiko Inauteriak taldeko Arkaitz Bengoak. Santa Anan izango da hitzaldi hori, 28an, 19:00etan.

Eta bitartean, herriko ikastetxeetan zein etxe askotan moztarok prestatzen ere ibiliko dira herritarrek, Oñatiko Inauteriak taldeak eta Oñatz dantza taldeek Aratusteetako hasiera iragartzen duten moduan, Inauteriak ospatzeko ohiko ekitaldiak egongo direlako aurten ere, umeendako ikuskizuna eta txokolata barne.

## Bi hilabete iraungo dute disuasioko aparkalekuko lanek

Aste honetan hasi dituzte obrak, eta, bukatu bitartean, anbulatorio goiko aparkalekua mugatua izango da

### O.E.G. OÑATI

Zubikoa kiroldegaren atzealdeko eta saihebidetaren arteko eremuan egongo da disuasioko aparkalekua laster. Aste honetan hasi dituzte obrak eta hilabete pare bat iraungo dute. Bitarte horretan, eta obretako kamioien sartu-irteerarako, kendu egingo dituzte anbulatorioko goiko aparkalekuan dauden hainbat plaza, mugatu egingo dute. Izan ere, parking horren luzapena izango da disuasioko aparkalekua, eta hori zeharkatuko dute obrako ibilgailuek. 26 aparkaleku kenduko dituzte eta libre geldituko diren besteak, 20, desgaitasuna dutenek eta osasun zentroko zerbitzuetako langileek erabili ahal izango dituzte. Martitzenean jarri zituzten obren jakinarazpen-oharrak aparkalekuan, eta eguaztenean ziren lanekin hastekoak.

### Monitorizatuta egongo da

Guztira, hamasei bat ibilgailu-errendako tokia egongo da aparkaleku horretan, eta autoa nahi beste denboran uzteko aukera. Herrira datozen bisitarien ibilgailuak herrigunetik ateratzea da aparkaleku berri horren helburua. Europako Next Generation Funtsetik 200.000 euroko laguntza jaso zuen Udalak proiektua egiteko, eta funts horrek eskatzen dituen baldintzak bete beharko ditu lanen lizitazioa hartzen duen enpresak.

Aparkalekuan argiteria jarriko dute, baita ibilgailu elektrikoendako gunea ere. Gainera, monitorizatuta egotea da asmoa; hau da, pantaila baten bitartez adieraztea aparkaleku horretan autoa uzteko tokia dagoen edo ez. San Juan kaleko biribilgunean jarriko den panelean islatuko da informazio hori; semaforo bat izango du pantailak.



Osasun zentroaren goialdeko aparkalekua. OÑATI IRRATIA

## Hika ikastaroa egingo dute euskaltegian, martxoan hasita

Hika ikastaroa egingo dute udal euskaltegian, *Bildur barik hika* lelopean. Martxoaren 3tik maiatzaren 12ra izango da, Euskaraldia hasi bezperara arte. Hemezortzi ordukoa, astelehenetan izango dira eskolak, 18:00etatik 20:00etara. Doan izango da, "herritarrei hika ikasteko eta praktikatzeko erraztasunak" eman nahi dizkietelako, Oñati-

ko Udaleko Euskara Saileko arduradunek azaldu dutenez.

Zerbitzu horrek antolatu du ikastaroa, *Ingo Xonau!* egitas-moko eta udal euskaltegiko kideekin elkarlanean, eta, aurrekoetan moduan, Beatriz Irizar izango da irakaslea. Mistoa izango da eta toka eta noka, biak, ikasteko aukera egongo da, jolasen bidez eta oso modu praktikoan. Izena emateko azken eguna otsailaren 28a da; euskaltegian edo udal webgunean sartuta egin daiteke.

# "Makillatzaile-begiekin ikusten dut dena"

**NAIARA OLALDE TOME MAKILLATZAILEA**

Euskal Telebista gaur emititzen hasiko den 'Irabazi arte' telesaileko makillatzaile taldean aritu da lanean oñatiarra. Hainbat filmetan ere ibili da

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Isabel Croixet eta Borja Cobeaga zuzendarien filmetan, Potx eta Lotx pailazoen ikuskizunetan eta Goienako Danbaka musika lehiaketako finalean ibili da, besteak beste, makillatzaile lanak egiten Naiara Olalde Tome (Oñati, 1978). Baita *Desagertuta* eta ikusle gaztetxo askok jarraitzen duten *Irabazi arte* telesailetan ere.

**Zuk ere ikusiko duzu telesaila?**


Bai, noski. Ikusten ditut lanean ibili naizen filmak zein telesailak, baita beste asko ere; gustatzen zait. Hori bai, makillatzaile-begiekin ikusten ditut, gehienetan: aldaketarik duten aurreko eszena edo kapitulutik, zelan orraztuta dauden...

**Nolakoa izan da *Irabazi arte* telesailean egindako lana?**

Normalean, makillatze-arduradun batek, beste bi makillatzailek eta ile-apaintzaile batek osatzen dute grabazioetako talde egonkorra, eta, lanaren arabera, aktore asko dauden ataletarako, adibidez, errefortzuak eskatzen dira. Aurreko denboraldian horrela ibili nintzen ni, baina hirugarrenean talde egonkorrean egon naiz, Miren Eskisabel arduradun dela, Eider Rodriguez ile-apaintzailearekin ea Mainer Etxeberria eta Leire Ruiz makillatzaileekin batera. Oso gustura ibili naiz. Egia da gaztetxoak direla protagonistak, naturalak eta garai honetakoak. Alde horretatik, ez dute aparteko lanik eskatzen, baina kontuan izan behar da grabazioak udan, uztailean eta abuztuan, egin genituela, negua irudikatuz; telebistan neguko arropekin agertuko dira, eta beroa, izerdia... zaindu beharra izan dugu, bai.

**Grabazio-ordu guztietan egon zara?**

Bai. Goizean egoten da lan gehien, aktore guztiak elkartzen direlako. Grabazioak egin ahalaz eta bakoitzak bere lana bukatu ahalaz bat joan egiten dira, baina guk pantailen bitartez jarraitzen



Naiara Olalde Tome oñatiarra. N.O.

## "PUBLIZITATEAN ETA MODAN ARITU NAIZ BARTZELONAN, ETA ZINEMAN NABIL HONA ETORRITA"

ditugu eszena guztietako grabazioak, eta orrazkera edo makillajea hondatu bazaio aktoreren bati, eten egiten dugu grabazioa eta beharrezko konponketak egiten ditugu, grabatzen jarraitzeko; kendu ere geuk kentzen diegu. Lokalizazioka egiten dugu lan; hau da, futbol zelaiko eszena guztiak jarraian grabatzen ditugu, eskola barrukoak ere jarraian, eta berdin aldagelako grabazioak ere, adibidez.

**Noiz hasi zinen lan horretan?**

Duela zortzi urte. Bartzelonan hasi nintzen. Han publizitatea eta moda egiten dira, gehienbat; nik zinema egin gura nuen, eta duela hiru bat urte etorri nintzen hona. Oraindik denbora gutxi da, baina oso pozik nago orain arte egindakoarekin. Adibidez, makillatze-lanak egiten ibili naiz *Un amor* –Isabel Coixet–, *Los aitas* –Borja Cobeaga– eta

*Cuerpo escombros* –Curro Velázquez– filmetan. Baita *Desagertuta* telesailean ere. Potx eta Lotx pailazoekin ere egin ditut lan batzuk... Askotan, bizpahiru eguneko lanak izaten dira, baina pozik nago, hasiera da-eta hau. Zuzendariak erabakitzen du pertsonaiek nolakoak izan behar duten, eta horrelako bihurtzen ditugu guk. Bitxikeria moduan, *20.000 especies de abejas* filmean ez dago makillajerik, azala kremen eta eta masajeen bidez landu zuten, zuzendariak naturaltasuna erakutsi gura zuelako.

**Marco-k irabazi du makillaje eta ile-apaintzaile onenaren Goya saria; ikusi duzu?**

Oraindik ez, baina ezagutzen ditut Karmele Solerren eta Naxo Diazen lanak; oso onak dira. **Inauteriak datoz laster; gustuko sasoia duzu?**

Ez zaizkit bereziki gustatzen Inauteriak, ez. Inoiz mozturatu dut lagunen bat, ez ezagutzeko moduan. Hala ere, makillaje artistikoak egiten ditut, gorpuztak margotzen ere ikasi dut, baina maskaren teknika oraindik ez.

**Zer dago orain moda makillajearen?** Aurpegi distiratsuak izatea.



NIRE USTEZ

JONMIKEL INTSAUSTI

## 'The clever'

Filosofian ematen zaion definizio batean hala lotzen da indibidualismoa: norbanakoa kontzientzia kolektibotik eratorritako arau eta balioetatik gero eta gehiago askatzen den prozesua, non norbanakoa balio zentrala den eta autonomo bihurtzen den arau kolektiboekiko, besteek ezarritako arauetik.

Indibidualismoak badu alderdi positiboa, askatzeko modu bat baita, baina arriskuak ere ekar ditzake, gizarte-kohesiorako eta demokratizarako –non tirania leunean norbanakoa zaintzen den; ez, ordea, hiritarra (gertatzen ari da)–. Gizarte-mugimenduen akabera ekar lezake, baita norbanakoari ere arazo psikologikoak sortu –norbera da soilik ororen erantzule, eta horrek karga psikologiko handia eta damua ekar ditzake–.

Goizero lanerako bidean auto andana pilotzen da Epeleko zuzenbideko eskumako erreian Gatzagarantz, biribilgunean gero erre bakarrean ordenan sartzearen. Badira orduan auto guztiak ezkerretik aurreratzen dituztenak. *The clever* deitzen zituen lankide batek. Indibidualistak, bai. Zu zara horietako bat?

## Saharari keinu egingo dion festa antolatu dute arratsalderako

Oporrak Bakean elkarrekin antolatuta, Saharari keinua egingo dion festa egingo dute gaur, egubakoitza, arratsaldean, herriko plazan.

Festa 16:30ean hasiko da, eta henna egiteko eta aurpegiak margotzeko tailerrak egingo dituzte, besteak beste; baita txikiak jarraitzeko moduko zumba saioa ere. Horrez gain,

Atzeko kaleko txorimaloak aterako dituzte kalera, tea banatuko dute eta musika ere izango da.

Udan bi hilabetez ume errefuxiatu sahararrak familia euskaldun baten etxera etortzeko programa da Oporrak Bakean, desertuko berotik ihes egin eta behar duten arreta medikoa jaso dezaten, besteak beste. Datorren martxoaren 15era arte dago zabalik epea programa horretan izena emateko: [onatiharrera@gmail.com](mailto:onatiharrera@gmail.com).

## Gorka Torre eta Intza Gurrutxaga etorriko dira eguaztenean

Euskal Herrian Euskaraz taldeko Gorka Torre eta Intza Gurrutxaga izango dira datorren astean Oñatin; bertako Aixotu taldeak antolatutako hitzaldian parte hartuko dute. Bi lagunak apirilaren 11n epaituko dituzte, Baionako justizia auzitegiko paretan abenduaren 3an *Justizia euskararentzat* idaztearen. Hain zuzen ere, Euskal Herrian Euskaraz taldeak manifestazioa du deituta apirilaren 6rako Baionan, *justizia euskararentzat* lelopean, eta manifestazio horretaz, desobediencia jarrereaz eta euskararen egungo egoeraz egingo dute berba hitzaldi horretan. Otsailaren 26an izango da, gaztetxean, 18:30ean.

## OHARRAK

### Odola emateko eguna

Gaur, egubakoitza, egingo dute hileko odol-ateratzea. Txanda hartu behar da aurrez: 943 00 78 84.

### Antzezlan solidariora

Ikusi Makusi taldeak *Zenbat urte dako amamak?* antzezlan egingo du zapatuan, 19:00etan, Santa Ana antzokian. Hotz Oñatirendako izango da batuko duten dirua. Sarrera: bost euro.

### Plastikoen bilketa

Martitzena, hilak 25, da baserri inguruetako plastikoen ateratzeko eguna. Debagoieneko Landa Garapen Elkarrekin egingo du bilketa hori herriko ohiko puntuetan.



Gaztetxoak, joan den urtean Mojategin egindako futbol inklusiboko topaketan. GOIENA

# Futbol inklusiboak Azkoagain hartuko du etzi

Gipuzkoako Futbol Federazioak antolatuta eta Aloña Mendi kirol elkartearen laguntzarekin, infantil mailako entrenamendu bat egingo dute domeka goizean Azkoagainen. LH-5 eta DBH-2 arteko edozein gaztetxok har dezake parte

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Gipuzkoako Futbol Federazioak bultzatuta, duela hiru bat urte hasi ziren kirol egokitu eta inklusiboko futbol topaketak egiten lurraldean zehar. Hilabete behin egiten dute, gutxi gorabehera, eta 38.a egingo dute Oñatin. Domekan izango da, 11:30ean, Azkoagainen.

## 'Hirugarren zatia' ere bai

Infantil mailako entrenamendu bat egingo dute, berotze-arietak egin ostean, eta amaieran, errugbian egiten duten *hirugarren zatia* egiteko ohitura eramango dute futbol zelaira: jolasak eta mokadutxoak izango dituzte.

Josu Zubia da Gipuzkoako Futbol Federazioko kirol-zuzendaria, eta, hark azaldutakoaren arabera, desgaitasunen bat duten haurrek eta gazteek ere futboleko jokatzeko izan behar dituzten aukerak dira topaketa horiek: "Egunerokotasunean, haur eta gazte horiek ez daukate aukera handirik besteek be-

zala futboleko jokatzeko. Irunen badago talde bat, baina horrelako gehiago sortzea da erronka. Entrenatzaileak edo prestatzaileak formatu beharra ere bada horrek, eta, oraindik, ez da herri gehiagotan sortu. Bitartean, topaketa horien helburua hori da, desgaitasunen bat duten gaztetxoek ere futboleko jokatzeko. Bestetik, Gipuzkoako futbol elkarteekin elkarlanean antolatzen ditugu, inklusiboak izan daitezkeen saioak". Horixe gertatuko da Oñatin ere. Aloña Mendi kirol elkarteak hamabi bat entrenatzaile edo elkarteak kide izango dira domekan Azkoagainen entrenamendu hori gidatzen. "Gipuzkoa osotik etorriko diren gaztetxo horien ezaugarriak

**INFANTIL MAILAKO ENTRENAMENDUA EGINGO DUTE; BAITA JOLASAK ERE AMAIERAN**

azaldu dizkigute Federazioko kideek, eta aholkatu digute gaztetxoekin esperientzia duten entrenatzaileak izatea domekako topaketan parte hartuko dutenak. Horretan saiatu gara. Dozena bat egongo gara saioa gidatzen, Federaziotik etorriko diren beste hiruzpalau ardura-dunekin batera", dio Jabi Agirrek.

## Infantil mailako entrenamendua

Aloña Mendiko infantil handi taldeak egin ohi duen entrenamendu bat egingo dute domekako topaketa horretan, eta, kirol elkarteak jokalariez gain, Lehen Hezkuntzako bosgarren mailatik Bigarren Hezkuntzako bigarren mailara arteko gaztetxoek hartu ahal izango dute parte. Ikastetxeekin harremanetan jarrita zabaldu dute informazioa gaztetxoek izena eman dezaten. Zenbatek parte hartuko duten ez dakite oraindik, baina haiei gehituko zaizkie Federaziotik etorriko diren 8 urtetik gorako beste 25 bat jokalaririk.

## Atutxak eta Otañok Oñatin lor dezakete finalerako txartela

Urrezko Aizkoraren finalerdia jokatu dute domekan, 12:00etan, plazan; eserlekuak jarriko dituzte

### O.E.G. OÑATI

Domekan, hilak, 23, Urrezko Aizkorako finalerdia jokatu dute, herriko plazan, 12:00etan.

Herri kirolen erakustaldia ez ezik, hainbat txapelketarako kanporaketak egongo dira jokoan domeka eguerdiko probaldietan. Binakako Urrezko Aizkorako txapelketako finalerdia izango da, esaterako, horietako bat: Julen Alberdi eta Jon Rekondo, batetik, eta Aitzol Atutxa eta Eneko Otaño, bestetik. Elkarren aurka lehiatuko dira bi bikote horiek eta irabazlea martxoaren 16an Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan izango den finalerako sailkatuko da.

Banakako txapelketan, berriz, hiruko bi multzotan lehiatuko dira aizkolariak, eta bakoitzeko onena pasako da finalera. Karmele Gisasola, Malen Barrenetxea eta Nerea Sorondo izango dira multzo batean eta

Uxue Ansotegi, Oihana Fernandez de Barrena eta Oñatin bizi den Irati Astondoa bestean. Gainera, 19 eta 23 urtez azpiko txapelketako probak ere egongo dira; lau aizkolari kategorია bakoitzean.

### Harri-jasotzaileak ere bai

Plazan bertan, aizkolarien saioaren ondoren, harri-jasotzaileak lehiatuko dira: Zihara Zabala, Estefi Etxebeste eta Ane Cestau, batetik; eta, bestetik, Beñat Telleria eta Oskar Aguas harri txikiekin eta Goenatxo III.ena harri handiekin.

### Eserita ikusi ahal izango dira

Probaldiak zuzenean emango ditu Euskal Telebistak, 12:00etatik 14:30era. Aurten, gainera, eserlekuak jarriko dituzte plazan bertan, ikusleendako. Eguraldi txarra egiten badu, kiroldegiko frontoian izango da.



Joan den urteko finalerdian. GOIENA

## Domekan egingo dute herriko ehiza txapelketa, Araban

Zanbranako (Araba) Santa Cruz del Fierroko Txoriarte barrutian egingo dute domekan, hilak 23, aurtengo Oñatiko ehiztarien txapelketa, Pago Uso ehiza eta arrantza elkarrekin antolatuta. Txapelketa amaitutakoan, bazkaria egingo dute Pago Uson bertan, Oñatin. Joan den urtean, Jose Inazio Leibar izan zen txapelduna, bederatzi eperrekin.

## Tartea handitzen saiatuko da areto futboleko taldea

Lehen postuan jarraitzen du saillkapen nagusian Aloña Mendi taldeko areto futboleko talde gorenak, eta bigarren postutik duen zazpi puntuko alde handitzen saiatuko da asteburuan duen partiduan. Euskalduna taldearen aurka jokatu du, Zubikoan, zapatuan, 18:00etan. Azken lau partiduetan irabazi egin ditu aurkariak.

# Eszenatoki gainean da berriro ere Sukena

Sei hilabeteko geldialdiaren ostean, Durangoko 40 Minutu Rock jaialdian itzuli ziren oñatiarrak eszenatokietara. Beste bost kontzertu ere iragarri dituzte, martxoan eta apirilean izango direnak. Kontzertuez gain, sormen-lanean murgilduta daude

## Gontzal Belategi Zubia OÑATI

Euskal Herri osoan hainbat kontzertu jo ostean, uztailean geldialdia egin zuten Sukenako kideek. "Taldearen egoeraren ondorioz" hartutako erabakia izan zela azaldu du taldeko partaide Eider Herraizek, taldeki-de batek kanpora joan behar zuelako eta bestelako lanak ziztuztelako. Denbora honetan eszenatokietatik aldentuta egon diren arren, etengabe lanean egon direla esan du Herraizek: "Ez gara geldirik egon; lanean jarraitu dugu, entseguak eginaz, erabakiak hartuz eta bilerak eginaz".

Egindako lan horren guztiorren fruituak urtarrean argitaratutako *Ahots hura* abestian eta haren bideoklipetan geratu ziren ikusgai: "*Ahots hura* bideokliparen inguruan jasotako erantzunarekin benetan oso pozik gaude. Grabaketa egunetan egon ziren momentu intentsuek lanaren garrantzia eta dedikazioa areagotzen zuten".

## Bira berria

Aurreko astean eman zuten amaitutzat geldialdia, eta uztaile ezkerko lehenengoz igo ziren oholtza gainera, Durangon ospatu zen 40 Minutu Rock jaialdian. Itzulerrako gogotsu zeudela aitortu du Sukenako kideak: "Azken hilabeteetan itzulera hura prestatzen aritu gara".

Bira berriko lehen kontzertua izan zen Durangokoa, baina beste bost kontzertu izango dituzte martxoan eta apirilean: martxoaren 6an, Gasteizen; 7an, Donostian; 13an, Arrasaten; apirilaren 4an, Bilbon; eta 13an, Berriozarren. Kontzertuak testuinguru oso ezberdinetan joko dituztela jakitun, taldea askotariko publikoetara moldatu daitekeela aipatu

## BOST KONTZERTU DITUZTE MARTXOAN ETA APIRILEAN; LEHENA MARTXOAREN 6AN GASTEIZEN

du Herraizek: "Sukena toki eta publiko ezberdinetara egokitze modukoa da, haren musikak aniztasuna eta hurbiltasuna uztartzen dituelako".

## Etorkizunera begira jarrita

Oraina bizitzeaz gain, etorkizunera begira ere badaude taldekideak: "Gaur egun, sorkuntza prozesuan murgilduta gaude". Disko bat ateratzea dute buruan, baina horrek eskatzen duen aurretiazko lanean murgilduta daude: "Disko berri bat ateratzea gustatuko litzaiguke, baina, horretarako, gauza berriak probatzen eta esperimendatzen ari gara, eta, aldi berean, guretzat egokien den bidea aurkitzen saiatzen".

## Giro ona nagusi

Taldekideen arteko giroa nabarmendu du Herraizek: "Azken hilabeteak intentsuak izan dira, entsegu-ordu ugari eta urduritasuna tarteko. Hala ere, taldeko giroa bikaina izan da".



Itzulera antzezlako aktoreak. DEJABU KONPAINIA

## Antzerkia eta zinema elkarrekin emanaldi "errepikaezin" batean

'Itzulera' izeneko antzezlana egingo du Dejabu Konpainiak domekan, 19:00etan, Santa Ana antzokian

## G.B.Z. OÑATI

Dejabu Konpainiaren eskutik, *Itzulera* antzezlana egongo da ikusgai domekan, 19:00etan, Santa Ana antzokian. Sarrerak *Onatitkultura* atarian daude eskuragarri, 10 eurotan.

Esperientzia "errepikaezin" gisa deskribatzen du konpainiak *Itzulera* antzezlana, eta Urko Redondo aktoreak baieztatu egin du hori: "Arte bizi guztiak dira errepikaezinak, eta publikoak egiten du hori posible. Kasu honetan, guk apustu bat ere egin dugu, zerbait berezia sortu nahian, publikoak are

eta parte-hartze handiagoa izan dezan, hain zuzen".

## Zinema eta antzerkia

Konpainia bateko hiru kideek dokumental bat grabatzeko asmotan Mexikora eginiko bidaiak kontatzen du antzezlana. Erreal-ki zinetatik ere badu antzezlana, David Aguilar zinemagileari esker: "Gogoia genuen antzezlana berri bideogintza txertatzeko, baina modu sakon. David lagun min dugu, eta, ikerketa askoren ostean, antzerkia eta zuzeneko zinema-gintza uztartzen ibili gara".

## Txotxongiloak, Antixeneko gaztetxea hartzeko prest

Ostomila Txotxongilo taldeak 'Alaia Galtzagorria mitoen bidaiari' ikuskizuna egingo du domekan

## G.B.Z. OÑATI

Burrunda Faktoriak antolatuta, *Alaia Galtzagorria mitoen bidaiari* ikuskizuna egingo du Ostomila Txotxongilo taldeak domekan, Antixeneko gaztetxean, 17:00etan hasita.

Hurrei bideratutako ikuskizuna izango da emanaldia, non Alaia Galtzagorria Txerrentxu deabrutxoak lapurtutako altxorra berreskuratu beharko duen, publikoaren laguntzarekin, Euskal Herriko mitoetan barrena bidaiatuta. Burrundako kide Eneko Ibabe garrantzitsutzat

jotzen du hurrei ere eskaintza kulturala zabaltzea: "Haurren-dako gauzak antolatzea garrantzitsua dela uste dugu, haiei kultura gerturatu ahal izateko; bereziki, euskal kultura eta euskaraz denean".

Astean jarri dituzte azken hamar sarrerak Mizke gozoki-dendan salgai, eta denak saltzea espero dute antolatzaileek. Pozik daude herriak egindako harre-arekin: "Oso pozik gaude, eta hurrengo denboraldira begira haurren-dako eskaintza berri bat eskaintzeko prest gaude".



Sukena osatzen duten sei taldekideak. MAGU

Ibai Larrea (Antzuola, 2002) eta Aimar Larrea (Antzuola, 2000) Antzuolako 8 Miliak (A8M) lasterketako irteera puntuan izango dira bihar goizean –10:30ean helduen lasterketa–. 2023ko ediziotik Ibaik du lasterketako errekorra –ordubete eta 53 segundo–, eta, gainera, bertan parte hartu duen bi aldietan nagusitu egin da. Aimar da, ordea, hiru anaien artean etxeko lasterketan parte-hartze gehien dituen: zapatukoa bosgarren aldia izango du. Hirugarren anaiak ere, Ekain Larreak (Antzuola, 2002), lasterketarako dortsala dauka, baina bihar Antzuolako plazatik 406 kilometro-ra egongo da, distantzia hori dago-eta herritik Gallur Udal Kirol Zentroko (Madril) pista estaliko kirol instalazioetara. Duela 15 egun 1.500 metrokoan Gipuzkoako errekorra ondu izanak (3.48.47) dauka horren *errua*, Espainiako Txapelketa absoluturako txartela eman dio-eta marka horrek. Behin larreatarren gainean berba egiten hasita, aita ere, Luis Larrea (Antzuola, 1966), lasterketan izango da bihar.

**Handia da gero, Ekain, Espainiako txapelketarako txartela lortu duzu, zer eta Antzuolako 8 Miliak jokatzen den egun berean lehiatzeko...**

**Ekain Larrea:** Halaxe suertatu da, zer egingo diogu... Ez dut esango Madrileraren penaz noanik, halako hitzordu batean esku hartzea gauza handia delako, eta inoiz ez dakizu ostera ere halako aukerarik izango duzun. Duela hamabost egun banekien marka eskura neukala, eta lasterketa aurretik zalantzan egon nintzen dena eman edo zer egin. Dena ematea erabaki nuen, eta Espainiako txapelketarako txartela lortu nuen. Baina bai, pena da, orain arte ez dut-eta herri-

# "Anaiari esprinta jo baino politagoa da elkarrekin helmugaratzea"

**EKAIN LARREA, IBAI LARREA ETA AIMAR LARREA ATLETAK**

**MENDI LASTERKETAK** Lasterketetan nabarmentzen dabilta hiru anaia horiek; bihar, zapatua, euretako bi izango dira Antzuolako 8 Miliak probako irteeran (10:30)

ko lasterketan parte hartu, eta banuen gogo. Gainera, inoiz ez gara hiru anaia mendi lasterketa batean elkarrekin egon, lehenengo aldia izan behar zuen honek.

**Hirurok irteera puntuan batzen zaretan egunean zer gertatuko da? Izan ere, batera helmugaratzen ere ikusi izan zaituztegu.**

**Aimar Larrea:** [Barre] Tira, nik aspalditxotik daukat barneratuta anaia biek korrika egiten egurra ematen didatela; alde horretatik, ez daukat arazorik, baina badugu pikea. Gustatzen zait entrenatzea, baina bi hauek beste maila batean daude.

**"BARNERATUTA DAUKAT KORRIKA ANAIEK EGURRA EMATEN DIDATELA"**

AIMAR LARREA ATLETA

**Ibai Larrea:** Hirurok ez, baina bi anaia egon izan gara elkarrekin behin baino gehiagotan. Nik uste dut gutako bakoitza bere lasterketa egitera joaten dela, baina helmugara batera iritsi behar dugula ikusiko bagenu, indarrak parean izan ditugulako, elkarririk esprinta egitea baino politagoa izango litzateke batera helmugaratzea.

**Ekain Larrea:** Norberarena egin, eta gero anaia ondo iritsi diren ikustea da lehen-tasuna.

**Ekain, bihar eguerdian posible da antzular bat baino gehiago helmugan poltsikoko telefonora begi-**

**"ANTZUOLAKO LASTERKETAN INGURUKOAK BATZEN GARA, ETA POLITA DA"**

IBAI LARREA ATLETA

**ra egotea, zure lasterketa streaming-*ez* ikusten.**

**E.L.:** 11:20an daukat 1.500 metroko finalerdia. Ordu horretan Ibai helmuga zeharkatzeko puntuan egongo da [Barre]. Tira, ez dago nire lasterketa zuzenean ikusi beharrik, jendeak goza dezala A8M-ekin, eta, ondoren, interesa duenak sarean izango du gure lasterketa ikusgai.

**Posible ikusten duzu domekako finalerako sailkatzea?**

**E.L.:** Oso zaila izango da. Ni sasoi onean nago, baina distantzia horretako espezialistak izango ditut lehiakide, oso jende azkarra dago. Nik dena bikain

**"BANUEN ETXEAN LEHIATZEKO GOGOA, BESTE BATEAN IZANGO DA"**

EKAIN LARREA ATLETA

egin beharko nuke, eta besteren batek kale egin.

**A8M-en 12. edizioa jokatuko dute bihar; zertan ari zineten duela 12 urte?**

**I.L.:** Ordurako atletismoan ibiliko ginen, baina sasoi hartan nik pilotari garrantzi handiagoa ematen nion.

**E.L.:** Nik, Ibaik bezala, pilota eta atletismoa egiten nituen, baina nik atletismoan gehiago gozatzen nuen, lasterketetara joaten ginenean... Zirrara berezia sentitzen nuen, baita ikusle moduan joaten ginenean ere.

**A.L.:** Ni ere antzera samar, korrikan eta pilotan egiten nuen orduan, eta, A8M-en lehenengo edizioa gogoan ez badaukat ere, ez nintzen urrun ibiliko; seguru lehen edizio hartan mendira joan ginela ezagunak animatzera.

**Zer da halako lasterketa bat –A8M-etxean izatea?**

**A.L.:** Ni elite mailako lasterketetan ez nabilenez, Antzuolako urteko proba garrantzitsuetako bat izaten da; herrikideen aurrean korrika egitea, inguruko korrikalarietara alderatzeko aukera ematen dizu... Askotibatzen nauen lasterketa da. Gainera, mendiko lasterketa motzak gustatzen zaizkit eta Antzuolako neurri politeko proba da, etxean bertan.

**I.L.:** Nik gauza bera esango nuke; kanpoan lasterketa askotan izaten gara, baina inguruko korrikalarietara ez dugu askotan bat egiten, eta gauza polita da ingurukoekin lehiatzea. Eta errekorra egin nuenetik, ba, tira, erreferentzia hori ere badut buruan. Neure buruari jartzen diodan erronka da etxeko lasterketa; gainera, denboraldi hasiera ere bada, eta zelan nagoen ikusteko baliatzen dut [Joan den

## ANTZUOLAKO 8 MILIAK

'HARMAILATIK' SAIOA  
OTSAILAREN 24AN, ASTELEHENA, 20:00ETAN ETA 22:00ETAN



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

goiena  
Zu hemen zaude.







Ekzerretik hasita, Ibai Larrea, Ekain Larrea eta Aimar Larrea, aste barruan, baserri ondoko zelaian. XABIER URZELAI

asteen Ordizian Euskadiko txapelketa irabazi zuen].

**E.L.:** Tira, nik datorren urtera itxaron beharko dut. Azkenean, antzuolarrok bi erreferentzia ditugu, Behobia-Donostia lasterketako denbora eta Antzuolako 8 Milietan egindakoa, horako markek balio dute; gero, berdin dio urte osoan zertan ibili zaren [Barre].

**Baduzue hirurok elkarrekin egiteko lasterketaren bat begiz jota?**

**I.L.:** Printzipioz, ez dugu aurreikusita halakorik. Esaterako, apirilean Aimarrek eta biok Arrasate-Udalatz egingo dugu... [Iazko irabazlea da Ibai Larrea].

**"ERREKORRA ONTZA ZAIL IKUSTEN DUT; ARRISKUAK ERE HARTU BEHAR DIRA"**

IBAI LARREA ATLETA

**A.L.:** Ekain eta biok Aiako mendi lasterketara ere joango gara... Iaz asko gustatu zitzaigun, eta, gainera, lasterketa irabazi genuen; horrenbestez, bueltatu egin beharko dugu.

**I.L.:** Eta Ekainek eta biok bi aste barru Bilbon dugu hitzordua, asfaltoko Espainiako txapelketan izango gara, 10 kilometroko lasterketan. Baina bakoitzak helburu ezberdinak izaten ditu urtean zehar, bai.

**Zelan egiten dituzue trantsizio horiek? Alegia, krosetik mendi lasterketara, pistan 1.500 metroko lasterketa, ondoren asfaltuan hamar kilometroko proba...**

**"NIRE HELBURUA KROSAK DIRA; HORRA BIDERATZEN DITUT ENTRENAMENDUAK"**

EKAIN LARREA ATLETA

**E.L.:** Nik, normalean, helburu bat markatzen dut; nire kasuan, krosak dira, eta entrenamenduak horretara bideratzen ditut. Gero, Gabonetatik hona abiadura lantzen ere ibili naiz, eta, hortik aurrera, parean tokatzen diren lasterketara ahal dugun moduan joaten gara. Esaterako, A8M proba egingo banu, ez nintzateke proba horretara entrenamendu espezifiko batekin etorriko; tarteka mendian korrika apur bat egin, eta aurrera. **Zer-nolako lasterketa da A8M?**

**I.L.:** Lasterketa azkarra da eta denetik dauka. Gailurrerian zona teknikoa du, baditu aldapa

**"EGURALDI ONA EGIN DU, BAINA LOKATZ DEZENTE EGON DA ORAIN ARTE"**

AIMAR LARREA ATLETA

gogorak, baita korrika azkar egin beharreko tokiak ere. Alde horretatik, lasterketa konpletua dela esango nuke.

**Ibai, posible da 2023an ezarri zenuen errekorra ontzea?**

**I.L.:** Nire kasuan, zail ikusten dut; goitik behera jaisten arriskuak ere hartu behar dira eta ez dakit zirkuitu horretan non izan naitekeen azkarragoa. Mendia zelan dagoen ere erabakigarria izaten da. Errekorra egin nuen urtean goialdea zurituta zegoen, baina eguraldi oso ona egin zuen eta zirkuituko gaintzeko zatiak siku zeuden. Baldintza onak izan nituen edizio hartan.

**Zer espero duzue aurkitzea?**

**I.L.:** Oraingo astean giro ona egin du eta mendia sikatuko zen apur bat, baina joan den astean ibili ginenean lokatz dezente zegoen.

**A.L.:** Horrekin batera, oso maila politeko korrikalariak egongo dira irteera puntuan: Iñigo Alzola, Aitor Ajuria, Asier Azkarate, Bergarako Etxabe anaiak, Goierri aldetik ere Zabalegi, Zunzunegi, Ibañez... Aurreko postuak garesti egongo dira. **Herrian ere giro oso ona egoten da...**

**A.L.:** Gainera, duela bi urte zapatara aldatu zuten lasterketa, kuadrillak bazkaltzera joaten dira gero, gaztetxean kontzertuak egoten dira... Egun polita izaten da, bai.

**I.L.:** Eta denboraldi hasiera denez, jendea lasterketa gosez egoten da.

**E.L.:** Gainera, urtean zehar korrika egiten ibiltzen ez diren herritarrak lasterketa prestatzen dabiltzala ikustea ere polita da; entrenatzen topo egiten duzu eurekin, eta beti egoten da zerbait komentatzeko.

## Ibarreko lau atleta doaz Espainiako Txapelketara

**ATLETISMOA** Maialen Axpe, Eneko Carrascal, Ekain Larrea eta Andoni Calbano dira ordezkariak

**X.U. ARRASATE**

Gaurtik domekara bitartean jokatu dute, Gallur Udal Kirol Zentroan (Madril), Espainiako maila absolutuko Short Track txapelketa, eta Debagoiak lau atleta izango ditu hitzorduan: Maialen Axpe (pertika-saltoa), Eneko Carrascal (salto hirukoitza), Andoni Calbano (200 metroko lasterketa) eta Ekain Larrea (1.500 metroko lasterketa).

Andoni Calbano bergararrak gaur, egubakoitza, izango du 200 metroko lehenengo txanda (18:55). Zapatuan 18:40an jokatu dute finalerdia eta sailkatzen bada finalak domekan izango dira (11:50). Ekain Larrea antzuolarrak zapatuan 11:20an izango du 1.500 metroko finalerdia, eta, aurrera egiten badu, finala domekan izango du, 12:40an. Eta domekan lehiatuko dira Arrasateko Maialen Axpe eta Eneko Carrascal, horiek finalerdiak dauka. Emakumezkoen pertikako saioa 11:00etan jokatu dute, eta gizonezkoen salto hirukoitzeko hitzordua 12:25ean izango du Carrascalek. Lau atleta horien artean Larrea da maila absolutuan debuta egingo duen bakarra, besteek esperientzia dute eta hitzordu horretan. Txapelketa Teledeportek emango du.



Realaren eta Sevillaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Sevilla norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partidua martxoaren 7ko asteburuan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: martxoaren 2a.

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia



Jaiotz Osa eta Xabier Mujika dira *Lana* dantza ikuskizunaren sortzaileak. OSA+MUJIKA

# Lan-esparruko kontuak, dantzarekin kontatuta

Osa+Mujika dantza konpainiak otsailaren 1ean estreinatu zuen dantza garaikidea oinarri duen 'Lana' ikuskizuna Amaia antzokian ikusteko aukera izango da bihar, 19:30ean; 'Arrasate.eus' atarian eros daitezke aurrez sarrerak, hamar eurotan

## Aitziber Aranburuzabala Juldain ARRASATE

Dantza garaikidea da Osa+Mujika konpainiaren marka, "dantza guztiontzako ulergarria" izateko helburuarekin. "Gure obrek gai sozialak lantzen dituzte; beraz, mezu bat dute eta saiatzen gara mezu hori ikusleari helarazten. Horregatik, ez dira ondo dantzatzaren dantzariak soilik; pertsona moduan lantzen ditugu. Ondo landutako gidoia dago atzean, guretako garrantzitsua delako eta bada-kigulako dantza garaikidea oraindik urrin geratzen dela ikusle askorendako. Dantza garaikidea dago gure obretan, baina gainontzeko elementuak ere bai; hau da, eszenografia, iruditeria eta dramaturgia, obrari osotasuna emateko. Bi zuzendari gara konpainian: Xabier Mujika eta biok; Xabierrek eszenografia eta jantzien ardura du, eta koreografiaren ardura duna naiz ni", azaldu du konpainiako zuzendari Jaiotz Osak.

## Mezularitza-enpresa batean

Mezularitza-enpresa batean kokatutako istorioa kontatzen dute. "Lanak gure bizitzan zehar zenbat exijitzen digun hausnartuta sortu genuen ikuskizun berria. Txikitatik hezten gaituzte langile perfektuak izateko, eta ia hil arte irauten du bromatxo horrek. Lau langile eta nagusia dira pertsonaiak, eta langile bakoitzak bere ezaugarriak eta pertsonalitatea ditu. Lantalde batean gertatu daitezkeen egoerak islatzen ditugu obran".

Bost interprete dira oraingoan taularen gainean: Maddi Ruiz de Loizaga, Paula Parra, Rafke Van Houplines, Adrian Bolaños eta Jaiotz Osa. "Aire berriak ekartzeko asmoz, obra bakoitzean

**LABETIK ATERA BERRI DEN 'LANA' DANTZA IKUSKIZUNA IZANGO DA DOMEKAN AMAIA ANTZOKIAN IKUSGAI**

lantaldea aldatzea gustatzen zaigu. Rafke Van Houplines eta Maddi Ruiz de Loizaga aurreko obran ere izan ziren, eta beste biak berriak dira".

## Gartxot Usainen musika

Idatzitako mezu bat ezik, hitz bako ikuskizuna dela gaineratu du Osak: "Beste obra batzuetan proiektzioak eta offeko ahotsa erabili ditugu; oraingoan, berriz musikaren eta argitzapenaren laguntzarekin sortu ditugu atmosfera edo eszena ezberdinak. Gartxot Usain musikariarekin sortu dugu espresuki obrarako soinu-banda, eta Isa del Moralek argiekin askotariko eszena edo giroak sortu ditu".

## Ikusleek "ondo hartua"

Donostian "harrera onarekin" estreinatu zuten, otsailaren 1ean, eta Getxon eta Hondarribian ere eskaini dute. "Oso pozik gaude jasotako erantzunarekin. Asteburuan Elorrioren eta Arrasaten izango gara".

## Goienakideen txokoa

### OTSAILEKO SARIAK



### Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: errigora

ERRIGORA

### Sarrerak

Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

ARRIKRUTZ  
oñatiko o b a k

### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org  
Bidezko Merkataritzako produktuak

### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotzaren sartzeak, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)

## Irabazi bi pertsonarendako otordua

### MAIALDE JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: otsailak 25

943 25 05 05 [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) 'Goiena app'-a / zozketa atalean.

GOIENAKIDE *Jatetxea* [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...

2025eko kuota 67 € da; eta orain, %50eko deskontuarekin: 33,50 €.

Deitu: 943 25 05 05 • [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA!

goiena<sup>™</sup>  
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

# "Sekulako bizipenak eramango ditut biratik"

**KARLOS LOPEZ 'KARLOTE' MUSIKARIA**

Aretxabaletako musikaria Mexikoko Mess taldearekin ari da Europan zehar biran, gitarra-jole; 20 egunean 19 kontzertu egingo dituzte askotariko herrialdeetan

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**  
ARETXABALETA

Neallta Fola eta Vietcong 68 taldekoa da Karloz Lopez *Karlotte* (Aretxabaleta, 1983), baina egunotan Mexikoko Mess taldearekin ari da Europan zehar biran; otsailaren 4an egin zuten estreinakoa, Belgikan, eta Alemaniaren bukatuko dute, domekan. **Zelan sortu zitzaizun aukera?** Mess taldekoekin harreman ona dut aspalditik. Europara biran etortzen direnean, gertuan izaten naute beti, musika tresnak itxi izan dizkiet... Lan kontuak direla-eta euren gitarra-jolea ezin zen Europako birara etorri, eta orain dela zazpi hilabete inguru proposatu zidaten haren orde zotzea. Etxeko, laneko eta bestelako guztiak antolatu, eta birarekin aurrera egitea erabaki nuen. Punk-oi! taldea da, 80ko hamarkadako soinua du, oso gordina eta zuzena. Lauzpabost urte doaz, eta indar handia ari dira hartzen Europan. Estilo eta soinua berezia dute.

**Zer moduz doa bira?**

Oso gustura! Sekulako *trotea*, neke-lana, izan arren [20 egunetan, 19 kontzertu], egun bakarrean deskantsua hartuta, sekulako aukera moduan ikusi nuen, eta hala ari da izaten. Enpresa handi batek antolatu du, eta hiru

talde ari gara biran: Lion's Law, Claimed Choice eta Mess. Beste taldekoekin ere oso harreman eta giro ona dugu. Leku asko ari gara bisitatzen, nahiz eta turismorako aukera handirik ez izan. Egunero mugitzen gara, eta oso intentsua da.

**Nondik nora ibili zarete orain arte?** Bira hasi baino hiru egun lehenago, Euskal Herrira entseatzera etorri ziren taldekoak, eta Mallen-en (Belgika) otsailaren 4an hasi genuen bira. Segidan, Brusela ondoko herri batera, Herbehereetara, Alemaniara eta Frantziara joan ginen, eta otsailaren 9an Donostian jo genuen. Ondoren, Madrilen eta Bartzelonan, eta berriz ere Frantzian.



Mess taldeko Anso, Abraham, Chespi eta *Karlotte*, martitzenean, Vienan. MESS

Handik Suitzara, Italiara, Alemaniara berriz, Vienara, Bratislavara eta Pragara. Gaur, egubakoitza, Berlinen gaude, bihar Dresdenen, eta domekan Hanburgon. Kontzertuak 20:00etan izaten dira, eta ona da hori.

**Zein harrera izan dute kontzertuek?**

Flipatu egin dut! Asteko egun guztietan ari gara jotzen, eta astean zeharreko kontzertuetan ere sekulako jendetza eta giro ona egoten da. Jende asko mugitzen duten taldeak dira hirurak, eta elkarren artean oso *konbo* ona egiten dute. Areto guztiak ia beteta egon dira, Donostian ere bai, domekan sekulako harrera, eta areto batzuetan *sold out*.

**Anekdotak ugari bizita dagoeneko?**



Karlos Lopez *Karlotte*. OLIVIER JACKET

Bederatzi pertsona eta material guztia goaz bi furgonetatan, eta gorabeherak izan ditugu: bigaren egunean, Belgikatik Herbehereetara bidean, errubera bat lehertu egin zen; sekulako sustoa hartu genuen, baina ez zitzaizun ezer pasatu, eta heldu ginen helmugara. Furgonetako momentua gogorra da, baina oso polita ari da izaten. Suitzatik Italiara joateko Alpeak zeharkatu genituen, eta oso oroitzapen polita dut, baita Italiatik Municherako bidekoa ere, Tirol inguruak. Beste abenturatxo bat: Bolognara heltzen ari ginea, furgonetak botata itxi gintuen. Hurrengo egunean Munichera autobusean joan ginen. Gorabehera asko, baina positiboak ia denak. Sekulako bizipenak eramango ditut hemendik.

**Biratik bueltan, etxeko taldeekin ere lana duzu.**

Hala da; Neallta Folarekin estudioan sartu berri gaude, udarako lan berria ateratzeko asmoz, eta Vietcong 68-rekin azaroan atera genuen diskoa.

## Karena eta Malko taldeak, Herri Urratsen abestu guran

Domekara bitartean eman daiteke botoa Seaskak eta Badok ekimenaren sariketan

**A. Aranburuzabala ANTZUOLA**

Iparaldeko ikastolen alde Senperoko aintziran ospatzen duten Herri Urrats jaialdiaren baitako Badok gunean joko duen musika taldea hautatzeko aukera dute herritarrek, Seaskak eta Badok ekimenak elkarrekin antolatu duten II. Musika Marketen Lehiaketaren bidez. Lehiaketaren saria aurten maiatzaren 11n egingo duten Herri Urrats jaialdian jotzea da.

Guztira, 29 talde aurkeztu dira bigarren antolatu duten lehiaketara, eta, epaimahaiak hala erabakita, sei talde pasatu dira azken fasera; horien artean, Debagoieneko bi talde daude: Antzuolako eta Hernaniko Karena eta Oñatiko Malko. Horiekin batera, Diraki, Kuma No Motor, Lurhats eta Hartzak Zeruan taldeak daude lehian.

**Botoa, domeka bitartean**

Epaimahaiaren balorazioaz gainera, aurten publikoak bere iritzia emateko aukera du, eta bi faktore horiek kontuan hartuta erabakiko dute irabazlea. Otsailaren 23 da gustuko taldeari botoa emateko azken eguna, *Badok.eus* atarian. Martxoaren hasieran iragarriko dute irabazlearen izena.

## Kantari grabaketak domekan Aretxabaletako Arkupen

Aretxabaletako eta Eskoriatzako 7 eta 12 urte bitarteko 100 ikasle inguru izango dira kantuan eta dantzan

**A. A. J. ARETXABALETA**

Beñat Arizabaletak aurkeztuta, Debagoieneko Kantari saio gehiago grabatuko dituzte domekan. Aretxabaletako Kurtzebarri eta Eskoriatzako Luis Ezeiza ikasketxeetako eta Arizmendi Ikas-

tolako Almen guneko 7 eta 12 urte bitarteko ikasleak izango dira oraingoan protagonista.

Bost saio grabatuko dituzte guztira, 16:00etan hasi eta 20:00ak bitartean. Sarrera doakoa da eta guztiertzako daude graba-

zioak bertatik bertara ikusteko ateak zabalik.

**Bergarako saioak ikusgai**

Urtarrilean grabatu zituzten Bergarako Seminarixoan denboraldiko estreinako saioak, Bergarako, Antzuolako eta Elgetako artista gazteak gonbidatuta. Saio horiek Goiena telebistan eskaintzen hasita daude; bihar, zapatua, 16:00ean eta 20:30ean, eta domekan, 10:00etan, 14:30ean eta 18:30ean emango dute bigarren saioa.



Begarako Seminarixoan grabatu zuten Kantari saioetako bat. GOIENA

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Bergara.** Mekolalden baserria salgai. 12 hektarea, pinu eta fruitu arbola ezberdinez ingurata. 943 76 49 61 edo 644 40 93 67.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Alokatzeko logela bila dabilen emakume arduratsu eta langilea naiz. Alokairuaren kontratua eta etxebizitzan erroldatzeko aukera izatea beharrezkoak ditut. Deitu 602 53 38 42 telefonora.

**Oñati.** Oñatin, bi logela dituen pisu bila nabil. 663 11 75 10.

## 4. LANA

## 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Garbiketa lanak egiteko gertu dagoen emakumea. 603 30 73 94.

**Arrasate.** Neska arrasatearra, arduratsu eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Interesatuok deitu hona: 695 73 87 95.

**Arrasate.** Zaintzan zein garbiketarako egiten lan egingo nuke. Atariaren, etxeen zein fabriken garbiketa egingo nuke. Deitu 688 29 97 05 telefono zenbakira.

**Bergara.** Bergararra iritsi berria den neska gazte bat naiz eta lan bila nabil. Esperientzia daukat garbiketa alorrean, sukaldari laguntzaile gisa eta nagusiak zaintzen. Etxea zein atariak garbitzeko, nagusiek in laguntzeko eta bestelako lanak egiteko gertu nago. Deitu 631 87 56 29 edo 684 14 95 54 zenbakietara.

**Bergara.** Zuzenbidea ikasten duen neska euskalduna eta ardua-

tsua umeak zaintzeko prest. 688 62 90 09.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Esperientzia dut zaintza lanetan. 625 25 57 78.

**Debagoiena.** Emakumea pertsonak zaindu, garbiketa lanak egin edo zerbitzari lanak egiteko prest. Malgutasuna dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 651 49 05 35.

**Debagoiena.** Eraikuntza-laguntzaile, soldadzaile, edo pintore gisa lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 624 63 00 90.

**Debagoiena.** Erizaintzako laguntzaile naiz eta Soziosanitario ikasketak ditut. Pertsona nagusien edo haurren zaintzan edota garbiketaren lan egingo nuke. Berehalako prestasuna. Pertsona arduratsua eta errespetuzkoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 673 64 41 99.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 84 07 08.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 626 44 46 49.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Garbiketa lanak egiteko edo pertsonak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 17 32 15.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zain-

du edota garbiketa lanak egiteko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 90 15 92.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke pertsonen zaintzan. Esperientzia daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 611 75 39 92.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten, orduka edo asteburuetan lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 17 32 15.

**Debagoiena.** Garbiketarako edo eraikuntzan lan egingo prest dagoen gizona. Malgutasun osoa. Deitu 671 25 12 09 telefonora.

**Debagoiena.** Etxeko lanak egiten edota pertsona nagusien edo umeen zaintzan lan egingo nuke. Orduka lan egingo gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 624 70 02 37.

**Debagoiena.** Etxez ebeko laguntzaile gisa edo garbiketa-lanak egiteko gertu dagoen emakumea. Soziosanitario eta garbitzaile tituluak ditut. Deitu 695 09 24 23 zenbakira.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Neska gazte arduratsua naiz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 613 59 26 39.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest dagoen emakumea. Etxetik kanpo bizi izatean. Astean zehar zein asteburuetan lan egingo gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 612 56 12 39.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Etxetik kanpo bizi izatean. Astean zehar zein asteburuetan lan egingo gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 632 63 77 38.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egiteko, pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko edo konpainia egiteko prest. Orduka lan egingo nuke. Astean zehar zein asteburuetan lan egingo gertu. Deitu 653 59 45 60 edo 612 27 67 87 zenbakietara.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Deitu 600 41 80 86 telefonora.

**Debagoiena.** Gizonezkoa pertsona nagusien zaintzan lan egingo prest. Astegunetan zein asteburuetan. Deitu 672 55 67 35 telefonora.

**Debagoiena.** Gizonezkoa pertsonak zaintzeko prest. Soziosanitario titulua daukat. Etxetik kanpo bizi izaten lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 643 65 28 27.

**Debagoiena.** Larunbatetan, orduka, garbiketa lanak egiteko gertu dagoen emakumea. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 611 38 94 37.

**Debagoiena.** Neska esperientziarekin, zintzoa eta arduratsua, adinekoak zaindu eta paseatzeko edo tabernak eta atariak garbitzeko lan bila. Berehalako prestutasuna. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. 624 83 95 19.

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan lan egingo gertu dagoen pertsona. 635 87 82 18.

**Debagoiena.** Sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. Deitu 644 05 98 53 zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu, paseatzera ateratzeko edota garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Esperientzia handia dut zaintza lanetan. Erizaintza laguntzaile ikasketak ditut. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke etxe zein ospitalean. 654 71 55 99.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nitzuke etxean bertan bizi izaten edo orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 30 03 77.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nitzuke. Etxean bertan bizi izaten zein bestela. Deitu 603 26 66 18 zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko gertu. Beste lan mota batzuetara molda naitenke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Berehalako prestutasuna. Deitu 605 33 90 92 zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan edota garbiketa lanak egiten lan egingo gertu dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario titulua daukat. Deitu 624 09 66 51 (Cintia) telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Sukaldari laguntzaile lanak egingo nitzuke. Deitu 623 53 82 88 zenbakira.

## ZORION AGURRAK



ARETXABALETA  
**Haizea Velasco**  
**iturricastillo**  
Otsailaren 27an, 5 urte. Zorionak, Haizea!



ARETXABALETA  
**Iratz Arrue Zubia**  
**irratz**  
Otsailaren 25an, 6 urte. Zorionak, politxori! Besarkada handi handi bat eta patxo pilla familia guztian partetik!



BERGARA  
**Izan Ruiz**  
Otsailaren 25an, 8 urte. Zorionak, guapeton! Segi horrela! Muxu haundi bat etxekoan partetik!



OÑATI  
**Alba Vaz Olabe**  
Otsailaren 24an, 8 urte. Zorionak, maitte. Ze haundi! Edarto ospatu dezazula eguna! Muxu potolo bat familia guztian partetik bereziki Luka eta Alaiaren partetik.



ARAMAIO  
**Eukene Ugarte eta Aimar Ugartetxe**  
Otsailaren 22an, 4 urte. Eukenek Otsailaren 18 an 33 urte eta Aimarrek Otsailaren 22 an 4 urte. Zorionak Zubitxako baserriarrei !! Patxo haundi bana !



BERGARA  
**Aina Arregi**  
Otsailaren 22an, 4 urte. Zorionak, txiki! Familia guztian partetik! Asko maitxe zaitxugu!



ANTZUOLA  
**Aiala Zabalo Garcia**  
Otsailaren 21an, 13 urte. Zorionak, bihotza. Patxo handi bana etxekoan partetik. Gozatu eguna zuk dakizun bezela!



ARRASATE  
**Haizea Arribillaga Duque**  
Otsailaren 21an, 7 urte. Zorionak, Haizeatxo! Segi halako poztasuna guztioi ematen. Asko, beti eta ondo maite zaitugu.



BERGARA  
**Xabat Arando**  
Otsailaren 21an. Osintxuko Xabat-ek 11 urte. Zorionak! Ondo ondo pasa zure urtebetetze eguna etxeko danon partetik.



BERGARA  
**Nora Perez Zabaleta**  
Otsailaren 19an, 12 urte. Urte askotarako, Nora! Egun polit polita pasatu eta muxu potolo bat familia guztian partetik!



ARRASATE  
**Julen Anasagasti Vitoria**  
Otsailaren 16an, 5 urte. Zorionak! Patxo handi bat familia guztian partetik, batezbe Hodei eta Nikolen partetik!

## Urte askotarako!

Zoriontzeko, hiru bide dituzte:

**Internet**  
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta [Goiena.eus/zorionagurra](http://Goiena.eus/zorionagurra) helbidean sartu. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**  
Mezua bidali [zorionagurra@goiena.eus](mailto:zorionagurra@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**  
Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



ARETXABALETA  
**Xabat Cruz Aranzabal**  
Otsailaren 15an, 8 urte. Zorionak, Xabat! Muxu potolo bat familia danon partetik.

## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarriak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goienakideko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoko argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

**Bergara:**  
Herrilagunak,  
52m<sup>2</sup> erdigunean,  
2 logela, igogailua,  
trastelekua.  
**195.000€**

**Bergara: Zubieta,**  
79m<sup>2</sup> 4 logela,  
lursail ederra, teilatua  
berrituta, erdigunetik  
gertu.  
**190.000€**

**Bergara:**  
Zurradero,  
81m<sup>2</sup> 3 logela,  
2 komun, trastelekua,  
igogailua.  
**270.000 €**

Ibargarai 3 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 97  
[www.inmokokorosti.com](http://www.inmokokorosti.com)

Informazio  
gehiago:

## HILDAKOAK

- **Mila Larrea Narvaiza.** Antzuolan, otsailaren 14an. 79 urte.
- **Tomasa Lete Aranguren.** Antzuolan, otsailaren 14an. 99 urte.
- **Kontxi Munitxa Larrea.** Arrasaten, otsailaren 14an. 92 urte.
- **Angela Fernandez Arias.** Arrasaten, otsailaren 16an. 90 urte.
- **Patricio Balanzategui Arrazola.** Arrasaten, otsailaren 19an. 81 urte.
- **Alejandro San Miguel Zubieta.** Eskoriatzan, otsailaren 14an. 78 urte.
- **Angela Gonzalez Dominguez.** Oñatin, otsailaren 15ean. 96 urte.
- **Jose Inazio Urzelai Unzurrunaga.** Oñatin, otsailaren 15ean. 84 urte.

### ESKER ONA



#### Jose Inazio Urzelai Unzurrunaga

'Belas'



2025eko otsailaren 15ean hil zen, 84 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana familiarren izenean.

Eskerrik asko, bide batez, haren zaintzaz arduratu zareten erizainei, medikuei, eguneko zentroko langileei eta zaintzaileei.

Haren aldeko ondra-meza zapatuan izango da, otsailaren 22an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.

Oñatin, 2025eko otsailaren 21ean.

### ESKER ONA



#### Tomasa Lete Aranguren



2025eko otsailaren 14an hil zen, 99 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana, familiarren izenean.

Antzuolan, 2025eko otsailaren 21ean.

## ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo [eskela@goiena.eus](mailto:eskela@goiena.eus)

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena

Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € /

Goienakideko bazkideendako 195 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en:

195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

### ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

**ARRASATE** Goiena: Otorala Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

**BERGARA** Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

**ELGETA** Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 78 80 80.

**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

## Oroilore

Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

*Gure arloan agurtutako guztiei  
gure bidea aurkitzen lagunatu  
diegu, orain arte bezala, eta guztiek  
ezango dute ogar berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beronenak gugan  
izan diezuen konfiantzarenik eta  
maitasunagatik.*

Mario, Iban, eta Maribí

617 44 21 55

BERGARA • ANTZUOLA • Moyma OSATI

BABESLEA



## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 21 IRIZAR: Erquín 11 / 943 79 12 39

Zapatua, 22 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Domeka, 23 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Astelehena, 24 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

Martitzena, 25 JAI: Zarugalde 28 / 943 77 16 30

Eguaztena, 26 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15

Eguena, 27 JUNCAY: Kontzezino 12 / 943 79 79 99

### BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 21 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Zapatua, 22 ESTELLA: Matxiategi 3 / 943 76 19 63

Domeka, 23 ESTELLA: Matxiategi 3 / 943 76 19 63

Astelehena, 24 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Martitzena, 25 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Eguaztena, 26 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 16 87

Eguena, 27 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

### OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 21 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Zapatua, 22 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Domeka, 23 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Astelehena, 24 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Martitzena, 25 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Eguaztena, 26 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Eguena, 27 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

### ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

2025: FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

### BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

2025: ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

## BERRI-ZAKUA



### 100 urte bete ditu

Lucio Garai Laspiur arrasatearrak Maider Morras alkatearen eta Jasone Giraldo zinegotziaren zorion mezuak eta opariak jaso zituen.



### Oztopoen gainetik

Ipar Zonako Trial txapelketako lehenengo proba jokatu zen aurreko zapatuan Aretxabaletan. Bizikleta gaineko trebezia erakutsi zuten parte-hartzaile guztiek.



### Artoarekin kontu-kontari

Leintz Gatzagako Gurel Guraso elkartearen ekimenez batu ziren herriko haurrak eta adinekoak, baserriko lanak nola egiten ziren erakusteko.



### 'Materia. Izena duen guztia', jendaurrean

Bergarako Camden Dance Studioko irakasle Blanca Carrascok zuzendutako dantza ikuskizuna ondu du Arima Project konpainiak. Jendaurrean aurkeztu zuten.

## ASTEAGOIENA TELEBISTAN

**ANTZUOLAKO ZORTZI MILIAK PROBA**

Antzuolako lasterketak ematen duenari eskainiko diote *Harmailatik* saioa. Probako irudiak eta protagonisten berbak jasoko dituzte.

'*Harmailatik*' Astelehena, 20:00 eta 22:00

**IÑIGO ASTIZI ELKARRIZKETA**

Iñigo Astiz idazle eta kazetariari egingo dio elkarrizketa Juan Kruz Lakastak. Bestea beste, haren liburuez galdetuko dio.

'*Elkarrizketa*'

Martitzena, 20:00 eta 22:00

**ADINKERIARI BURUZKOAK**

Gizadiberrri elkarteko kide Ainara Arregirekin egingo du berba Goiatz Aranak, adinkeriak dituen alorrez.

'*Berbagai*' Eguaztena, 20:00 eta 22:00

**'NOLAKOAK DIRA GURE BASOAK?'**

Gure basoen egoeraren gaineko hainbat erpin landuko ditu Txomin Madinak, datuak eskuetan.

'*Datuetatik tiraka*' Eguena, 20:00 eta 22:00

**NEREA BAENA EZAGUTZEN**

40 urteko korrikalari musakolarren ibilbidea erreparatuko dute. Distantzia motzetan ibili ostean, maratoi erdiekin gozatzen hasi da.

'*Luzapena*'

Eguena, 19:00, 21:00 eta 23:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

[goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / [kultura@goiena.eus](mailto:kultura@goiena.eus)

**EGUBAKOITZA 21****ARRASATE Merkemerkaua**

Ibai-arteko hogeitendak.

Arrasaten, 09:00etan.

**ARETXABALETA Marokorako bilketa solidarioa**

Orduetgia: 10:00-12:00 eta

16:30-18:00.

Herriko Plazan.

**OÑATI Odola emateko eguna**

Aurrez hartu beharko da ordua, 943-00 78 84 telefonoan.

Enpresagintzan, 16:30ean.

**ANTZUOLA 'Pronoia' ikuskizuna**

Oihulari Klownen eskutik. Bildutako dirua Valentziara bidaliko dute, tanta hotzak kaltetutakoei laguntzeko. Sarrera: borondatea.

Torresoroan, 18:30ean.

**ESKORIATZA Mendi Tour Film Festival**

Haize Ierroak, *The ice builders*, *The red face zone*, *Soundscape* eta *Always alive* film laburrak. Sarrerak: egun batekoak bost euro eta bi egunekoak zortzi.

Zaldibar antzokian, 19:00etan.

**BERGARA Euskaraldiaren hamaikakoaren aurkezpena**

Ekitaldi irekia izango da.

Seminarioan, 19:00etan.

**OÑATI 'Kaparrak, ziztadatik harago' hitzaldia**

Aitor Cevidanesez egingo du berba, Ingurumen Jardunaldietan.

Zinema-aretoan, 19:00etan.

**ARETXABALETA 'Bendita locura' antzezlana**

Eskoriatzako Ausartak taldearen eskutik. Sarrerak, sei euro.

Arkupen, 19:30ean.

**ELGETA Koko-batzea: azken entsegua**

Dantzak eta koplak erreparatzeko.

Gimnasioan, 19:30ean.

**BERGARA Bertso-afaria**

Amets Arzallus eta Nerea Ibarzabal bertsolariarekin. Txartelak salgai, Arranon eta Pol-Polen.

Artatse elkarteetan, 21:00etan.

**ZAPATUA 22****ELGETA Koko-batzea baserriz baserri**

Pertsonaia konpartsa baserriz baserri ibiliko da egun osoz.

Mendizaleen plazan, 09:00etan.

**ARRASATE Merkemerkaua: txaranga**

Ibai-arteko hogeitendak ipiniko dituzte euren produktuak. Sutan txaranga kaleak animatuko ditu 12:00etatik 14:00etara.

Arrasaten, 09:00etan.

**OÑATI Irteera, txoriak entzutera eta ikustera**

Asier Sarasuarekin eta Iker Novoarekin, Ingurumen Jardunaldietan. Prismatikoak eraman behar dira.

Natur Eskolan, 09:30ean.

**ARRASATE Piano topaketa**

Eskoriatzako, Aretxabaletako, Bergarako, Oñatiko, Soralezeko, Legazpiko eta Arrasateko pianistak. *Juan Arzamendi Musika Etxean*, 09:30ean.

**ANTZUOLA Antzuolako 8 Miliak**

10:20an hasiko da gazteen lasterketa eta 10:30ean helduena.

Herriko Plazan.

**ARAMAIO 'Jolas hezi' topaketa**

LHko 1. eta 2. mailakoendako, Leintz Eskola Kirolaren eskutik.

Aramaioko frontoian, 10:30ean.

**ARETXABALETA Barreterapia saioa**

Manex Beristainekin, 16 urtetik gorakoendako. Aurrez eman behar da izena.

Liburutegian, 10:30ean.

**BERGARA Laboratoriumeko bisita gidatua**

Debalde.

Laboratoriumen, 11:00etan.

**BERGARA Elkarteetako pinturak ezagutzen: Umora Ona elkarte**

Miguel Okinaren mendeurrenaren ekitaldien baitan. Edukiera mugatuarengatik, aurrez eman behar da izena: 613 44 82 17.

Umora Ona elkarteetan, 11:00etan.

**ARRASATE Ludoteka ibiltaria**

3 eta 12 urte artekoendako aisialdia, Txatxilipurdiren eskutik.

Orduetgia: 11:30-13:30.

Musakolako gazte txokoan.

**ARETXABALETA Txapel Txin Eguna**

Informazio osoa 17. orrian.

Aretxabaletan.

**OÑATI Inauterietako entsegua**

Martxoaren 1eko Oñatiko Inauteria prestatzeko.

Eltzian, 12:00etan.

**LEINTZ GATZAGA Txistularien kontzertua**

Arrasate Musikaleko Txistulari Bandaren emanaldia.

Gatz Museoan, 12:00etan.

**BERGARA Bisita gidatua Oloso dorrera**

Aurrez eman behar da izena.

Oloso dorrean, 12:15ean.

**ARRASATE Kurtzetxikira txangoa**

Gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 17:00etan.

**ARRASATE Euskal Herriko Mus Txapelketa**

Arrasateko kanporaketa.

Irati tabernan, 17:30ean.

**ESKORIATZA DJ Motorekin dantzaldia**

Dantza-zaleendako.

Zaldibar antzokian, 18:30ean.

**OÑATI 'Zenbat urte dako amamak?' antzezlana**

Ikusi Makusi taldearen eskutik, Hotz Oñatiren alde. Sarrerak, bost euro.

Santa Ana antzokian, 19:00etan.

**OÑATI 'Pintxada' gaztetxean eta kontzertuak gaztelekuan**

19:00etan, Azken Erromantikokoan-en *pintxada* eta 22:00etan, Añube, The Lio eta Dirty Old Gasteiz taldeak.

Oñatin.

**ARRASATE 'Lana' dantza ikuskizuna**

Jaiotz Osa eta Xabier Mujika bikote sortzailearen pieza. Bost dantzari

kultura obsesiboaren zerbitzura jarriko dute euren gorputza. Sarrerak, hamar euro.  
*Amaia antzokian, 19:30ean.*

### BERGARA 'Emakume baten borroka eta metamorfosia' antzezlana

Tanttaka konpainiarekin, Eneko Sagardoy eta Eva Trancon protagonista dituen lana. Sarrerak, zortzi euro.  
*Seminarixoa, 20:00etan.*

## DOMEKA 23

### ELGETA Bisita gidatua lubakietara

Izena emateko: 943-79 64 63 edo [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus).  
*Mendizaleen plazan, 10:00etan.*

### OÑATI Futbol inklusiboko topaketa

Desgaitasunen bat duten zein ez duten 8 urtetik gorako neska-mutikoendako.  
*Azkoagainen, 11:30ean.*

### OÑATI Urrezko Aizkorako finalerdiak

Txikia-Rekondo eta Autxa-Otaño bikoteak aurrez aurre.  
*Foruen plazan, 12:00etan.*

### BERGARA Aitor Escobarren kontzertua

Txapa Irratiaren 40. urteurreneko ekitaldia. Sarrerak, zortzi euro.  
*Kartzela zaharrea, 12:00etan.*

### ARETXABALETA 'Kantari' karaoke-saioa

Aretxabaletako eta Eskoriatzako neska-mutikoen saioak.  
*Arkupen, 16:00etan.*

### OÑATI Alaia Galtzagorriaren ikuskizuna

Haurrendako ikuskizuna Burrunda Faktoriaren eskutik. Sarrerak, bost euro.  
*Gaztetxean, 17:00etan.*

### ARRASATE 'Familia jolasean'

0-8 urte arteko haurrak dituzten familiek elkar ezagutzeko eta elkarrekin jolasteko aukera.  
*Santa Marinako ludotekan, 17:30ean.*



TANTTAKA

**BERGARA 'Emakume baten borroka eta metamorfosia' antzezlana**  
Ama batek gizon burua eta gorputza duen mundu batean biziko duen eraldaketa heroikoari buruzko lana, Tanttaka Teatroaren eskutik, eta Eneko Sagardoy eta Vitor Rogado aktoreekin. Sarrerak, zortzi euro.  
*Bihar, zapatua, Seminarixoa, 20:00etan.*

**ARRASATE Hiruko txapelketa**  
Gaztetxoendako.  
*Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

**ARETXABALETA Kintoen dantzak**  
2006an jaiotako kintoak.  
*Herriko Plazan, 19:00etan.*

**ESKORIATZA Mendi Tour Film Festival**  
*Red rock revolution, Peligro no asomarse* eta *Of a lifetime* film laburrak. Sarrerak, bost euro.  
*Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

**OÑATI 'Itzulera' antzezlana**  
Dejabu konpainiaren eskutik. Sarrerak, hamar euro.  
*Santa Ana antzokian, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 24

**ARRASATE 'Hildegarda de Bingen. Una mujer extraordinaria' hitzaldia**  
Mañole Ezenarro egongo du berba, Goienagusik gonbidatuta.  
*Kulturaten, 10:00etan.*

**DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea**  
Oñatin, Antzuolan, Arrasaten eta Aretxabaletan.  
*Herri horietan, 12:00etan.*

**OÑATI Emakumion Etxia Eraikitzen: lantaldeen bilerak**  
Gaur, Saltserak (16:30) eta Zubigileak (17:00) batuko dira.  
*Eltzian.*

**ESKORIATZA Sanpedroak antolatzekeo batzarra**  
Itzartu Gazte Asanbladak deituta.  
*Txosna batzordearen lokalean, 18:30ean.*

## MARTITZENA 25

**ARRASATE 'Mugikorraren auzia: zer dugu benetan esku artean?' hitzaldia**  
Maitane Ormazabalek eta Telmo Lazkanok egongo dute berba, Altxa Burua Arrasateko eta Arrasateko Udalak gonbidatuta. Lekuak mugatuak dira eta aurrez eman behar da izena.  
*Kulturaten, 18:00etan.*

**BERGARA 'Osasungintza euskalduna behingoz' hitzaldia**  
Adrian Zelaia, Intza Gurrutxaga eta Jon Zarate izango dira hizlariak.  
*Irizar jauregian, 18:30ean.*

**OÑATI 'Stolen fish' dokumentala eta hitzaldia**  
Dokumentalaren ostean, Lorea Flores biologoak egongo du berba, Ingurumen Jardunaldietan.  
*Zinema-aretoa, 19:00etan.*

## EGUAZTENA 26

**ARRASATE 'Talentua kudeatzeko irtenbide integralak. MLAKoop kasu praktikoa' jardunaldia**  
Maria Ruizek eta Idoia Mujikak egongo dute berba.  
*Garaian, 09:00etan.*

**OÑATI 'La transición y el 23F' hitzaldia**  
Pedro Barragan ekonomialariak egongo du berba, Goienagusik gonbidatuta.  
*Santa Ana antzokian, 10:00etan.*

**ARRASATE Haziera eta haur masaje tailerra**  
Itziar Rosadoren eta Jon Urdinetaren eskutik, 0-2 urte arteko seme-alabak dituztenendako. Aurrez eman behar da izena.  
*Txiki Txokoan, 10:00etan.*

**BERGARA Odol-ateratzeak**  
Hitzordua hartzeko: [Gotatanta.eus](http://Gotatanta.eus).  
*San Joxepen, 16:30ean.*

**ARRASATE 'Nerabezaroa, erronka bat norentzat?' tailerra**  
Agipad elkartearen eskutik, 12-16 urte arteko seme-alabak dituztenendako.  
*Kulturaten, 18:00etan.*

**ESKORIATZA 'Mari Txikiren kontuak' ipuin kontaketa**  
Pello Añorgaren eskutik, 4 urtetik gorakoendako.  
*Bibliotekan, 18:00etan.*

**ARRASATE Gitarra eta konbo emanaldia**  
Arrasate Musikaleko ikasleak.  
*JAME-n, 18:00etan.*

**ELGETA Astrotopaketa: eguzki-erlojuak**  
Ilatargi elkarteak gidatuta.  
*Liburutegian, 18:30ean.*

**OÑATI 'Justizia euskararentzat' hitzaldia**  
Intza Gurrutxagak eta Gorka Torrek egongo dute berba, Aixotuk gonbidatuta.  
*Gaztetxean, 19:00etan.*

**OÑATI 'Urdaibai: arriskuan dagoen Biosfera Erreserba. Zein da bere etorkizuna?'**  
Eider Gotxik egongo du berba, Ingurumen Jardunaldien baitan.  
*Zinema-aretoa, 19:00etan.*

**BERGARA 'Babygirl' pelikula**  
Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpitoluekin. Sarrerak, hiru euro.  
*Seminarixoa, 19:30ean.*

## ZINEMA

### ARRASATE

#### AMAIA ANTZOKIA

**Las vidas de Sing Sing**  
Domeka eta astelehena: 19:30.

**Los exploradores**  
Domeka: 17:00.

**Memorias de un caracol**  
Martitzena: 19:30

### BERGARA

#### SEMINARIXOA

**Maria Callas**  
Domeka eta astelehena: 19:30.

**Los exploradores**  
Domeka: 17:00.

### OÑATI

#### KULTURA ETXEA

**Maria Callas**  
Egubakoitza: 22:00.  
Zapatua: 19:30, 22:00.

Domeka eta astelehena: 19:30.

**Los exploradores**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

### GASTEIZ

#### FLORIDA

**Aún estoy aquí**  
Egubakoitza eta zapatua: 16.45, 19.30, 22.15.

Domeka: 16:45, 19:30.  
Astelehena, eguaztana eta eguena: 17:00, 19:45.  
Martitzena: 17:00, 19:30.

**Bridget Jones: loca por el**  
Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 22:00.  
Domeka: 16:30.  
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Captain America**  
Egubakoitza eta zapatua: 19:15, 22:00.  
Domeka: 12:00, 17:00.  
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Daniela forever**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:20.  
Domeka: 12:00, 17:00.  
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Emilia Perez**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00.  
Domekatik eguenera: 19:30.

**Flow, un mundo que salvar**  
Domeka: 12:00.

**La semilla de la higuera sagrada**  
Egubakoitza eta zapatua: 21.45.  
Domekatik eguenera: 19:15.

**La última reina**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.  
Domeka eta eguaztana: 17:00, 19:30.  
Astelehena eta eguena: 17:00.  
Martitzena: 19:30.

**Maria Callas**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 21:30.  
Domeka, astelehena, eguaztana eta eguena: 19:30.  
Martitzena: 17:00.

**Mufasa: el rey león**  
Domeka: 12:00.

**The brutalist**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00.  
Domeka: 19:00.  
Astelehenetik eguenera: 18:45.



AZKEN BERBA

IZAR ODRIOZOLA

## Larramendin Tipikoleatzen

Goazen, Tip, berandu iritsiko gara! –oihukatu du Collekek, semaforoaren bestaldetik–. Nik ez dut gorrian gurutzatuko, –Tipek zintzo, ondoan duen haurra begiratzuz– hiritar eredugarria izan behar dut haurarentzat, Coll. Tip, –etsipen aurpegiak Collekbaduzu adina semaforoaren koloreen diktaturatik askatzeko, badugu nahikoa mendekotasun egunerokoan dagoeneko.

Umeari irribarre egin dio Tipek. Gurutzatu du errepidea, berdean eta harro. Itxaron orain niri, Tip, –Collekek erreguka zigarroa piztuz–. Coll, Bob Marleyren semea dirudizu, uztazu mundua ke horrekin kutsatzeari eta izan zaitez eredu. Ezagutzen dut eredu okerragorik –Collekek nahi gabe haurrari bota dion bitartean–; gainera, sandia zaporea du.

Badaude eredu gaiztoagoak, Tip, –dio Collekek–, badago auzo eta herri osoa zigarro handi bat piztuz kutsatu nahi duenik. Coll, –lotsatuta Tipek– esan nizun puruarena ez dela berriro errepikatuko. Puru bakarria ez da ezer honen ondoan, Tip; piztu nahi duenetako batek prebarikatu egin du, eta ez da zigarro soila, milaka puru handi baizik. Gezurretan harrapatuagatik ere, kasua artxibatu dute –penatuta Collekek–. Justizia itsua omen da, Coll.

Ez, ordea, irentsiko dugun kea, Tip.

GAZTE GARA GAZTE

# "Gastronomia elkarreak gure oinarri politenetakoak dira"

BITTOR BARANDIARAN ARRIETA  
SUKALDARIA

**Julen Murua Mesonero** ESKORIAITZA

Gutxi esan dezakete Michelin izardun jatetxe batean lan egin dutela, baina Bittor Barandiaran (Eskoriatza, 1997) bada horietako bat. Lau urtez ibili zen Kanpezuko Arrea!-n lanean, eta orduan lortu zuen jatetxeak garaikurra. Gaur egun, Bakea jatetxean (Mungia) dihardu sukaldari, eta anaiarekin batera proiektu pertsonala ere abiarazi du, RZ izenpean.

**Ikasle garaian makarroiak jaken zenituen ala eskolan ikasitakoak praktikan jartzen zuenetakoak zinen?**

Ikasle garaian bai, baina gaur egun ere, niretzat bakarrik kuzinatzen behar badut, azkar jateko zerbait egiten dut, makarroiakadarkad barne. Beste batentzat edo lagunekin kuzinatzen behar badut, eta ikasle garaian ere hala egiten genuen, saiatzen nintzen ikasitakoak praktikan jartzen.

**Lanetik kanpo ere gustatzen zaizu kuzinatzea?**

Bai; batez ere, beste batzuentzat bada. Horrez gain, askotan kuzinatzen dut teknikak praktikatzeko edo ikasteko. Hori bai, niretzat kuzinatzen behar badut, adibidez, tortilla frantses batekin nahikoa dut.

**Gastronomia elkartean ikusi zaitugu maiz; tradizio horri eusten diotenetakoak zara?**

Uste dut badirela gure kulturaren oinarri politenetako bat. Osasuntsua da lagun artean elkartu eta kuzinatzea. Xarma puntu bat ere badu. Orain sartu berri naiz Mendiolan, Eskoriatza; asko maite dudan toki bat da. Askotan, kosta egiten zait lagunekin elkartzeko, asteburuetan lan egiten dudalako, baina, ahal dugunean, hara joaten gara. **Sare sozialen olatua iritsi da sukaldaritzara ere, eta zu zeu ere sartu zara bertan.**

Gariren [Bittorren anaia] errua izan zen. Ikus-entzunezkoetan dihardu lanean, eta proposatu zidan plataforma bat sortzeko sukaldaritzako euskarazko edukia argitaratzeko. Hasiera batean, lotsa ematen zidan sare sozialen olatura igotzeak. Ez dakit zerk bultzatu ninduen aurreneko bideoa igotzera, baina harrera izugarria izan zuen, eta horregatik jarraitu dugu edukia sortzen.

**Zer beste proiektu dituzu esku artean?**

Bakea jatetxean lan egiten dut, Mungian, eta hori da proiektu handiena. Horrez gainera, bi-



Bittor Barandiaran Arrieta, Bakea jatetxean. B.B.A.

### MOTZEAN

**Pintxo bat.**

Gilda.

**Zure plater onena.**

Plater sakonean jatekoak.

**Arraina ala haragia?**

Ezingo nuke aukeratu.

**Gastronomia-mota bat?**

Berritzailea, baina tradizioa errespetatzen duena.

**Kuzinatzeko abesti bat.**

Jan-en *Heuretik jo*.

**Jatetxe bat.**

Bakea (Mungia).

deo horiek egiten ditugu eta urtean bizpahiru catering ere egiten ditut; esate baterako, uztailan ezkontza batean egongo naiz. Izan ere, nire ideiak praktikan jartzeko egiten dut, hein handi batean.

**Joango zinateke beste herrialde batera lan egitera?**

Orain bertan ez dakit. Proiektu interesgarri asko daude, baina ez dakit denbora luzez lanera joango nintzatekeen. Motxiladun, akaso, bai; eta hainbat jatetxe eta herrialdetan geldialdiak egingo nituzke.

# 'NOLAKOAK DIRA GURE BASOAK?'

'DATUETATIK TIRAKA' SAIOA

OTSAILAREN 27AN, EGUENA, 20:00ETAN ETA 22:00ETAN



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

**goiena**  
Zu hemen zaude.

